# Goienkaria

2006ko azaroaren 24a > Egubakoitza > VI. urtea > 266. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net



"EAJ eta EA gobernutik kentzea da ezkerrekoon erronka ibarrean"

**Oxel Erostarbe**

Aralar > 09

**G2a** 'La leyenda del beso' zarzuela Arrasaten > 43

**BERGARA** 'Gehixago eta hobeto' programan, Bergarako berbeta ikasten > 24

**ARETXABALETA** Hamazazpi oztopo arkitektoniko kendu dituzte orain arte > 30

**KIROLA** Mikel Galdos golf jokalaria, Peugeot Tour txapelketako finalean > 40

**INGURUMENA** > GAP PROGRAMA

# Ingurumen programa baten parte hartzeko eskatu dute

**JAURLARITZAREN PLANA** Ingurumen sailburuak, Esther Larrañagak, GAP programa aurkeztu du Debagoienean

**DENONDAKO** Edozein familiak parte har dezake, oso ekintza errazen bidez, energia aurreztu eta gutxiago kutsatzeko

**BI MODU** Esku hartzeko bi modu dago: etxeetan banatuko dituzten orrien bidez eta 'www.ingurumen.net'-en > 02-03

## Debagoiendarrak saritu dituzte espediente bikainarengatik

Kutxak karrera amaierako sariak banatu dizkie espediente akademikorik onenak lortu dituzten 42 ikasle gipuzkoarri. Tartean dira sei debagoiendar: Nerea Agirre eta Amaia Altzelai oñatiarrak, Lur Zubiaga arrasatearra, Ainara Bilbao aretxabaletarra eta Bergarako Maitane Loiola eta Irene Santamaria. Mondragon Unibertsitateko 12 ikaslek ere eskuratu dute saria. Irabazleek diploma eta diru saria jaso dute. > 07



**SARITUAK** Goian: Ainara Bilbao eta Amaia Altzelai. Behean: Lur Zubiaga eta Maitane Loiola. MONDRABERRI

**DEBA IBAIA** > ARAZTEGIA

## Epeleko lanak, urte hasieran

Urtarrilean hasiko dira Epeleko araztegia egiten, ibaia garbitzeko > 05

**GIZARTEA** > TRATU TXARRAK

## Biktimei laguntzeko zerbitzuak

Bihar, azaroak 25, emakumeen aurkako tratu txarrak gaitzesteko nazioarteko eguna da. Horren harira, ibarreko udaletako ongizate zerbitzuek gizarte osoari inplikatzeko eskatu diote, eta biktimendako zein zerbitzu dituzten gogorarazi dute. > 04

## Osasunaren gaineko gehigarria

GOIENKARIArekin batera, zortzi orriko gehigarria osasunaz, guztia koloretan.




**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-41
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Telebista-Irratia** > 51
**Komunikazioa** > 52
**Non-zer** > 54-55






**INGURUMENA** > GAP EKINTZA PLANA AURKEZTU DU INGURUMEN SAILBURUAK

# Ingurumen plan baten guztion parte hartzea eskatzen dute erakundeek

**EKINTZAK** GAP izeneko ingurumen programa batek denok eguneroko bizitzan egiteko moduko ekintza errazak proposatzen ditu

**HELBURUA** Garapen iraunkorra egunerokotasunean sartu, ingurumen kaltea txikitu eta bizi-kalitatea hobetu nahi du Eusko Jaurlaritzak GAPekin

**ESKU HARTZEA** Jendeak bi modutara esku har dezake: etxez etxe banatuko dituzten orrietan izena emanez, edo *www.ingurumena.net* gunean



AURKEZPENA Erdian, Esther Larrañaga, Ingurumen

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Ingurumen sailburuak, Esther Larrañaga arrasatearrak, eta Debagoieneko udal ordezkari gorenek batera ezagutarazi dute eskualdean ezarriko den ingurumen programa berria, GAP. Izen laburra du, eta ahalegin txikia eskatzen du, baina lorpen handietara iritsi nahi du: iraunkortasuna eguneroko bizitzara ekarri eta, ekintza xumeen bidez, denon bizi-kalitatea eta ingurumena hobetu.

Erakundeotako ordezkariak Arrasateko osoko bilkuren aretoan batu ziren eguaztenean programa horren berri emateko eta jendea parte hartzera animatu; izan ere, herritarrak inplikatzea ezinbestekoa da GAP programak arrakasta izateko.

**ZELAN FUNTZIONATZEN DUEN**

GAPek ingeleseko sigletatik hartzen du izena: Global Action Plan, edo lurrarendako ekintza plan globala. Lurrari egiten diogun kaltea txikitzeko, eguneroko bizitzarako lau arlotako ekintzak proposatzen ditu: ura; energiaren kontsumoa; mugikortasuna; eta etxerako erosketak eta etxeko hondakinak kudeatzea. Arlo bakoitzerako zazpi ekintza erraz azaltzen dira GAPen.

Parte hartzeko moduak bi dira: bat, Eusko Jaurlaritzak banatuko dituen esku-orriaren bidez izena ematea; bestea, Internetez, *www.ingurumena.net* webgunearen bidez. Familia konprometitu egiten da ekintza horiek egiteko, ahal bezain beste, eta horretarako informazioa etxean jasotzen du. Gero, galdetegi batzuen bidez, ekintzen berri eman behar du. Internetez parte hartzen dutenen artean, zortzi bizikleta eta landa-etxean bost asteburu zozketatuko dituzte; eta GAPen parte hartzen dutenek zetazeoak eta itsas hegaztiak ikustera joateko 20 leku eta Karpin abenturarako 100 sarrera irabaz dezakete. 138 sari banatuko dituzte denetara.

Ekintza guztiak oso denbora laburrean eta oso modu errazean egiteko modukoak dira. Adibidez, telebista itxoite moduan uztea elektrizitate kontsumoko %10 da; horren ordez, itzaltzea proposatzen da.

Gai bakoitzeko ekintzak hilabetean egingo dituzte. Horrela, GAP urtarrilean hasi eta apirilean bukatuko da eskualdean. Epe berean, EAEko hiriburuetan eta beste eskualde batzuetan ipiniko dute GAP. Larrañagaren hitzetan, "Debagoienak erakutsi du eredugarria dela iraunkortasunaren bidean", eta horregatik erabaki dute GAP gurera ekartzea. Era berean, gogoratu zuen Arrasateko Udala aurrekari izan zela, 2002. urtean Agenda 21 ezarri zuelako.

**PLAN PILOTUA EAE-N**

GAP plangintzak badu aurrekaririk EAEn: 2004an, Debabarrenean eta Urdaibain egin zuen Jaurlaritzak plan pilotu bat. 4.000 etxek parte hartu zuten. Emaitzak ezin hobeak izan ziren: 700 tona $CO_2$ gutxiago isuri zen airera, eta etxeko ur kontsumoa 15 milioi litro txikiagoa izan zen (50 metroko sei igerileku olinpikotan sartzen den ura).

Horrenbestez, datu orokorrak hauek izan ziren: edukiontziak %10 gehiago erabili zituzten; etxeko energian %17 aurreztu zen; ur kontsumoan, %7; eta $CO_2$ isurketa %15 jaitsi zen. Orain, arrakasta Debagoienean errepikatzea da helburua. Horretarako, hilaren 28an, martitzena, Ingurumen sailburuak Oñatin aurkeztuko du GAP, udaletxean, 18:30ean.

**MUNDU OSOAN**

Debagoienean, Eusko Jaurlaritzaren Garapen Iraunkorrerako Ingurumen Estrategiaren eskutik dator ekintza sorta hori. Jatorria Nazio Batuetan du; zehatzago esateko, 1990. urtean, 1992ko Rioko Gailurra prestatzeko giroan. Ingurumenaz kezkatuta, gizarte osoak parte hartzeko ekintza plan bat

**EAEko bi eskualdetan 2004an ezarri zen GAP, eta orain, eskualdean egingo da, "garapen iraunkorrean eredugarria delako", Ingurumen sailburuak dioenez**

**Orain bi urteko esperientzian, oso emaitza onak lortu ziren: esaterako, %15 CO2 gutxiago bota zen, etxeko energian %17 aurreztu zen, eta %7 ur gutxiago kontsumitu zen**

Arizmendi
ikastola

**ARIZMENDI KOOPERATIBA ELKARTEAREN BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA**

Arizmendi Kooperatiba Elkarteko Estatutu Sozialetako 30. artikuluak dioenari jarraituz, Kontseilu Errektoreak 2006ko azaroaren 2an egoitza sozialean egindako bileran adostu du Arizmendi Kooperatiba Elkarteko bazkide guztiak Ohiko Batzar Nagusi honetara deitzea, kooperatibaren interesetarako onuragarria delakoan.

**DEIALDIA**

**Eguna:** **2006ko abenduaren 14a.**
**Lekua:** **San Viator Txiki guneko aretoa.**
**Ordua:** **Lehen deialdia: 18:00.**
**Bigarren deialdia: 18:30.**

**GAI-ZERRENDA**

**LEHENA.-** Batzar Nagusiko agiria onartzeko bi bazkideren izendapena.

**BIGARRENA.-** 2005-2006 ekitaldiko sozietate-kudeaketa aztertzea eta, hala balegokio, Urteko Kontuak (Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua eta Txostena), baita kudeaketa-txostena ere, onartzea.

**HIRUGARRENA.-** 2005-06 ekitaldiko emaitzen banaketa eta Nahitaezko Kapital Ekarpenaren erretribuzioa.

**LAUGARRENA.-** 2006-2007 ekitaldirako aurrekontuaren aurkezpena.

**BOSTGARRENA.-** Organo Sozialen Berriztapena: Kontseilu Errektorea eta Kontseilu Soziala.

**SEIGARRENA.-** Kontseilu Errektorea ahalduntzea.

**ZAZPIGARRENA.-** Galde-erantzunak.

*Mikel Lezamiz Bilbao*
*Lehendakaria*
*Aretxabaletan, 2006ko azaroaren 14an*



sailburua, GAP programa aurkezten Debagoieneko udaletako eta mankomunitateko ordezkariekin. L.K.

diseinatu zuen herritar talde batek. Lehenengo, AEBetan ipini zuten martxan eta, orduz geroztik, hamabost herrialdek egin dute bat GAPekin: Espainiak, Herbehereek, Britainia Handiak, Suediak, Suitzak eta beste batzuek.

Erakunde publikoek bultzatzen dute GAP: gaur egun, Nazio Batuetako Ingurumenaren aldeko Programak babesten du. Baina, izatez, ez da gobernu ekimena: Espainian, adibidez, Gobernuz Kanpoko Erakunde batek darama (*www.programagap.org*), Espainiako Ingurumen Ministerioaren laguntzarekin. Erakunde pribatuen elkarlana ere oso ondo hartzen dute.

Oro har, helburu hauek ditu GAPek: etxean %20 hondakin gutxiago produzitzea; uraren eta energiaren kontsumoa %15 jaistea; eta CO2, negutegi efektua sortzen duena, %10 gutxiago isuri.

Horrez gain, euren esanetan, errazagoa da etxetik ingurumena zaintzeko eta hobetzearen alde kontzientziatzen den jendeak gero ingurumenaren eta garapen iraunkorraren alde beste ekintza batzuetan parte hartzea.

## AHOLKU BATZUK

**> LEHENENGO, BALORATU**
Hauek dira etxeko energia erabilera portzentajeak: berokuntza zentrala, %34; etxeko tresnak eta argiteria, %34; ur berogailua, %13; hozkailua, %8; aire girotu elektrikoa, %11. Energia aurrezteko, lehenengo urratsa zelan gastatzen den ebaluatzea da.

**> ISOLAMENDU TERMIKOA**
Begiratu etxea ondo isolatuta dagoen: pitzadurak baldin badaude, energia handia galtzen da. Era berean, beira bikoitzeko leihoak ipintzea komeni da.

**> ARGIAK**
Fokuen eta betiko bonbillen ordez, jarri lanpara fluoreszenteak, edo bonbilla fluoreszente konpaktuak. Garestiagoak badira ere, epe luzera aurrezten laguntzen dute eta garbiagoak dira. Erabiltzen ez diren argiak itzali, eta, ahal denean, argi fokalizatuak erabili: lanpara txikiak, flexoak...

**> BEROKUNTZA**
Berokuntza eta aire girotua batera etxeko energia gastuaren %45 dira. Termostatoa egokitu, galdaren filtroak noizbehinka garbitu, ke eta bapore erauzgailua erabiltzen bukatutakoan itzali, eta berokuntza edo aire girotua martxan daudenean, leihoak itxi.

**> HOZKAILUA**
Etxetresna elektriko guztietatik, hozkailuak egiten du gastu handien. Berria erosterakoan, hezetasuna modu automatikoan kontrolatzen duena erosi. Bestetik, kendu izotza noizean behin. Janariak edo edariak estalita edo batuta sartu.

**> APARAILUAK ITZALI**
Oso uste hedatua -baina faltsuada ordenagailua *standby* moduan uzteak bizitza luzatzen diola: hobe da itzaltzea.

**> BEROGAILUAK**
Berogailuaren erregailuak eta erreflektoreak garbi eduki, energia aurrezteko.

**> LAPIKO EGOKIA**
Janariak edo likidoak sutegian berotzen dituzunean, saiatu ontzia edo lapikoa bero-iturriaren neurri berekoa izatea.

**> SUKALDEAN**
Energia alferrik ez galtzeko, presio-eltzeak, mikrouhin labeak eta estalitako teontziak oso praktikoak dira.

Bestalde, jatekoak berotzeko, sukaldeko labe handia barik, lapiko txikiak eta sutegia erabili.

**> GARBIGAILUA**
Arropa garbitzeko gastatzen den energiaren %90 ura berotzen erabiltzen da, eta hori bi modutan murritz daiteke: ur gutxiago eta hotzagoa erabiltzea, koipe orbanak garbitu behar ez direnean. Horrez gain, itxaron garbigailua beteta egon arte berau martxan jartzeko.

**> ARROPA LEHORTZEKO**
Hobe da, eguraldi ona dagoenean, arropa kanpoan lehortzen uztea, arropa lehorgailua erabiltzea baino; asko gastatzen du. Neguan, kalefakzioa ipinita badago, arropa erradiadoreen gainean ere ipin daiteke azkar lehortzeko.

**> AUTOA BEROTU**
Hotz egiten duenean, autoa berotzeko modu onena gidatzea da: ez utzi motorra piztuta autoa berotu arte.

**> ERREPIDEAN**
Modu agresiboan gidatzean (oso azkar joatea, bat-batean azeleratzea edo balaztatzea...) erregaia alferrik galtzen da. Erregai gehiago gastatzen da ere autoan larregiko pisua eramateagatik.



**ESKUKO ORDENAGAILUA** Energia gutxiago kontsumitzen du.





**Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak.**
Joseba Sarrionandia
*Edizio zuzendu eta eguneratua*
***Bernardo Atxagaren hitzaurrea***
**288 orr. - 19 euro**
"Joseba Sarrionandiak burututako bilduma honetan barneratzen den irakurleak lagun baten hurbiltasuna sentituko du lehen orrialdeetatik..."
Bernardo Atxaga
PAMIELA argitaletxea




Servimasa
Sukalderako altzariendako osagarriak
FAGOR etxetresna elektrikoak
• Kooperatibistentzako banatzaile espezializatua
• Baldintza ezin hobeak
Tel.: 943 76 19 95
BERGARA

Omega Elevator, s.a.
• Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
• Gremioen koordinazioa
• Arkitektura-oztopoen kentze lanak
Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ
Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96
omegaelevator@omegaelevator.com

((112))
SOS DEIAK

**GIZARTEA** > EMAKUMEEN AURKAKO TRATU TXARREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA, BIHAR

# Tratu txarren aurrean denon inplikazioa eskatzen dute

Ibarreko udaletako ongizate zerbitzuek, Diputazioaren laguntzarekin, biktimei laguntzeko zerbitzuak dituzte

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

Bihar, zapatua, emakumeen indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna da. Arrasaten, Emakume Txokoak antolatuta, kale agerraldia egingo dute Herriko Plazan, 19:00etan. Honakoa izango da leloa: *Berdintasunaren alde bazaude, egizu harreman egokien alde*. Ibarreko udalek egoera horretan dauden emakumeei laguntzeko dituzten zerbitzuen berri bildu nahi izan dugu.

**LARRIALDI NEURRIAK**

Aholkularitza juridikoa, laguntasun ekonomikoa, zerbitzu psikologikoak... denetik behar izaten dute indarkeria sufritzen duten emakumeek. Hain zuzen ere, udaletako ongizate sailak arduratzen dira emakumeei laguntasuna eta aholkularitza eskaintzeaz.

Lehendabizi, emakumearen eta egoeraren balorazioa egiten dute, eta beharrizanen arabera planifikatzen dute gizarte zerbitzuetako teknikariek ze bide jarraitu. Kasu bakoitza aztertu behar izaten dute.

Lehenik eta behin, larrialdi neurriak daude: esaterako, salaketa jartzen laguntzen diote emakumeari. Bergarako Udaleko Ongizateko teknikari Jon Lopezek azaldu digunez, gaua etxetik kanpo pasatu behar baldin badu, hoteleko egonaldia ordaindu egiten zaio.

"Kasu larrienetan, gainera, babes etxebizitzetara bideratzen ditugu", gaineratu digu Lopezek. Etxebizitza horiek nora jo ez duten emakumeendako dira. 25.000 biztanle baino gehiago herriak era horretako etxebizitza bat, gutxienez, edukitzera behartzen ditu legeak. Gurean, Arrasaten dago babes etxebizitza bat. Zumarragara ere bideratzen dituzte debagoiendar emakumeak.

**LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA, DOAN**

Bestalde, aipatzekoa da laguntza psikologikoa ere eskaintzen dietela emakumeei. Kasuz kasu, zerbitzu horren beharra neurtu eta doan eskaintzen zaie.

Aholkularitza juridikoa ere ematen diete ongizate sailetan. Abokatu batengana bideratzen dituzte kasuak, doaneko justizia zerbitzuak eskatzen laguntzen diete, salaketak jartzen...

**ASTEBURUAN, KASU GEHIENAK**

Jon Lopez teknikariaren esanetan, asteburuan gertatzen dira tratu txar kasu gehienak: "Izan daiteke gizona etxean dagoelako, aisialdian daudelako, alkohola gehiago kontsumitzen delako... Kontuan hartu behar da, gainera, tratu txarretan, kasuen %70ean alkohola tartean dagoela".

Tratu txarrak jasaten dituenaren profila zehaztea ez da erraza, eta askotan topikoetara jotzen da. Dena dela, Lopezen esanetan, asko eta asko dira emakume helduak, diru sarrerarik gabeak. Jatorriari dagokionez, denetarikoak daudela diosku: euskaldunak eta kanpotarrak.

Emakume horiek dituzten beharrizan nagusiei dagokienez, zera adierazi digu Jon Lopezek: "Independizatzera doan edozein pertsonak bezala, etxebizitza eta diru-sarrera beharra izaten dute".

**TXARTELAK, BERGARAN**

Indarkeria kasuak salatzeko nora jo jakiteko txartelak banatu ditu Bergarako Ongizate Sailak. Hainbat telefono zenbaki ematen dituzte txartel horietan. Igerilekuan, anbulatorioan, farmazietan eta kultura etxean daude eskuragarri.

## Edozeinek jar dezake salaketa

Gizarte laguntzaileek, teknikariek eta indarkeria sufritu duten emakumeekin lan egiten dutenek azpimarratzen dute guztiz beharrezkoa dela gizarte osoaren inplikazioa. Salaketa jartzeko aukera denok dugu, ez biktimak bakarrik. Datuen arabera, salaketen %50 biktimek eurek jartzen dituzte; gainerakoak, berriz, ingurukoek: ezagunek, bizilagunek, lekukoek...

Aipatzekoa da kasuen %20 bakarrik salatzen direla. Jon Lopezen ustez, salaketa kopurua handitzea beharrezkoa da, baina gizarte osoa inplikatu behar da horretan. Telefono zenbakiak dira: 900-84 01 11 (Eusko Jaurlaritza, 24 orduz), 943-22 44 11 (Diputazioa, 24 orduz) eta 112 (SOS deiak).

## Talleres Anzuolako kaleratzeak salatzeko herritar ugari batu zen

Astelehenean bi kale agerraldi egin zituzten Talleres Anzuolako kaleratzeak salatzeko. Eguerdian, sindikatuek deituta, lantegiaren aurrean egin zuten protesta ekitaldia. Iluntzean, berriz, Antzuolako Zurrategi plazan 180 bat lagun elkartu ziren. Ondoren, lantegiko arduradunetako baten etxearen aurrera joan ziren.

Azkeneko lau hilabeteetan bi langile kaleratu ditu enpresak; langileon esanetan, "oso era txarrean" kaleratu dituzte.



OIHANA ELORTZA

Joserra Zubizarreta > GIEko lehendakaria

# "Gure CD-ROMa eraman zuen dukeak poltsikoan"

AINTZANE IRIZAR > ESKORIATZA

**Aurreko astean izan ziren Londresen ikastoletako ordezkariak, Président's Award izeneko saria jasotzen. Edinburgoko dukeak berak eman zien sari hori. Hango gorabeheren gainean jardun dugu Joserra Zubizarreta Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko lehendakariarekin.**

**Astebete pasatu da Londresen saria jaso zenutenetik. Zela gogoratzen dituzu egun haiek?**

Oraindik emozio handiarekin. Momentu hunkigarriak bizi izan genituen eta oraindik sinesgaitza iruditzen zait gu bezalako mugimendu batek non eta Buckinghamen sari bat jasotzea. Gainera, gogora ekartzen dit orain arte ikastolok zelako egurra jaso dugun. Oso esperientzia polita izan da, ikaragarria.

**Zer ekarri dizue sari horrek zuoi?**

Poza sentitzen dugu, eta errekonozimendu hori ikastolendako oso inportantea da; urte askotako lanaren errekonozimendua dela uste dut. Gainera, apustu baten errekonozimendua da. Gaur egun, asko hitz egiten da hezkuntza eleanitzaren gainean, baina guk orain dela hamabost urte egin genuen horren aldeko apustua. Handik urte batzuetara, berriz, metodo pedagogikoek teknologia berrietara egokitu behar zutela ikusi genuen. Horrelako errekonozimendua jasotzea izugarria da.

**Zenbat lagun joan zineten?**

Londresera hamahiru lagun joan ginen, baina hiru lagunendako bakarrik geneuzkan gonbidapenak eta gainerako hamar lagunek ez zuten sartzerik izan. Itziar Elortza Eleanitz proiektuko zuzendaria, Diana Lindsay CD-ROMaren arduradun pedagogikoa eta ni neu sartu ginen.

**Bitxia zen ikustea ikastoletako ordezkariak Edinburgoko dukearen alboan. Anekdotaren bat izango duzue, ezta?**

(Barreak). Jauregiko sari banaketa protokolo handikoa da; hortaz, egun hartan goizean egon ginen saria ematen duen erakundearen egoitzan ikasteko zer egin behar genuen ekitaldian. Bada, gurekin protokolo arau guztiak apurtu zituen dukeak. Denbora dezente pasatu zuen gurekin hitz egiten. Dukea konturatu zen ingelesez ez nekiela eta esan zidan ea horrelako material ona edukita, nolatan ez nekien. Erantzun nion hurrengo saria ematen zigutenerako ikasiko nuela.

Aipatzekoa da, bestalde, saria eman zigun The English Speaking Union erakundeko kideek esan zigutela dukeak poltsikoan eraman zuen sarituko material bakarra gurea izan zela. Horrek ere asko poztu gintuen.

**Zelakoa da *Space Search*?**

Hamabost urte hauetan garatu dugun Eleanitz Programaren barruan, material osagarria da. Jolasaren bitartez ingelesa ikasteko aukera ematen du. Hiztegia, sintaxia, ortografia... lantzen dituzte umeek, jolasaren bitartez.

**Merkaturatuko duzue?**

Bada, bai; atzo bertan erabaki genuen baietz, merkaturatu egingo dugula. Durangoko azokan gure izarra izango da.

Erabaki horretan eragina izan du, besteak beste, beste anekdota batek: saria eman digun erakundearen epaimahaiko kide batek kontatu zigun bere bilobei eraman ziela CD-ROMa eta izugarri gustatu zitzaiela. Gainera, saria irabazi eta jokoa ospetsu egin denetik, mundu osotik ari zaizkigu eskatzen. Azkenean, merkaturatzea erabaki dugu.

**Hango jendearekin harremanik izan zenuten?**

Bai, bai. Jakingo duzuen moduan, aurreko urteetan, besteak beste Oxford eta Cambridge unibertsitateetakoek jaso dute orain guk jaso dugun saria. Eurekin egoteko aukera izan genuen eta hona etortzeko asmoa erakutsi ziguten, ikastolen proiektua bertatik bertara ezagutu nahi dute-eta.

**Zer sari eman dizuete?**

Kristalezko kopa handi bat eta Edinburgoko dukeak sinatutako diploma bat. Dirurik ez dute ematen.

**Kristalezko kopa handi bat eman zizueten. Zer egin duzue kopa horrekin?**

Donostiako gure egoitzan dago, Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen egoitzan. Datorren urteko Kontxako estropaden egunean, bertatik izozkia jateko asmoa dugu.

**"Atzo bertan erabaki genuen CD-ROMa salgai jartzea; Dungoko Azokan gure 'izarra' izango da"**

**"Oxford eta Cambridge unibertsitatekoek etortzeko asmoa dute, ikastolak ezagutzera"**



Itziar Elortza, Diana Lindsay eta Joserra Zubizarreta, Buckingham jauregiaren aurrean, sariarekin. GIPUZKOAKO IKASTOLEN ELKARTEA

KIA MOTORS

KIA SORENTO BERRIA 170 zp



Ezagutu ezazu!



KIA SPORTAGE
%12erainoko DESKONTUA



KIA CARNIVAL BERRIA
Ezagutu ezazu!

Tecnocar
Honda eta Kia banatzaile ofiziala



TECNOCAR GIPUZKOA
Erakusketa eta tailerra
Araba etorbidea z/g – Arrasate
943 79 22 67 Faxa: 943 71 27 38

Adi!
0 km eta 2. eskuko autoen sekulako aukerak
HONDA CIVIC 5 ate ES CTDI (04)
HONDA ACCORD 2.4 i-VTEC (06)
HONDA FRV 2.2 i CTDI EXECUTIVE(05)
RENAULT LAGUNA 2.2 DCI (03)
HONDA CRV 2.0 ES 4WD (00)
*Prever plana barne.

HONDA
The Power of Dreams

HONDA CIVIC Hibridoa
- 90 ZP gasolina
- 25 ZP elektrikoa
- 1090 KM (50 litro)
- Herrian kontsumoa: 5,2

Ezagutu ezazu!





HONDA CRV Diesela i CTDI
0 km (26.900 €)
Unitate mugatuak



HONDA ACCORD BERRIA
22.400 eurotik aurrera*

**INGURUMENA** > DEBAGOIENEKO ARAZTEGIAK

# Lau urte barru, Deba ibaia garbi ikusi ahal izango dugu, araztegiei esker

Mekolalden egiten dabiltzan araztegia 2007ko udarako bukatuko dute

Epelen, urte hasieran hasiko dituzte araztegiko obrak; lau urte dituzte bukatzeko



**BILTEGIA** Uren tratamendurako biltegiak edo Mekolalden eraikitzeko lanak bide onetik doaz; Mekolalde baserria, berriz, urte hasieran berritzen hasiko dira. ENEKO AZKARATE

**UBANE MADERA** > DEBAGOIENA

Epeleko araztegia Dragados y Construcciones enpresak eraikiko du. Proiektua ere enpresa berak idatzi du. Hain justu ere, Sustapen Ministerioan aurkeztu dute, eta Estatuko erakundearen behin betiko onespena jasotzeko zain daude, Bergarako eta Arrasateko udaletan proiektua aurkeztu eta lanerako baimena lortzeko. Hala adierazi du enpresako ordezkari Jesus de los Riosek.

Izan ere, Epeleko araztegia eraikitzeko, Arrasateko eta Bergarako lurrak erabili behar dituzte. Hain justu ere, Arrasateko sarreran, Eibar-Gasteiz autobidera sartzeko bidetik gertu eraikiko dute araztegia. Kanpanzarrera igotzeko bidean, biribilgunea egiten dabiltza, eta biribilgune horren albo bietan eraikiko dute: Arrasateko lurretan eraikiko dute araztegirako sarrera eta Bergarakoetan, uren tratamendurako biltegiak (*igerilekuak* deitzen dietenak) eraikiko dituzte.

Lan horiek urte hasieran hasiko dituztela esan du Dragados enpresak. 48 hilabetean bukatu beharko dituzte obrak, eta araztegia ondo dabilela epe berean frogatu beharko dute. Aurrekontua 26 milioi euro inguru da.

**MEKOLALDEKO ARAZTEGIA**

Mekolaldeko araztegiari dagokionez, lanak aurreikusitako moduan doazela esan du Jaurlaritzak, eta otsail-martxoan hasiko direla ekipamendua sartzen. Hala, udarako, lanak bukatuko dituzte. Eta horren ostean, Gipuzkoako Ur Partzuergoak ondo dabilela frogatu beharko du, zabaldu aurretik.



HEZKUNTZA

## Ibarreko herri eskola guztiek egin dute greba

I.A. > BERGARA

Irakaskuntza publikoan deitutako lan uztearekin bat eginez, greba egin zuten martitzenean ibarreko herri eskolek. Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Gatzagan, Bergaran, Elgetan, Antzuolan, Oñatin, Angiozarren eta Osintxun egin zuten, hain zuzen. Aramaioko herri eskolan, eguenean egin zuten greba.

**ESKARIAK**

Langileek eskatzen dute irakasle gehiago izatea eta egonkortasuna bermatzea; eskolak prestatzeko eta koordinatzeko denbora izatea; 55 urtetik gorakoek ikasleekin ordu gutxiago izatea; ikasleen beharrei egoki erantzuteko espezialistak eta baliabideak izatea; ordezkoen lan baldintzak besteenak bezalakoak izatea; gela bakoitzeko ikasle kopurua gutxitzea; bi urteko 18 ume irakasle bakarrarekin ez egotea; eta gaixotasun baja guztiak ordezkatzea, besteak beste.

UNIBERTSITATEA > KARRERA AMAIERAKO KUTXA SARIAK

# Sei ikasle debagoiendar saritu dituzte espediente bikainengatik

Bi bergarar, bi oñatiar, aretxabaletar bat eta arrasatear bat izan dira sarituak

Ikasleen esanetan, "lana antolatzea" da emaitza onak eskuratzeko bidea

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Karrera Amaierako Kutxa Sariak banatu dituzte asteon. Saria jasotzen dute gipuzkoarrak izan, ikasketak 2005-2006 ikasturtean amaitu, Gipuzkoako fakultate, unibertsitate eskola eta goi mailako eskoletan karrerako espediente akademikorik onena lortu eta Kutxan kontua duten ikasleek.

Guztira, 42 ikaslek jaso dute saria, tartean sei debagoiendarrek: Gizarte Hezkuntzan diplomatutako Nerea Agirre oñatiarrak; Erizaintzan diplomatutako Lur Zubiaga arrasatearrak; Automatika eta Industria Elektronikako ingeniari Ainara Bilbao aretxabaletarrak; Enpresa Zientzien Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatutako Maitane Loiola bergararrak; Kudeaketa Informatikoko ingeniari tekniko Amaia Altzelai oñatiarrak; eta Irene Santamaria Atzerriko Hizkuntza irakasle bergararrak. Sarituetatik 12 Mondragon Unibertsitateko ikasleak dira.

Lizentziadun, ingeniari eta arkitektoek 1.350 euro eta diploma jaso dituzte; diplomadun, ingeniari eta arkitekto tekniko eta irakasleek, 1.050 euro eta diploma.

**LANA ETA IKASKETAK UZTARTU**

Maitane Loiola eta Irene Santamaria bergararrak bat etorri dira esatean "lana antolatzea" dela emaitza onak eskuratzeko bidea.

Lana eta ikasketak uztartu ditu Maitane Loiolak: "Egunean egunekoa egitea da sekretua. Goizean lanera, arratsaldean eskolak eta gero etxeko lanak egin ditut karrera amaitu bitartean, baina konstantea izan naiz. Zenbat eta lan gehiago izan, tentsioa ere handiagoa da, eta horrek, neurri batean, lagundu egin dit", esan digu.

Irene Santamariak eskolak ematen eta tabernan jardun du lanean ikasketak egin bitartean. "Aste barruan egun batzuetan goizean goiz eskoletara joan eta oso berandu etxeratu naiz lanetik".

Biek esan digute ikasketak ez direla oztopo izan aisialdia aprobetxatzeko: "Asteburuetan lagunekin irteteko aprobetxatu dugu, baita asteko egun batzuk ere. Ikasi behar denean ikasi eta gainontzean libre", esan digute.

Pozik daude, eta egindako lanaren ordaina, behintzat, jaso dute.



SARIA Irene Santamariak eta Maitane Loiolak diploma eta diru saria jaso dituzte. I.A.

UDAL HAUTESKUNDEAK > BERGARAKO EAJ-REN HAUTAGAIA

## German Muruamendiaraz izango da Bergarako EAJren alkategaia

Hala erabaki zuten Bergarako EAJko afiliatuek, atzo iluntzean batzokian egin zuten batzarrean



German Muruamendiaraz. GOIENKARIA

ENEKO AZKARATE > BERGARA

German Muruamendiaraz izango da Bergarako EAJko hautagaia datozen Udal hauteskundeetarako. Hala erabaki zuten atzoko batzarrean Bergarako EAJko afiliatuek. German Muruamendiaraz Kalitatea Fundazioko zuzendaria da gaur egun, eta lehenengo agintaldia du oraingoa zinegotzi moduan Bergarako Udalean. Azken lau agintaldietan Bergarako alkate izan den Victoriano Gallastegi —erretiroa hartuko du— ordezkatzera dator.

Ez aurkeztea erabaki duena Arrasateko alkatea da, Inazio Lakuntza. Agintaldi hau eman du alkatetzan eta gorabeheratsua izaten ari da, eskandalu urbanistiko eta guzti. Arrasateko EAJk oraindik ez du erabaki zein hautagai aurkeztu hauteskundeetara. Prozesu horretan murgilduta daude, baina urtarrilera arte-edo ez dute azken erabakia hartuko.

Bestalde, Lurdes Idoiaga aurkeztuko da Oñatiko alkate izateko. Asmo hori agertu du, behintzat. Aurten hartu du Andoni Gartziaren lekukoa, agintaldiaren erdian, honek kargua laga ostean. Gaur egun, Lagun Aron dihardu lanean, Arrasaten.

Debagoieneko beste alkateek ez dute erabaki oraindik zer egin. Arritxu Oliden Aretxabaletako alkateak ez du oraindik erabaki aurkeztuko den edo ez. Baina, erabakia berea da; izan ere, alderdiak eskatu dio aurkeztea.



**HEZKUNTZA**

## Ibarreko herri eskola guztiek egin dute greba

I.A. > BERGARA
Irakaskuntza publikoan deitutako lan uztearekin bat eginez, greba egin zuten martitzenean ibarreko herri eskolek. Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Gatzagan, Bergaran, Elgetan, Antzuolan, Oñatin, Angiozarren eta Osintxun egin zuten, hain zuzen. Aramaioko herri eskolan, eguenean egin zuten greba.

**ESKARIAK**
Langileek eskatzen dute irakasle gehiago izatea eta egonkortasuna bermatzea; eskolak prestatzeko eta koordinatzeko denbora izatea; 55 urtetik gorakoek ikasleekin ordu gutxiago izatea; ikasleen beharrei egoki erantzuteko espezialistak eta baliabideak izatea; ordezkoen lan baldintzak besteenak bezalakoak izatea; gela bakoitzeko ikasle kopurua gutxitzea; bi urteko 18 ume irakasle bakarrarekin ez egotea; eta gaixotasun baja guztiak ordezkatzea, besteak beste.

**UNIBERTSITATEA** > KARRERA AMAIERAKO KUTXA SARIAK

# Sei ikasle debagoiendar saritu dituzte espediente bikainengatik

Bi bergarar, bi oñatiar, aretxabaletar bat eta arrasatear bat izan dira sarituak

Ikasleen esanetan, "lana antolatzea" da emaitza onak eskuratzeko bidea

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Karrera Amaierako Kutxa Sariak banatu dituzte asteon. Saria jasotzen dute gipuzkoarrak izan, ikasketak 2005-2006 ikasturtean amaitu, Gipuzkoako fakultate, unibertsitate eskola eta goi mailako eskoletan karrerako espediente akademikorik onena lortu eta Kutxan kontua duten ikasleek.

Guztira, 42 ikaslek jaso dute saria, tartean sei debagoiendarrek: Gizarte Hezkuntzan diplomatutako Nerea Agirre oñatiarrak; Erizaintzan diplomatutako Lur Zubiaga arrasatearrak; Automatika eta Industria Elektronikako ingeniari Ainara Bilbao aretxabaletarrak; Enpresa Zientzien Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatutako Maitane Loiola bergararrak; Kudeaketa Informatikoko ingeniari tekniko Amaia Altzelai oñatiarrak; eta Irene Santamaria Atzerriko Hizkuntza irakasle bergararrak. Sarituetatik 12 Mondragon Unibertsitateko ikasleak dira.

Lizentziadun, ingeniari eta arkitektoek 1.350 euro eta diploma jaso dituzte; diplomadun, ingeniari eta arkitekto tekniko eta irakasleek, 1.050 euro eta diploma.

**LANA ETA IKASKETAK UZTARTU**
Maitane Loiola eta Irene Santamaria bergararrak bat etorri dira esatean "lana antolatzea" dela emaitza onak eskuratzeko bidea.

Lana eta ikasketak uztartu ditu Maitane Loiolak: "Egunean egunekoa egitea da sekretua. Goizean lanera, arratsaldean eskolak eta gero etxeko lanak egin ditut karrera amaitu bitartean, baina konstantea izan naiz. Zenbat eta lan gehiago izan, tentsioa ere handiagoa da, eta horrek, neurri batean, lagundu egin dit", esan digu.

Irene Santamariak eskolak ematen eta tabernan jardun du lanean ikasketak egin bitartean. "Aste barruan egun batzuetan goizean goiz eskoletara joan eta oso berandu etxeratu naiz lanetik".

Biek esan digute ikasketak ez direla oztopo izan aisialdia aprobetxatzeko: "Asteburuetan lagunekin irteteko aprobetxatu dugu, baita asteko egun batzuk ere. Ikasi behar denean ikasi eta gainontzean libre", esan digute.

Pozik daude, eta egindako lanaren ordaina, behintzat, jaso dute.


**SARIA** Irene Santamariak eta Maitane Loiolak diploma eta diru saria jaso dituzte. I.A.

**INTERNET** > SUSTATU WEBLOGAREN 5. URTEURRENA

## Ed Freyfogle eta Iban Zalduaren hitzaldia, Sustaturen urteurrenean

Arrasateko Kultura Etxe berriko klaustroan ospatuko dute urteurrena Internet zaleek eta euskarazko eragileek

MAIDER ARREGI > ARRASATE
Abenduaren 13an, eguaztenean, Sustaturen urteurren jaia egingo da Arrasaten. Bertan izango dira, Ed Freyfogle Yahooko bilaketa arduraduna izana, eta Iban Zaldua, 2006. urteko Euskadi literatur sariduna. Ekitaldia Arrasateko Kultura Etxe berrian, Klaustroan, 18:30ean izango da.

Sustatu euskarazko lehen webloga izan zen, gaur egun boladan eta txanpinoiak bezala sarean ugaltzen ari diren blogen aitzindaria. Goiena Komunikazio Zerbitzuak eta Eibarko Code&Sintax enpresak izan ziren Sustaturen sortzaileak. Bosgarren urteurrena euskarazko hainbat eragilerekin eta baita Internet zaleekin ospatu nahi dute eta ospakizun ekitaldi batzuk zehaztuta dituzte. Noiz eta non izango den hitzaldia: abenduaren 13an, eguaztenez, Arrasateko Kultura Etxe berriko klaustroan. Bi hitzaldi antolatu dituzte, baina beste ekimen batzuk ere egin nahi dituzte. Sustatuzale guztiak gonbidatuta daude jaira. Baita abian jarri duten lehiaketan parte hartzera ere. Gainera, iPod bat ere lor dezakete jaira bertaratzen direnek.

**INTERNET ADITUA**
Ed Freyfogle ingeniari estatubatuarra da, eta Londresen bizi da. Interneteko Lokku konpainiaren fundatzailea da Javier Etxebeste euskaldunarekin batera.

Nolabait, Lokkuren oinarri teknikoa da Freyfogle, eta beren produktua, Nestoria, etxe-bilatzaile britainiarra, web 2.0 delako aplikazio multzo horretan Europan egin den saio sendoenetakoa.

**EUSKADI LITERATURA SARIA**
Iban Zaldua historia irakaslea eta idazlea da. Donostian jaio zen eta Gasteizen bizi da. 2006. urteko Euskadi Literatura saria. Teknofobiari ihes egiten dion intelektual gutxienetakoa. Interneten, Volgako Batelariak blogaren sortzailea da, beste lagun batzuekin batera.



## gure artekoak

**INDARSUN** > Energia berriztagarrien esparruan ibilbide motz baina eraginkorra izan du Indarsunek. Arrasaten hasi zuten ibilbide hori eta, gaur egun, 70 langileko enpresa da.

Asier Juanbeltz

# "Eguzki zentralen promozioa da gure zeregin nagusia"

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE

**Mankomunitatearen laguntzarekin zabaldu zituen Indarsunek ateak. Gaur egun, Donostian eta Bilbon ditu egoitza nagusiak. Asier Juanbeltz proiektuen arduradunarekin berba egin dugu.**



Asier Juanbeltz, proiektuen arduraduna, lankideekin. INDARSUN

**Noiz sortu zenuten enpresa?**

Orain dela lau urte, 2002an, sortu genuen, Arrasaten. Iaz, 2005ean, Donostiara eraman genuen egoitza zentrala eta beste egoitza bat ere badugu Bilbon. Gaur egun, guztira, 70 langilek dihardugu Indarsunen.

Egoitza horiez aparte, Espainiako Estatuan ere hainbat delegazio ditugu; baita Munichen (Alemania) ere. Momentu honetan, Italia, Portugal, Hego Amerika eta Ameriketako Estatu Batuetako merkatuetan sartzeko asmoa dugu.

**Zehazki, zer egiten duzue?**

Gure zeregin nagusia da multimegawatt eguzki zentralen promozioa. Instalazio fotovoltaikoak eta eguzki instalazio termikoak ere egiten ditugu. Tramitazio guztiak egiten ditugu eta instalazioa bukatu arterainoko lan guztiak geuk egiten ditugu. Geuk hartzen dugu proiektuen ardura osoa, bezeroak ez dezan ezer egin beharrik izan.

FITXA TEKNIKOA

**> DELEGAZIO UGARI**
Donostian eta Bilbon dituzte egoitza nagusiak. Estatuan ere hainbat delegazio dituzte, eta baita Alemanian ere.

**> EGOKIENA**
Eguzki indar termikoa da energia berriztagarrien artean egokiena, gure ingurunerako.

**> WEBGUNEA**
*www.indarsun.com.* Bezero asko iristen zaizkie webgunearen bitartez.

**Zelako bezeroak dituzue?**

Era guztietako bezeroak ditugu: enpresak, etxean instalazio fotovoltaiko edo termikoa ezarri nahi duten partikularrak... Ingurumena zainduz, daukan diruari errentagarritasuna atera nahi diote bezero gehienek.

**Energia berriztagarrien gainean asko berba egiten da; gizartea kontzientziatuta dago?**

Europako gainerako herrialdeetatik oso urrun gaude, baina pixkanaka bagoaz kontzientzia hartzen. Komunikabideek ere asko laguntzen dute.

## etxeko leihotik



**Eneko Azkarate** > GOIENKARIAko zuzendaria

# San Martzial, beste parke eder bat Bergaran

Bergarako San Martzial da bergarar askorendako herriko txoko politenetakoa. Ez dago bergararrik ezagutzen ez duenik. Baina, era berean, asko dira urtean behin bakarrik hurbiltzen direnak: uztaileko lehen domekako erromeriara. Bergaratik kanpo, ostera, gutxi dira ingurua ezagutzen dutenak, orain dela 15 urteko Kilometroetako zirkuituak zeharkatu zuen arren.

Bada, orain, Bergarako Udalak txukuntzen dihardu San Martzial. Urte osoan erabiltzeko moduko parke bihurtu nahi du, ez urtean behin bakarrik. Horretarako, 450 arbola autoktono landatuko dituzte eta kanpoko 100 bat kendu; ziburuak jarriko dituzte; eserlekuak ipiniko dituzte; anfibioendako askatxo bat egingo dute…

> "Herritar asko urtean behin bakarrik hurbiltzen dira San Martzialera"

Berri ona da, gainera, Udalak herriko Mendia Bizirik talde ekologistaren oniritziarekin landu izana egitasmoa eta 250.000 euroko aurrekontua Jaurlaritzak ordaindu izana oso-osorik. Orain kontua da erabiltzea eta zaintzea, San Martzialeko erromerian zaintzen duguna baino hobeto. Eta Debagoieneko beste herrietakoak ere etor daitezela paraje ederrarekin disfrutatzera. Baina neurrian gero e...

**> Aranzadi Ikastolari dagokio datorren urteko Kilometroak antolatzea. Ibilbide polita bai, baina aldapatsua izan zen 1991koa. Lauagoa, urbanoagoa, baina era berean ederra izango da datorren urtekoa.**

**> Parke eta lorategi asko ditu Bergarak. Batzuk zainduago beste batzuk baino. Arrizuriaga, Errotalde eta Errekalde erabilgarriago egiteko plana egin beharko luke Udalak, itxidurak kentzetik hasita.**

## begi-bistan



## Antzuolarren irteera (Zerain)
**2006/11/19**

**Argazkia:** Jose Mari Alberdi.
**Testua:** Aintzane Irizar.

Aurreko domekan, Arrola mendizale elkarteak antolatuta, 40 bat lagun joan ziren Zerainera, eta meategien ibilbidea egin zuten. Ume eta nagusi, denak gustura ibili ziren!

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Mikel Herzog**
MUSIKARIA

TVEk *Mision Eurovision* saioa abiaraziko du urtarrilean. Helburua izango da maiatzean egingo duten Eurovision lehiaketarako Espainiako ordezkariak aukeratzea. Aholkulari lanak egingo ditu Mikel Herzog abeslari bergararrak, Massielekin batera.



**Edu Muruamendiaraz**
KOREOGRAFOA

Glu-Glu ekoizpen etxeak oraingo astean aurkeztu du lan berria: *Ama, quiero ser lehendakari!* Antzerki lan horretan koreografiaz arduratu da Edu Muruamendiaraz dantzari eta koreografo bergararra. Oñatin eta Elgetan izango da emanaldi bana.



**Jorge Fernandez**
AURKEZLEA

Telebista kate guztiek dagoeneko prestatzen dihardute Gabon Zaharretako kanpaiak zuzenean emateko saio bereziak.

Hain zuzen, A3 kateko kanpaiak Jorge Fernandez aurkezle arrasatearrak aurkeztuko ditu, Monica Martinezekin batera.

Alderdi politikoen ordezkariei egingo diogu elkarrizketa datozen astetan, txandaka. Lehenengoa, Aralar alderdiko Oxel Erostabe elgetarrari egingo diogu. Arlderdi horretako zuzendaritzako kide da asteburutik. Horrez gain, Gipuzkoako antolaketa arduraduna eta Elgetako zinegotzia ere bada. Hauteskundeei begira ere hasita dago lanean.

**Oxel Erostarbe** > Aralar

# "EAJ eta EA gobernutik kentzea da ibarrean ezkerreko alderdion erronka"

OIHANA ELORTZA > ELGETA

**Neurri baten, hainbatek politika gutxietsi egiten dutela ulertzen du Oxel Erostarbek (Elgeta, 1979), eta uste du politikan dabiltzan gazteek horri buelta emateko egin behar dutela lan. Etorkizunak ezkerreko alderdien elkarlana ekarriko duela uste du, eta horretarako prestatzen hasi behar dutela.**



Aralarreko zuzendaritzako kide da Oxel Erostarbe. O.E.

EZKER BERRIA

**"Etorkizunak ekarriko du ezkerreko alderdiok batzea eta prestatzen hasi behar gara"**

KOALIZIOAK

**"Batasunarekin, EBrekin edo Zutikekin joan daiteke Aralar, autonomia du herrietan"**

EGOERA

**"Gobernuak eta ETAk bakeaz hitz egin behar dute, alderdiok normalizazioaz"**

**Ze bide zehaztu ditu Aralarrek datozen bi urteetarako III. Biltzar Nagusian?**

Aralarrek Euskal Herria ezkerretik ikusten duela eta ezker berria gura duela esan zuen bitzar nagusi horretan. Eztabaida egon da, eztabaida sano eta sakona. Jakinekoa da Aralarren barruan beste ildo bat ere badagoela, eta eztabaida egon da, bai, baina horrek ez du esan gura alderdian krisirik dagoenik edo horrelakorik. Aberasgarria izan da oso eta indartuta atera da Aralar asteburuko batzarretik.

**Eta zer ezker berri gura du egin Aralarrek?**

Euskal Herria ezkerretik bideratu gura duela esaten dugunean da: Euskal Herriak eskubidea duela gura duena erabakitzeko, indarrak batu behar ditugula erabaki eskubideen alde, eta ezkerreko alderdiok politika eraginkorra egin behar dugula erakundeetan. Eta ezkerra berritu diogunean: ezkerra berregituratu egin behar dugula, txikituta dago-eta. Horretarako, batzen gaituenaren alde egin behar dugu, errespetutik, abangoardia barik, erkundeetan eragingo duen ezkerra gura dugu, eraldatzilea. Aro berriak ekarriko du ezker subirano eta zibila indartzea eta horretarako gertatzen hasi behar dugu.

**Zer ikasi duzue orain arte?**

Alderdi gaztea gara oraindik, baina eragiteko gogoa dugu eta horretarako ahalmena eta aukera ere badugula erakutsi dugu udaletan, Batzar Nagusietan eta Legebiltzarrean.

**Indarkeria izan zen Aralar sortzeko arrazoia. Bakeak ekarriko du alderdi ezkertiarrak eta abertzaleak batzea?**

Indarkeriaren gaineko balorazio politiko ezberdina egiten dugu Aralarrek eta Batasunak, baina barne demokrazia eta abangoardia ere baziren Aralar sortzeko arrazoiak. Bestetik, ni Aralarren egoteko arrazoi nagusienetako bat da erakundeetan ezker abertzaleak zuen jarrera ez zetorrela bat nire ideiekin. Erakundeetan, eragiteko egon behar da, eta hori falta zen. Hala ere, aro berriak eskatzen digu ezkerreko alderdiok elkarlanean jardutea, proposamenak egitea egun dugunari alternatiba emateko. Batasunarekin, Zutik-ekin edo EBrekin beste ezker berria osatzea helduko gara.

**Zer esan gura du ibarreko bi egoteak zuen zuzendaritzan?**

Debagoienean Aralarrek dezenteko babesa duela. Bestalde, lege kanporatzeak egoera guztiz desitxuratua erakusten digun arren, gure ibarra ezkertiarra da. Hauteskundeen ostean ezkerrak behar duen lekua izatea espero dut.

**Maiatzeko hauteskundeetan, Debagoieneko herri guztietan aurkeztuko da Aralar?**

Ezkerreko alderdiok Debagoienerako dugun erronka nagusia da EAJ eta EA oposiziora bidaltzea; udaletan eta Mankomunitateko gobernuan ez egotea, handik kentzea. Denon helburua izango da udaletan sartzea, baina erronka da lehen esandakoa. Oraintxe hasiko gara hauteskundeei begira herriz herri egingo duguna lantzen.

**Elkartu egingo zarete ezkerreko alderdiok maiatzerako?**

Aralarren estatutuek diote herri bakoitzak duela autonomia guztia herrirako proposamena egiteko. Horregatik, hainbat herritan aukera batzuk egon daitezke eta bestelakoak beste batzuetan. Tokian tokiko errealitateari erantzuten jakin behar dugu alderdiok eta Aralarrek hori oso argi dauka.

**Koalizioa posible da EBrekin ez ezik beste alderdiekin ere?**

Eguneko politika ezkerretik egiteko, badaude gauza batzuk Aralar, Batasuna, Ezker Batua eta Zutik batzen gaituztenak, eta hor badago leku bat, bakoitzak bere izaerari eutsiz, akordio batzuk egiteko. Lizarrako akordioan, abertzaleok txalotu egin genuen EB egotea eta zentzu horretan ez ditut ulertzen EBrekin egindako koalizioari egiten dizkioten kritikak. Hilaren hasieran onartu zen militantziaren %97ko babesarekin, hiriburuetan eta Batzar Nagusietan joatea EBrekin. Herrietan zer egingo dugun oraindik ez dakigu. Posible da EBrekin joatea edo Zutikekin. Baita Batasunarekin ere, zergatik ez? Guztion erronka bada EAJ eta EA gobernutik kentzea, zergatik ez gara elkartuko?

**Nola ikusten duzu egun bizi dugun egoera?**

Zapaterori dagokio keinu bat egitea, eta keinu horrek izan behar du kartzela politikari begiratuta, publikoa eta epe motzekoa. Gobernuak eta ETAk bakeaz bakarrik egin behar dute berba, eta hor sartzen dira hiru puntu: armekin zer egingo duten, biktimak aintzat hartzea eta presoak. Ezin da preso politikorik egon prozesua amaitzean. Normalizazio prozesuan alderdioi dagokigu protagonismoa hartzea eta gizarteko eragileekin normalizazioa burutzea. Mahaiari buruz, gure zalantza da ea mahai bakarraren baldintzak ez ote duen mahairik ez egotea eragingo.

plazara

Arrasaten eraikitzeko asmoa duten merkataritzagune erraldoiari buruz dihardu Ander Rodriguez Arrasateko Udaleko Ezker Batuko zinegotziak. Horren harira, Udalean aurki hartu beharko den erabakiak gizartean eta herrian bertan eragingo lituzkeen aldaketak aipatzen ditu. Denondako egokia izan daitekeen hiri ereduaren eraikuntza du berbetarako gai artikulu honetan.

**Ander Rodriguez Lejartza ***

# Gure hiria guk egin dezagun

Denbora gutxian erabaki benetan garrantzitsua hartu beharko du Arrasateko Udalak, seguru aski legealdi honetan hartu beharko den erabakirik garrantzitsuena. Zabaleta inguruan (Eroski ondoan) merkataritzagune erraldoi bat jartzeko eta sustatzeko proiektua.

Merkataritzaguneak aipatzen direnean, berehala etortzen zaigu burura dendari txikiek duten etorkizun latza, baina pentsa dezagun momentu batez hiri eredu honek (oinarrian honetaz ari gara) ekarriko dituen gainerako ondorioak.

Horrelako erabaki batek gure gizartea guztiz aldatzea ekarriko luke. Gure elkarbizitzarako espazio pribatuen protagonismoa ekarriko du, espazio publikoen kalterako, gizartearen bazterkeria jasateko arriskua izango du; zer egingo du auto propiorik ez daukan pertsonak gune komertzial honetara joateko?

**HIRIGUNEEN DISEINUA**

Hiriaren esanahia banakoen eta taldeen erlazioa da eta hau bakarrik espazio publikoetan adieraz daiteke. Jordi Borja hirigilearen hitzetan, “hiriguneen dinamika pribatizatzaileak hiria herritarrarentzako eremu bezala ikusteko modua ahultzen du”.

Proposatzen diguten eredua hiri sostengarriaren etsaia da.

Honelako guneek kultura amerikarraren baloreak indartzen dituzte, *utopia burgesa* dei diezaiokegu.

Hirigintza sustatzaileen eta banaketa kate handien ikuspuntua islatzen du, herritarrei bizimodu berria inposatuz. Alde batera utziz gure hiriaren diseinua herritarrei eta bere erlazioei begira.

Atzera bueltarik izango ez duen erabakia da, gure etorkizuna hipotekatuko duena, bere eraginak urteetan sumatuko ditugu.

Arduragabekeria hutsa da horrelako proiektua Arrasateko Udalak aurrera eramatea eta Arrasateko alkateak sustatzea.

**ZINEGOTZIEN ARDURA**

Hau guztia galaraztea, tamalez, Arrasateko zinegotzien esku dago bakarrik. Batzuetan, zinegotzi asko gure etorkizunarekin jolasean dabilela ematen du, bere erabakiek zein ondorio duten pentsatzen gelditu gabe.



MIKEL ARROIABE

**"Atzera bueltarik izango ez duen erabakia da, gure etorkizuna hipotekatuko duena"**

**"Arrasateko alkatea ez da hori egiteko kapaz, baina zuek oraindik denboraz zabiltzate erabakia geldiarazteko"**

Zinegotzi jaunak, zuen kabuz pentsa ezazue behingoz, gobernuan edo oposizioan egon, hausnarketa sakona egin erabakiak hartu baino lehen.

Badakigu Arrasateko alkatea ez dela hori egiteko kapaz, baina zuek oraindik denboraz zabiltzate horrelako erabakia geldiarazteko.

**EUROPAN GAINDITUTAKO EREDUA**

Europa mailan gune komertzial handietan oinarritutako eredua guztiz gaindituta dago jadanik. Arrasaten akats berbera egingo dugu?

Jacques Chirac-ek ondo baino hobeto islatu zuen: “Frantzian banaketa handiak akats izugarriak egin ditu. Gure beharrei, gure kulturari erabat moldatzen ez zaien hirigintza eredua eraiki du eta bizkortu eta garatu du kontrolik gabeko banaketa sistema; ondorio ikaragarriena gure herrien auzoen basamortutzea da. Eta gure nazioaren herri guztien, gure gizartearen ehundura eta kultura sakona, basamortutzea”.

Berriro ere, oinarrian dagoen eztabaidarekin bukatuko du. Denok bizitzeko hiriaren eredua nork erabaki behar du? Erabakia hirigintza sustatzaileen esku egon behar da edo herritarrek erabaki behar dute hiriaren eredua zein izango den? Nik badaukat erantzuna, eta zuek?

*Ezker Batuako zinegotzia Arrasateko Udalean

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Uraren kontsumoa zaintzen duzu?

| | |
|---|---|
| BAI | %70 |
| EZ | %30 |

**> UR FALTA SUMATU EZ**
Ez, apenas. Beharbada ur falta ez dudalako sumatzen izango da. Hortzak garbitzerakoan txorrota zabalik lagatzen dutenetakoa naiz.?
**Maria**

**> GIMNASIOAN**
Etxean bat ere ez. Gimnasiora noanean gehiago, automatikoak dira dutxak eta xaboia ematerakoan ez dut botoia zanpatzen.
**Eli**

**> TASA FAMATUAK**
Gero eta gehiago. Hainbeste sentsibilizazio kanpainarekin, errudun sentitzen naiz txorrota denbora luzez zabalik ikusiz gero.Tasa famatu hau ipintzen badute jendea hasiko da gehiago zaintzen.
**Estitxu**

**> URKULUKO MAILA**
Bai. Batez ere entzuten dudanean Urkuluko ur mailak behera egin duela. Ur asko alperrik galtzen dugu eta neurriak hartu behar dira.
**Jon**

**DATORREN ASTEKOA: Zelula amak erabiltzearen alde zaude?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

## Behin bada ere

**Xabier Mendiguren Elizegi**
www.eibar.org/blogak/mendiguren

Gaur futbolaz hitz egingo dizuet. Joan den larunbatean, Hernaniko errugbi elkartean babarrunak jaten ari ginela, aurrez aurre neukanak kontatu zigun bere koinatuari gertatu zaiona. Nonbait, Gipuzkoako zenbait komunikabidetan erruz aipatu den kontua, niretzat ezezaguna.

Nire mahaikidearen koinatuak taberna bat dauka, Donostiako Antigua auzoan. Erabaki du oporretara joatea, udazkenean. Ordurako futbol-denboraldia hasita, eta Reala partidu bakar bat ere irabazi ezinda. Tabernariak, "Oporretara goaz" idatzi ordez, bestelako ohar bat jartzea pentsatu du, ostatuko atea modu biziagoz jantzi eta bezeroak agurtzeko: "Ez dugu taberna irekiko, Realak bi partidu irabazi arte".

Gutxi gorabehera oporretan eman nahi zuten aldiarekin bat egin beharko zukeen txuri-urdinen garaipen pareak. Nahi bai ordea. Itzuli dira oporretatik, eta Reala partidurik irabazi gabe ligan (kopan bat, eta hura alferrik). Donostiako futbol zale guztiak estu eta larri, eta gure tabernaria are larriago, ekipoaren martxa kaxkarraz gain bere negozioarenaz ere kezkatuta. Bien bitartean, opor behartuen kontua gero eta ezagunago eta famatuago Realzaleen artean.

Azkenean amore eman omen du tabernari gaixoak, esanez hipoteka ere ordaindu behar duela, eta ezin utziko duela taberna bankuaren eskuetan hamaika futbolari ezgauzaren erruz. Senide publizista bat omen du tabernariak, harri eta zur geratu dena: "Bizitza osoa propaganda modu merke eta originala bilatu nahian, eta anaia tabernariak asmatu behar".

koplak

**Irati Agirreazaldegi**

## Gabonak, bere sasoian onak

Jarri ezkero etxean lasai
telebistari begira.
Turroi, jostailu ta koloniak;
Gabonak gainean dira.

Hilabete bat falta den arren
gaurtik Gabon gauerako.
Gogoratuko digun doinurik
kalean ez da faltako..

Apaingarriak, iragarkiak,
hilabete bat lehenago.
Heldu aurretik nazkatu baietz
lagun bat baino gehiago.

Argiak diz-diz kalean eta
apain eskaparateak.
"Erosi zazu" heltzen zaizkigu
nonahitikan atakeak.

"Amatxo, nahi dut, Game boy-a edo
hitz egiten dun panpina".
Kontsumoaren zakura doa
Gabonetako propina.

Aurreratuta datoz denboran
Urtero legez Gabonak.
Bere sasoian bizi ezean,
ez dira hain festa onak.

# Eskerrik asko, Moha

**Mikel Errasti**
Aretxabaleta

Orain dela gutxi, saharar herriaren bilakaeraren eta gaurko egoeraren berri emateko, hitzaldia egon zen Arrasateko Monterron kultura etxean. Horrenbeste urtetan bere eskubide politikoen alde, sektakeria barik, borrokatutako herri honen testigantza emateko, zu, Moha, egon zinen hizketan.

Saharar herriak oso egoera latza bizi du, non Marokorekin gudatea berpiztea ia gelditzen zaien bide bakartzat ikusten duten. Nahiz eta egoera honek bakarrik luze eta zabal idazteko aukera eman, gutun hau idazterakoan beste bat izan da nire asmoa. Nire asmoa da saharar herriak dauzkan giza balioak azaleratzea.

Bertakoek, hemen hein handi batean galduta dagoen errespetua adierazten die beraien guraso eta nagusiei (hemen honezkero semealabek gurasoak jotzen dituztela entzuten hasia nago). Emakumeek bizitza politikoan kargurik dauzkaten ala ez, ez dakit. Kanpamenduetako bizitzaren pisua eta errekonozimendua dauzkate eta bertako antolakuntzan ahotsa dira. Emakumeek paira dezaketen tratu txarra ez da onartzen eta gizon bat horrela harrapatuz gero, kanpamendutik botatzen dute (kontuan hartuta sahararrek familiaren inguruan daukaten lotura, askoz gogorragoa da pertsona batentzat).

Eta umeak ume dira. Bizitza gogorrak aukera larregi eman ez eta batzuek 5 urterekin etxeko zereginen ardura beren gain hartu beharko dute. Baina bien bitartean, ume izaten jarraitzen dute. Han, hori bai, ez daukate ez Play Station-ik ez halakorik. Han, hemengoek gutxi dutena dute: imajinazioa eta sormena.

Ondoren, ume eta helduen artean dauden gazte askok atzerrira jotzen dute ikasketak egitera. Ikasle hauek beraien herrian aurkitu ezindako baldintzengatik jotzen dute kanpora. Baina helburuak oso garbi dauzkate. Atzerrian ikasketak bukatu eta beraien herriari laguntzeko bueltatzen dira. Ahal den neurrian, ikasitakoa egunerokotasunean erabiltzeko. Nahiko sinbiosi aberatsa lortu dutela dirudi. Alde batetik, kanpamenduetan jendea saharar arropekin jantzita ikus daiteke eta, bestetik, injinerutza edo mediku ikasketak Kuban eginda.

Eta, bukatzeko, kanpotarrekiko arabiar herrietan bete beharreko harrera kultura. Beraiek jatekoa urria izan eta hemendik doanari okela eskain diezaiokete (okela ospakizun berezietan bakarrik jaten dute) eta etxea parez pare zabaltzen diote kanpotarrari. Hau guztia entzunda, haserretu egiten nau arabiarrengandik heltzen zaizkigun berri guztiak txarrak direla ikusteak. Ustez, hain modernoa eta liberala den Europa honetan, asko ikasi dezakegu saharar herriari begiratuta.

Bukatzeko, esan nahi dut europarrak aberatsak garela ondasun materialetan, baina giza baloreei dagokienez, gu garela betetako txiroak.

Post-data: Mohak urte batzuk Oñatin daramatzan arren, euskaraz ez daki; beraz, bihotzez eskertuko nuke norbaitek testu hau itzuliko balio. Sucran Moha.

# Tantaka, Tantaka, presoen eskubideak gauzatu arte...

**Fernando Albeniz** (Jorratzenen izenean) > Bergara

Jorratzen, Guadianaren antzera, agertu eta desagertu egiten dela dirudi. Une honetan, gure hondar aletxoa ekarri nahi dizuegu, datorren astelehenean, azaroak 27, udaleko batzar nagusian, presoen eskubideen errespetua aldarrikatzeko eta bermatzeko aurkeztuko den mozioa aurrera atera dadin gure babesa agertuz.

Mozio hori Ibaetako foroaren manifestuan oinarritua dago eta sindikatu, kirol elkarte, gizarte talde, elkarte kultural, eta abarrek sinatua dago.

Horregatik, eta duintasun errespetuaren aldeko ekintza bat denez, gure babesa eman nahi diogu mozio honi eta bertan egongo gera gure oniritzia adierazteko. Honegatik guztiagatik, gure gonbidapena luzatzen diogu herriko elkarte eta herritar orori berdin egin dezaten, baita ere aurrerantzean gai honen inguruan egingo diren beste adierazpen ekitaldietan beraien babesa eman dezaten. Guztion artean, eta berandu baino lehen, presoen eskubide guztiak errespetatzea lortu dezagun.

# Talleres Anzuola, kaleratze gehiago ez!

**Pedro Iturbe** (Talleres Anzuolako langile ohi eta langileen izenean)
Antzuola

Azken urteak ez dira oso atseginak izan Talleres Anzuola SLko langileentzat. Antzuolako tailer zaharra utzi eta Bergarara joateko pausua eman zenetik, egunetik egunera egoerak okerrera egin du nabarmen: langileekiko erabateko errespetu falta, era guztietako presioak, langileengan nola halako arazo fisiko zein psikologikoak eraginez. Hau guztiau gutxi balitz bezala, enpresako arduradunek oraindik urrutirago doazen erabakiak hartu dituzte: duela lau hilabete, lan gutxi zegoela aitzakia hartuta, 37 urteko antzinatasuna zuen 52 urteko langilea kaleratua izan zen, hori bai, inongo aurre abisurik gabe eta omen, langilearentzat psikologikoki hoberen zen erara (beraiek esana!). Eskerrak! Inork espero ez zuen erabakia hartu zuten, langileekin beste irtenbide posiblerik hartu beharrean, erregulazioak, lan ordu murrizketak, eta abar.

Tailerrak hau guztiau eta gero, zentzuzko edozein pertsonak egingo lukeenaren kontra, bertan oraindik gelditzen ziren 3 langileei ez zien inongo esplikaziorik edo komunikaziorik helarazi. Azaroaren 13 arte, antsietateak jota dagoen 46 urteko eta 28 urteko antzinatasuna duen langilea baja partea entregatzera doanera arte. Batbatean kaleratzeko paperak bertan dituela eta sinatzeko eskakizuna egiten diote. Itxuran, azken lau hilabeteetan, bereganako konfiantza falta bat sortu denaren arrazoiaz, tailerreko erabakiak hartzerako orduan arazoak argudiatuz (gogoratu behar da bi kaleratuak emakumeak direla).

Berriz ere funtsik gabeko eskusak jarriaz, berriz ere, langileak eta pertsonak txakurrak baino okerrago tratatuaz, limosnatxoa (zuen limosnatxoei buruz gezurrik ez esatea ere, eskertuko genuke, bestela oraindik ordaintzeko falta dena ordaindu!) eman eta langabeziarako atea irekiz, arrazoi faltsuak argudiatuz.

Noiz hartu dituzte Talleres Anzuola SLko langileek erabakiak, edo noiz hartu dituzue langileak kontuan, erabaki bat hartzeko orduan? Noiz arduratu zarete langileez? Benetan, zergatik bota dituzue erabil daitekeen era bortitz eta mespretxagarrienean? Zergatik eragin diezue langileei presio psikologikoa? Lanera joatearen beldurrez iristera arte? Ez al da bi langile hauekiko pertsekuzio garbi bat? Traba egiten zuten tailerrean? 28 urteko konfiantzak ez al du ezertarako balio? Eta horregatik sartzen al duzue beste pertsona bat lan horretarako?

Espero dugu gutun honek zuen barrena eta kontzientziak mugiaraztea, baldin baduzue, eta bertan gelditu diren bi langileekiko jarreran, aldaketa handi bat egotea (hobera baina), eta eskatzen dugu Lurdes, orain arte Talleres Anzuola SLko langile izandakoa, tailerrean berronartzea. Hanka sartu duzuela onartzea, kaleratzea legez kontrakoa edo bidegabea izan dela esan baduzue ere, kaleratze baliogabea izan dela onartzea. Horrela ez bada, jakin ezazue, aurreko kaleratzean bezala Antzuolako herriak bere iritzia eman duela, eta langileei erabateko elkartasuna helarazi diela. Jakin ezazue lotsagabekeria hauen aurrean ez garela isilik geratuko eta animatzen ditugu Antzuolako herri, langile zein sindikatuak egoera hauei aurre egitera.

Langileekin ez da jolasten, Lurdes Lanera!

# Euskal Herriak autodeterminazioa

**Maite Ilarduia**
(Ezker Abertzaleko kidea)
Bergara

Euskal Herria, 7 lurraldez osaturiko herria: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Beherea, Nafarroa Garaia eta Zuberoa. Autodeterminazioa: Lurralde zehatz bateko herritarrei zer egitura politiko mota nahi duten galdetzea eta horren erabakia nazioarteko komunitateak onartzea.

Autodeterminazio eskubidea ez da, berez, aukera jakin bat lortzea (autonomia, federalismoa, independentzia…), aukera horien artean hautatzeko eskubidea edukitzea baizik.

Galdeketa erreferendum baten bidez egiten da, eta beti inplikatu behar du estatu independente bat osatzeko aukera dagoela, historiak erakusten duen bezala.

Prozesu demokratikoa abian jarri zenetik 7 hilabetera, hauek dira azpimarratu beharreko alde positiboak:

- Prozesuak euskal herritarren babes osoa jaso du. Gatazka gainditu eta konponbide demokratikoa lortzeko nahia sustraiturik dago herrian.
- Eztabaida politikoak Euskal Herria osoa ukitu du. Eragile politiko, sindikal eta sozial ezberdinek negoziaketa politikoaren beharra azpimarratzen dute.
- Gatazka behin betikoz konpontzeko funtsezkoa dena: negoziaketan askatu beharreko korapiloak, autodeterminazioa eta lurraldetasuna, inoiz baino nabarmenago ageri dira eztabaida politikoan.

Halere, prozesua blokeo egoeran dago orain PSOE, Ezker Abertzalearen ahultze eta baldintzatzea bilatzen duelako eta prozesuaren ezaugarritzea borrokan dagoelako. Zeregin honetan PNV izan du bidai lagun.

Baina egoera hau gainditu eta aurrera egin beharra dugu. Aurrera nola? Euskal herritarren hitza eta erabakia aitortu eta errespetatzea da konponbidearen ardatza. Eta, ondorioz, honi erantzungo dion prozesua behar dugu.

Ezker Abertzaleak, beraz, Euskal Herriaren nazio aitortza, autodeterminazioa eta lurraldetasuna ardatz eta helburu izango dituen prozesuaren alde egingo du.

Eta, beraz, zabaldutako aukera historikoari indartsu heltzeko, irtenbide faltsuei aurre egiteko eta herri borondateari bidea zabaltzeko, Euskal Herriak Autodeterminazioa dinamika herritarra martxan jartzea erabaki dugu.

Herriz herri, auzoz auzo, Euskal Herri osoan konponbide demokratikoa bultzatuko duen dinamika erraldoia osatzea da gure xedea. Euskal Herriak Autodeterminazioa behar duelako, hori zor eta aitortu behar zaigulako, txoko eta bazter orotan aldarrikapen hori garatzeak lehentasun osoa hartzen du.

Euskal Herriak Autodeterminazioa dinamikaren baitan antolatzen diren ekimenetan parte hartzera deia egiten dizuegu. Ez dugulako esku gurutzaturik geratu nahi, jar gaitezen lanean, orain, guztiok, batera, gatazkaren konponbidea oinarri sendoen gainean eraikitzea gu guztion ardura delako.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 01**

**Faxa:**
**943 25 05 13**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**



NON JARRIKO DUT NIRE ETXEAREN LEHEN HARRIA?

HEMEN

**kutxa**ko Etxebizitza Kontuan

Zuretzat asmatutako kontua: bera duzu zure etxearen lehen harria.

Zure neurrira egina: zuk erabakitzen duzu noiz eta zenbat aurreztu. Errentagarritasun handia. Erabateko erabilgarritasuna. Komisiorik gabe. Gure Etxebizitza Zerbitzuaren laguntza osoarekin. Eta onura fiskalik handienarekin: kontua abenduaren 31 baino lehen irekiz gero, zergarinketa ahal izango duzu egin zure hurrengo Errenta-Aitorpenean.

Informa zaitez dituen abantaila guztiez zure **kutxa** bulegoan, edo, nahiago baduzu, www.kutxa.net-en. Eta jar egiozu lehen harria zure etxeari.

Gainera, 06/11/20tik 06/12/31ra bitarte egindako irekieretan, baldin hasierako sarrera 3.000 eurotik gorakoa bada, MP4 bikain bat eramango duzu opari.

ETXEBIZITZA-ZERBITZUA
Etengabeko laguntza. Hasi eta buka.

www.kutxa.net

kutxa
zer nahi duzu bihar?



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-alde.com

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Astelehenetan itxita**



## Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

**Txinatar jatetxea**

**Eskaintza**
- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

**Eguneko menua eta karta**



## Gure Ametsa

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

**Astelehenetan itxita**



## Taberna-Berri

Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

**Eskaintza**
- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

**Berezitasunak**
- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada

# *Jatetxe Gida*





## Tartufo

San Juan auzoa / BERGARA
943 76 35 51

**Eskaintza**
- Familiako bazkariak
- Kintadak dantzaldiarekin
- Eguneko menua eta karta berezia
- Aparkaleku ezin hobea
- Bi jangela: 100 eta 55 pertsonendako

**Berezitasunak**
- Arrainetan aukera zabala
- Oreina eta txuleta txingarretan erreta

**Egunero zabalik 5:30etatik aurrera**



## Torrekua

Ibargarai 37 / BERGARA
943 76 50 99

**Eskaintza**
- Eguneroko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

**Berezitasunak**
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak




## Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

**Berezitasunak**
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

**Egunero zabalik**



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

**Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandeetan itxita**

**Arrasate** > 18-23 **Bergara** > 24-29 **Aretxabaleta** > 31-33 **Eskoriatza** > 34-35
**Antzuola** > 36 **Elgeta** > 37 **Aramaio** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39





**> ARRASATE**
Santamas jaiak baino lehen zabalduko dute Garibai **> 18**






**> BERGARRA**
Amodiozko gutunen lehiaketaren XV. ekitaldia abiarazi du Jardunek **> 26**





**> ARETXABALETA**
Ikusgai dago tranbiaren proiektua, osoko bilkuren aretoan **> 31**





**> ESKORIATZA**
Juan Karlos Bengoa alkatea GOITBko 'Debarri' saioan **> 34**


**BERGARA** > SAN MARTZIALEKO PARKEA

# Aisialdia eta biodibertsitatea uztartu dituzte San Martzialgo proiektuan

Mahaien eremuan 21 zuhaitz botako dituzte beste horrenbeste landatzeko

Lan guztiak batera egingo dituzte eta urtea bukatu baino lehen amaituko dituzte



**ITURRIA** Iñaki Irizar biologoa (Mendia Bizirik), San Martzialen jarri duten askadun harrizko iturriaren ondoan. O.E.

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

San Martzial guneko basoak, landaretza eta fauna berreskuratu egingo ditu Udalak, Mendia Bizirik taldearekin batera egin duen proiektuarekin. Horrez gain, beste obra batzuk ere egingo ditu, hala nola: aparkalekuak eta haur jolasak jarri, kantinako teilatua konpondu, dantzalekuaren inguruan harmaila antzerakoak egin eta bidean eserlekuak jarri. 250.000 euroko dirulaguntza jaso du Udalak proiektu hori egiteko, eta horixe da lan guztien aurrekontua. Hor sartzen da, baita ere, herriko *gerriko berdea* deritzon proiektuaren lan teknikoa ere.

**BIODIBERTSITATEAREN ALDE**

Proiektuak bi alde ditu: 2005ean Udalak San Martzial berriztatzeko zuen asmoa, batetik, eta biodibertsitatearen arloa, bestetik. Igor Oiarbide Ingurumen zinegotziak azaldu duenez, "asmoa da herritarrek urte guztian aprobetxatzea San Martzialgo eremua, ez soilik urtean egun baten bakarrik. Horregatik, proiektu bat egin zuen Udalak. Jaurlaritzaren dirulaguntza jasotzeko baldintza zen biodibertsitatearen alde lan egitea, eta Mendia Bizirik taldearekin batera landu dugu arlo hori. Azken finean, Udalak eta elkarte horrek elkarrekin egindako proiektua da aurkeztu dugun hori".

Mendia Bizirik taldeak pozik hartu zuen Udalak biodibertsitatea zaintzeko hartutako konpromisoa. "Horrelako kasuetarako Jaurlaritzak duen araudia eta joan den urtean Agenda 21 planaren barruan iraunkortasunaren alde egindako txostenean oinarrituta egin dugu proiektua", dio Iñaki Irizarrek, Mendia Bizirik taldeko kideak.

**ITURRIA MAHAIEN ARTEAN**

Hainbat gauza berri egingo dituzte San Martzialen. Besteak beste, mahaien artean askadun iturria egin dute. Ura edateko iturria bakarrik egin ordez, anfibioen bizitoki izango den aska ere egin dute. Horrez gain: Askatzuko aldapa bukatzen den tokian sei auto ingururendako aparkalekua eta umeendako jolasak egiteko lanak hasi dituzte; kantinaren teilatua konpondu egingo dute; apurtuta dauden mahai batzuk kendu eta 12 mahai berri jarriko dituzte; baselizaren aurrean dauden zaborrontziak gordetzeko etxetxo bat egingo dute; bidean zehar eserlekuak jarriko dituzte; dantzalekuaren inguruan harmaila antzekoak egingo dituzte eta San Martzialgo balio naturalak eta kulturalak azaltzen dituzten panelak ere ipiniko dituzte.

**BERTAKO ZUHAITZAK LANDATU**

Lan horiez gain, zuhaitzak eta landareak kentzen eta berriak jartzen ere egingo dute lan. Iñaki Irizar Mendia Bizirik taldeko kideak azaldu duenez, "100 bat kanpoko zuhaitz kenduko ditugu eta 450 berri sartuko ditugu, denak bertakoak. Horrez gain, Askatzuko maldako basoa berreskuratu egingo dugu. Kanpoko landare exotiko eta erasotzaileak kendu egingo ditugu, hemengoak landatzeko".

Kenduko dituzten zuhaitzetako batzuk mahaiak dauden eremukoak dira. "Hor dauden 34 platanondoetatik 21 kenduko ditugu. Gorriz markatuta daude. Mintegietatik ekarriko ditugu zuhaitz berriak eta mintegiko altuenak ekarriko ditugu, ahalik eta azkarren egiteko gerizpea. Hurrengo San Martzial egunean nabarituko da aldaketa, baina mahai gehienak gerizpean egongo dira", dio. Lan guztiak batera egingo dituzte eta urtea bukatu baino lehen amaituko dituzte.

DATUA

**450**

**ZUHAITZ**

San Martzial eremuan 450 zuhaitz landatuko dituzte guztira. Gehienak haritzak eta gaztainondoak dira, baina baita gorostiak, hurritzak, gereziondoak eta arteak ere. 100 inguru kenduko dituzte.

EGINGO DITUZTEN LAN BATZUK



**Zuhaitzak**

San Martzialgo mahaiak dauden eremuan 21 zuhaitz kenduko dituzte. Pintura gorriz daude markatuta botako dituzten zuhaitzak. Azaroan botako dituzte Udaleko langileek. Eta berriak lanak egingo dituen enpresak landatuko ditu abenduan.



**Hesia**

Kantina azpialdean dagoen maldan harrizko hesi borobil bat egin dute, inor ez dadin horko amildegira erori eta min hartu. Egurrezkoa egitea pentsatu zuten, baina harrizkoak segurtasun handiagoa ematen du. Egitura aproposa da landare batzuendako.



**Aparkalekuak eta ziburuak**

Askatzuko aldapa jaitsi eta bertan dozena erdi auto ingururendako aparkalekua eta ziburuak egingo dituzte. Lanak hasita daude. Askatzuko maldan, berriz, jatorrizko basoa berreskuratuko dute: landare exotikoak kendu eta bertakoak landatuko dituzte.

# zerbitzuak

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 25 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Domeka, 26 | Español | Araba 14 | 943 79 18 65 |
| Astelehena, 27 | Ruiz | Maala 31 | 943 79 14 09 |
| Martitzena, 28 | Zabola | Zarugalde 42-44 | 943 77 16 30 |
| Eguaztena, 29 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Eguena, 30 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Egubakoitza, 1 | Corcuera | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 25 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Domeka, 26 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Astelehena, 27 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Martitzena, 28 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Eguaztena, 29 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Eguena, 30 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Egubakoitza, 1 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 25 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Domeka, 26 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Astelehena, 27 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Martitzena, 28 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 29 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Eguena, 30 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Egubakoitza, 1 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 25 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 26 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 27 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 28 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 29 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 30 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 1 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |

## TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)........943 46 11 11
DYA (Antzuola)........943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)........943 76 55 76
Suhiltzaileak........943 78 28 00
Ertzaintza........943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala........943 03 53 00
- Antzuola........943 76 62 23
- Aramaio........945 44 53 40
- Aretxabaleta........943 71 19 59
- Bergara........943 03 54 00
- Elgeta........943 03 54 00
- Eskoriatza........943 71 44 52
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola........943 76 62 46
- Arrasate........943 79 14 39
- Aretxabaleta........943 71 18 63
- Bergara........943 77 91 06
- Eskoriatza........943 71 44 07
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA........902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate........943 79 12 22
- Aramaio........945 44 50 33
- Aretxabaleta........943 77 12 64
- Bergara........943 79 12 22
- Eskoriatza........943 71 40 59
- Oñati........943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea........943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)........943 78 15 12
Nekazaritza ganbera........943 76 10 15
Zerga Bulegoa........943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate........943 77 11 43
- Bergara........943 76 44 42
- Oñati........943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio........945 44 53 35
- Arrasate........943 77 16 77
- Aretxabaleta........943 71 26 28
- Bergara........943 76 56 41
- Elgeta........943 76 82 84
- Eskoriatza........943 71 53 28
- Oñati........943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola........943 76 60 65
- Aramaio........945 44 53 74
- Arrasate........943 77 01 05
- Aretxabaleta........943 71 10 27
- Bergara........943 77 91 58
- Eskoriatza........943 71 46 88
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 03 53

Udalak
- Antzuola........943 76 62 46
- Aramaio........945 44 50 16
- Arrasate........943 79 09 00
- Aretxabaleta........943 71 18 62
- Bergara........943 77 91 00
- Elgeta........943 76 80 22
- Eskoriatza........943 71 44 07
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 04 11

## URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

# eguraldia

## DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 25**
Egubakoitzeko tankera berdintsua izango du eguraldiak. Baliteke goiz partean euri apurra egitea, baina bestela eguraldi polita izango da.



**Domeka, 26**
Domekan ere antzera. Laino dezente izango dira, baina euri gutxi. Haizea bareago ibiliko da, oraindik ere hegotik. Epel samar egingo du.

## EUSKAL HERRIAN

Aurreko egunetan baino bareago ibiliko da hego haizea. Laino dezente ikusiko ditugu, baina euri gutxi espero da. Eguzkia ere azalduko zaigu tarteka. Eta tenperatura epel samarra izango ditugu. Beraz, orokorrean eguraldi polita izango dugu astebururari begira.



## TENPERATURAK

**MINIMOA** Eguaztena, 15 — **2 ºC**

**MAXIMOA** Eguena, 16 — **20 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **118,8 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 15 | 19 ºC | 2 ºC | - l/m² |
| Eguena, 16 | 20 ºC | 15 ºC | 8,1 l/m² |
| Egubakoitza, 17 | 16 ºC | 6 ºC | - l/m² |
| Zapatua, 18 | 19 ºC | 11 ºC | - l/m² |
| Domeka, 19 | 16 ºC | 13 ºC | 8,6 l/m² |
| Astelehena, 20 | 16 ºC | 9 ºC | 12,7 l/m² |
| Martitzena, 21 | 14 ºC | 9 ºC | 89,4 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

## ILARGIA AZAROAN



| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| 12 | 20 | 28 | 5 |

# oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> Alargunen elkarteak afaria egingo du**
Afaria egingo du Bergarako alargunen elkarteak abenduaren 8an. Elkartean bertan eman daiteke izena.

ANTZUOLA
**> Ikasketen elkartea eta EPAren gaineko hitzaldia**
*Une guztiak dira onak ikasteko* hitzaldia egingo du Gloria Gonzalez psikologoak eguaztenean, hilak 29, Helduen Eskolan, 10:30ean.

OÑATI
**> 80ko hamarkada eta punka, berbagai**
Josu Distorsion musikariak *80ko hamarkada eta punka Euskal Herrian* delako hitzaldia egingo du bihar, zapatua, Portu tabernan, 18:00etan.

ARRASATE
**> NA agiria egitera datoz martitzenean**
NA egitera etorriko dira hilaren 28an, martitzena. Joan den hilean eta hil honetan txanda hartu zutenek egun horretan egingo dute agiria.

OÑATI
**> Markelen Lagunartiak afaria antolatu du**
Denboraldi amaierako afaria antolatu du Markelen Lagunartiak abenduaren 2rako Zotz jatetxean. Izena emateko aukera dago Aloña, Izarraitz, Aker, Oñati eta Zotz tabernetan hilaren 27a baino lehen.

DEBAGOIENA
**> Baserriko plastikoak jasoko dituzte**
Baserrian erabilitako plastikoak jasoko ditu Deba Garaia elkarteak hilaren 28an. Argibideak: 943 76 25 47.

ARRASATE
**> Justizia eta elkartasunerako iniziatiba**
Justizia eta elkartasunerako iniziatibaren gaineko hitzaldia egingo du Mikel Isasik eguenean, hilak 30, Monterronen, 19:00etan. Kanpo zorra kentzea, industria militarra ezabatzea eta bidezko merkataritza bultzatzea eskatzen dute.

BERGARA
**> Alfonso Sastre Kultur Elkartearen hitzaldiak**
Kubako Liburuaren Institutuko presidenteak eta Venezuelako Kultur Ministerioko arduradun batek autodeterminazioaren gaineko hitzaldia egingo dute gaur, egubakoitza, udaletxean, 20:00etan, Aske elkarteak antolatuta.

ARETXABALETA
**> Lehen Jaunartzea egin dutenen gurasoak**
Aurten Lehen Jaunartzea egin dutenen gurasoekin batzarra egingo dute eguaztenean, hilak 29, parrokiako lokaletan, 18:00etan.

ANTZUOLA
**> Gazte batzarrak afaria egingo du**
Afaria egingo dute gazte batzarrekoek abenduaren 1ean, eta, afalostean, denek ikuskizuna egingo dute. Txartelak erosteko azken eguna da hilaren 26a, domeka.

OÑATI
**> Mendiko eta eskirako materialaren azoka**
Mendiko eta eskiko materialaren azoka ipiniko du Aloña Mendik hilaren 27tik 29ra bitartean euren egoitzan, 19:00-21:00 ordutegian.

ARRASATE
**> Zuberoako bi ikastolari laguntzeko Gabonetako otzarak erosteko aukera dago**
Alozeko Basabürü eta Sohütako Eperra ikastolek egindako Gabonetako otzarak erosteko aukera dago. 35 euroko otzarak ardi gazta, eztia, patea eta bizkotxoa ditu, eta 48 eurokoak, horiek guztiak eta Zuberoako patxarana. Argibideak, 943 79 20 24 telefonoan edo *mendibitzu@euskalnet.net* e-postan.

**943 25 05 01**
**goienkaria@goiena.com**

ARRASATE
**> Sanatana Dharma yoga eskolaren eskaintza**
Yoga eskolak emateen ditu Sanatana Dharma eskolak astean lau egunean. Bañez Doktorea kalean dago eskola. Argibideak: 635 71 06 16 (Maite), 943 78 31 26 (Ana).

ARETXABALETA
**> Beinke elkartearen urteurren afaria**
Beinke elkartearen 20. urteurrena ospatzeko afaria antolatu du Loramendi euskara elkarteak abenduaren 15erako. Izena emateko, deitu Loramendira.

BERGARA
**> Batera afalduko dute 1960an jaiotakoek**
1960an jaiotako bergararrek batera afalduko dute abenduaren 2an Zabala jatetxean. Zabala tabernan eman daiteke izena.

BERGARA
**> 1982an jaiotakoen bazkaria abenduan**
82an jaiotakoek batera bazkaltzeko aukera dute abenduaren 2an. Izena emateko, 25 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan zabaldu duten kontuan.

BERGARA
**> Herri batzarra deitu du ezker abertzaleak**
Udal hauteskundeen gaineko batzarra egingo du Bergarako ezker abertzaleak eguenean, hilak 30, Migel Altunan, 19:00etan.

kale inkesta

# Zer iruditzen zaizu zaintza zerbitzua? Ze zerbitzu falta da?



**Itziar Perez**
Ikaslea
Antzuola

Oso ondo dago horrelako zerbitzu bat, gurasoek umeen ardura hartu ezin duteneko. Gazte eta gaztetxoendako badaude tokiak, baina, umeendako egoteko edo jolasteko tokiak falta dira.



**Margarita Iturbe**
Erretiratua
Antzuola

Oso ondo iruditzen zait aukera hori edukitzea. Lanera joaten direnean umeak non laga edukitzea oso ondo dago. Nik uste dut nahikoa zerbitzu badagoela herrian, ez dakit ezer falta den.



**Piedad Lugarizaristi**
Erretiratua
Antzuola

Ondo ikusten dut zerbitzu hori egotea. Ez dut uste umeendako ezer falta denik. Gu txikiak ginenean ez zegoen ez parke, ez jolastoki eta ez ezer. Elizako arkupetan egoten ginen.



**Juan Antonio Araiztegi**
Langilea
Antzuola

Zerbitzu beharrezkoa da gaur egun eta oso ondo etorri zaio guraso askori. Haurtzaindegiarekin, jantokiarekin eta zaintza zerbitzuarekin, nik uste dut beharrak nahiko osatuta geratu direla.



**Pepe Arregi**
Langilea
Antzuola

Nik uste dut zenbat eta zerbitzu gehiago eduki herrian, hobe. Eta errentagarria baldin bada, hobeto. Egoteko tokiren bat edo ludoteka bat, esaterako, oso ondo etorriko litzateke.

txaloak eta txistuak




MIRARI ALTUBE

# Zuhaitzak larregi inaustuta Aretxabaletan

Aretxabaletar bat kexu etorri zaigu, esanez zuhaitz batzuren adarrak gehiegi mozten dituztela eta bonsai itxura eman, eta beste batzuk batere ez, eta adar zaharrak jausten izaten dituztela. Gehienak, gainera, farolen azpitik uzten dituzte, eta argitasuna jaten dutela ere badio.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

# 89,4

Oraingo asteko protagonistetako bat izan dugu euria. Eta horren adierazle da eguaztenean batutako datua: metro koadroko 89,4 litro ur bota zuen egun bakarrean. Zorionez, apurka-apurka bota zuen eta ez kolpean.

usteak uste

Mirari Altube

# Autobideak ekarriko digu bizi kalitatea

Orain aste batzuk irteeratxo bat egin genuen hainbat guraso eta umek. Egun pasa egitea beste helburu barik atera ginen, baina kontu asko ezagutu eta ikasi genituen. Batzuek Apotzaga-Etxebarri auzoa ezagutu zuten, eta beste batzuek autobidea ezagutu genuen. Gidari bikainarekin geneukan hitzordua, Landeta baserriko nagusia den auzo alkatearekin, eta berba gutxi baina egi asko bota zizkigun: "Urtxintxekin bizi gara orain; gero, baina, automobila hartu eta segituan iritsiko zarete Gasteiz edo Donostiara". Ez zituen haserre esan, ezta triste ere; baina etsita iruditu zitzaidan, berriak zaharrari pasoa utzi behar…

Aretxabaletako erdigunetik kilometro eskasera dagoen baserriaren albotik pasatuko zaio autobidea, albo-albotik, beste batzuei bezalaxe. Eta entzundakoak entzunda bururatu zitzaidan bizi kalitatea irabazi edo galdu egingo ote dugun. Euskadi modernoa saltzen digute han eta hemen, bizi kalitatea eta etorkizuna aipatzen dizkigute sarri. Eta hori lortzeko etxebizitzak, autobideak, abiadura handiko trenak eta industria guneak egin eta egin. Iparra galduta ez ote gabiltzan hausnarketa egin beharko genuke.

5 galdera…

# Bixente Pagoaga

Artzaina
Aretxabaleta

**1. Geroago eta ozenago esaten dute eguraldi aldaketa nabarmena dela…**

Bai, aldatu egin da lehendik hona. Lehen, sasoi honetan egoten ginen itxaroten *Veranillo de San Martin* delakoa, lehenago edo geroago. Aurten egin du lehen eta gero, bietan.

**2. Baina zure ustez, hemen badugu larritzeko moduko ikurrik? Uzta txarrak…**

Nik ez dut pentsatzen oraindik larritzeko moduan dagoenik. Aldatu egin da, baina larritzeko beste ez. Apurka-apurka joango da gehiago nabaritzen, baina oraindik ez dut uste.

**3. Hortaz, oraindik, fin bagabiltza, behintzat, badugula atzera bueltarik uste duzu?**

Baietz iruditzen zait.

**4. Askok gogoan ditugu gaztetan botatzen zituen elurteak; horiek desagertu egin dira?**

Ez, ez. Orain 30 urte egon ziren urteak elurrik ia egin gabe, 30, 35 edo 40 urte dela. Landako urtegia egin zuten orduan, eta esaten zuten urtegiaren eraginez ez zuela elurrik egiten. Baina urtegia hor egon da eta harrezkero egin ditu elurrak galantak. Urte guztiak ez dira berdinak, eta oraindik egingo ditu elurrak, egon lasai.

**5. Negua dagoeneko ate joka dabil; zelakoa aurreikusten da?**

Oraindik sartu ere ez gara egin neguan, udazkenean gaude, oraindik hilabete daukagu udazkenean eta zelako negua izango dugun iragartzea dezente zaila dela uste dut. Dena den, neguak bereak egingo dituela uste dut, baina ez naiz ausartzen beste ezer esaten. Udazkenean aurrera goazela neguak egingo ditu bere kukutxoak, baina behin neguan sartutakoan (hemen negua urtarril-otsailari esaten zaio) uste dut egingo dituela zitalkeriak eta gogorkeriak ere bai. Besteak beste, uste dut ur putzuak bete egingo direla.



**OBRAK** > GARIBAI ETORBIDEA

# Santamas jaiak baino lehenago zabalduko dute Garibai etorbidea

Abenduaren 1ean ipiniko dute La Caixaren etxeen lehenengo harria; eta ekitaldira etorriko dira, besteak beste, La Caixako eta Udaleko ordezkariak

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Oraingo astean estreinatu dituzte Garibai etorbideko lur azpiko edukiontziak, bi urteren ostean: zaborra batzeko bi eta kartoia eta papera, beira eta ontziak batzeko bana ipini dituzte. Seinale berriak ere ipini dituzte etorbide horretan, ibilgailu partikularren sarrera-irteera debekatzen dutenak.

Izan ere, Garibai etorbidea hasi da erakusten behin betiko izango duen itxura berria, bereziki oinezkoendako pentsatutako etorbide batena. Zabaltzen dutenean, bakarrik pasa ahal izango dira etorbide horretatik zerbitzu publikoak: autobusak eta taxiak, alegia.

Abenduan izango da hori. Abenduan bukatuko dituzte-eta etorbide horretan egin beharreko obra guztiak.

**GELTOKIA, GARIBAIRA**

Hain zuzen ere, lur azpiko eta parkeko obrak bukatzeko, kalea ibilgailuendako mugatzeko pibotak ipintzea falta zitzaien. Udalaren asmoa zen hori egin ostean zabaltzea Garibaiko pasabidea.

Baina orain, beste obra txiki bat ere egin beharrean dago Udala: geltokiaren egokitzapena.

Kontua da autobus geltokia atzera ere Garibain kokatuko dutela abenduan. Baina, horretarako, oraingo geltokia handitu egin beharko dute. Orain lehen baino autobus gehiago dabiltza, eta askotan bata bestearen atzean geratzen dira geltokian, ilaran; eta jakina, lekua behar dute horretarako. Horrela, geltoki inguruko espaloiari zati bat jan eta handitu egingo dute autobusendako espazioa. Beraz, hori guztia egin arte Garibai itxita edukitzea erabaki du Udalak.

**HANDITU EGIN BEHAR**

Hain justu, oraingo asteko gobernu batzarrean aztertu dute proiektua, presazko prozeduraz. Eta onartu egin dutela jakinarazi digu Inazio Lakuntza alkateak. Esan duenez, lanak berehala hasiko dituzte eta "Santamasak baino lehen" bukatuko dituzte. Aurrekontua da 23.425 euro eta Construcciones Frixi enpresak egingo ditu.

**ETXEEN LEHEN HARRIA**

Gero, lanak hasi eta 15 eguneko epea dute bukatzeko. Izan ere, Zerrajeran, orain autobus geltokia dagoen lekuan etxeak eraikitzen hasi behar dute.

Alkateak aurreratu digunez, abenduaren 1ean ipiniko dute etxeon lehen harria. Besteak beste, ekitaldira etorriko dira La Caixako ordezkariak, etxe horiek eraiki behar ditu-eta Foment Inmobiliari Assequible SA enpresak, La Caixaren Obra Sozailari atxikita dagoenak.

**ALOKAIRUAN EMATEKO ETXEAK**

Zerrajeran 148 etxebizitza eraiki behar dituzte, errentan emateko, gazteei edo pertsona nagusiei. Errenta merkea izango dute etxebizitza horiek, hilean 240 euro inguru.



**HANDITU** Garibaiko geltokia handitu egin beharko dute, orain lehen baino autobus gehiago ibiltzen da-eta. U.M.

HERRITARREK POZIK HARTUKO DUTE AUTOBUS GELTOKIA GARIBAI ETORBIDERA BUELTATZEA



**Mariasun Iturbe**
Baserritarra

## "Orain dagoen lekua ez dut pentsatzen egokia denik"

Neu arratsaldero pasatzen naiz bide horretatik automobilez; eta egoten dira bi edo hiru autobus batera, bidea oztopatzen; nondik pasatu ere ez dut jakiten. Orain dagoen lekua, behintzat, ez dut pentsatzen oso egokia denik. Erabiltzaileei dagokienez, berriz, nik neuk ez dut autobusa erabiltzen; beraz, hori ezin dut esan.



**Pedro Maria Lana**
Erretiratua

## "Garibain gertuago egongo da herritar gehienendako"

Ni ez naiz autobusean askotan ibiltzen eta ez zait txarto iruditzen orain dagoen lekuan egotea. Dena den, Garibaira aldatzen badute ere ez zait txarto iruditzen. Hori bai, akaso erretiratuen egoitzaren parean gertuago egongo da herritar gehienendako; San Andres eta inguruko auzotarrendako, besteak beste.



**Maria Gutierrez**
Langilea

## "Erabiltzaileendako hobe da Garibai, erdigunean dago-eta"

Orain dagoen lekuan baino askoz hobeto zegoen Garibain; hasteko, Garibai erdigunean dago, eta erabiltzaileendako askoz ere hobea da leku hori. Eta gainera, autobusak pasatzeko egokiagoa da; Zerrajeran leku txikiagoa dute autobusek. Eta gainera, Garibaitik zuzen doaz, eta orain buelta eman behar izaten dute.



**Iñaki Martinez de Maregorta**
Langilea

## "Lehen zegoen lekuan hobeto zegoen, Garibain"

Lehen zegoen lekuan hobeto zegoen: Garibain. Batetik, ohituta geundelako han hartzen. Bestetik, orain dagoen lekuan, autobusa hartzeko errepidea gurutzatu behar da, eta hori ez dago oso ondo. Bestalde, orain ez dago Garibain baino askoz ere urrutirago, baina nahiago dut Garibain ipintzen badute.


TapiceriA AINUR
TAPIZATU LANAK:
- SOFAK
- BESAULKIAK
- AULKIAK
- ETA ABAR
Nafarroa etorbidea 23-MI-11
Tel.: 943 79 19 43/ 680 826 555

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



**EGOKITZEN** Oraingo astean kendu dute obra inguratzen duen hesia, eta ikusten da zela utziko duten erreka bistan. U.M.

**OBRAK** > OTALORA KALEA

# Zirkulazioa aldatuko dute Otalora kalean

Erreka zatia bistan utziko dute, kultura etxearen parean; eta errekatik kultura etxeraino parke bat egingo dute; ibilgailuendako bidea aldatuko dute

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Ur zikinak batzeko intertzeptorearen obrek egindako zuloa, erreka erakusten duena, bere horretan utziko du Udalak Otalora kalean, kultura etxe berriaren parean. Eta handik kultura etxerainoko zatia parke izateko egokitzeko asmoa dauka.

Horrela, ibilgailuak ezingo dira pasatu kultura etxe aurretik. Hain justu, dagoeneko badabiltza egokitzen pareko errepidea. Inazio Lakuntza alkateak esandakoaren arabera, Okoretegiko biribilgunetik Uarkaperantz joango da errepidea "mediana bako bi errei izango dira. Eta Txoko taberna zegoen antzinako lekuan, atzera ere lehengo lekura bueltatu eta betiko bidetik joango dira ibilgailuak, Correos paretik". Alkateak gaineratu du Santamasetarako obra eginda egongo dela. "Faltako da bakarrik errekatik kultura etxerainoko parkea egokitzea".

**KULTURA ETXEA, URTARRILEAN**

Bestalde, kultura etxearen harira, alkateak esan du urtarrilean akaso estreinatzeko moduan izango dela. Altzariak sartzen hasi dira, Euskara, Kultura eta Hezkuntza Sailari dagozkionak. Horiek izango dira-eta joaten lehenak.

Kultura etxeko bisita gidatuei dagokienez, berriz, arrakasta handia izaten dabiltza; 1.000 lagun inguruk bisitatu dute eraikina.

**ALKATETZA** > ETXEBIZITZEN AUZIA

# Gipuzkoan, babes ofizialeko etxe gehien aurreikusita duen herria da Arrasate

Alkateak prentsaurrean gogorarazi zuen babestutako 903 etxebizitza eraikitzea dagoela aurreikusita

**U.M.** > ARRASATE

"Ez da zuzena eta egokia egunero komunikabideen aurrean egotea, bestelako lana dugu-eta udaletxean. Baina puntu batera heltzen direnean gauzak, aurre egin behar zaie". Hala azaldu zuen Inazio Lakuntza alkateak eguazteneko prentsaurrekoaren arrazoia. Gaineratu zuen, baina, arrazoi garrantzitsuena etxebizitzen eta, zehatzago, babes ofizialeko etxebizitzen gainean berba egitea zela; azkenaldian Ezker Batua egiten dabilen salaketei aurre egiteko, hain zuzen ere.

**903 ETXEBIZITZA AURREIKUSITA**

Hala, hasteko nabarmendu zuen Gipuzkoan Arrasate dela etxebizitza gehien planifikatuta dituen herria. Errentan emateko edo saltzeko babes ofizialeko 903 etxebizitza daude aurreikusita, batzuk eraikitzen: Zerrajeran 200 (100 saltzeko eta 100 errentarako); Gelman 135; Uribarrin, 44 esleituta; 148 egingo ditu Caixak Zerrajeran eta gune berean beste 216 egitea aurreikusi dute. Polmetasarako, berriz, 60 daude aurreikusita eta Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak 108 ditu egiteko. "Hori da batzuk penagarritzat duten planifikazio urbanistikoa", esan zuen.

Bigarren, alkateak argi utzi gura izan zuen Hirigintzan ez dagoela ustelkeriarik. Gogorarazi zuen Gelmako proiektua Aralar eta EBk izan ezik, gainerako alderdi politiko guztiek onartu zutela. Eta gogorarazi zuen, baita ere, aurreko legegintzaldian Ezker Batua bera ibili zela proiektu hori bultzatzen.

Eta hirugarren, esan zuen EBrena moduko kanpainek Arrasateren izena zikindu besterik ez dutela egiten, "inolako argumentu eta arrazoi barik". Adibide moduan erakutsi zuen *Mi Cartera de Inversiones* aldizkarian Arrasate agertzen dela Estatuko ustelkeriaren mapan.

EZKER BATUAREN ERANTZUNA

## EB: "Lursail gutxiago bideratu dute babes ofizialeko etxeendako atxikiendako baino"

Ezker Batuak atzo, eguena, erantzun zien alkatearen esanei. Alderdiko ordezkarien esanetan "ez da zintzoa babes ofizialeko etxebizitzen alde egindako apustua, kontuan hartzen badugu 19.500 m² bideratuko dituztela elkarri atxikitako etxeak eta txaletxoak egiteko eta aldiz, bakarrik 12.800 m² bideratuko dituztela babestutako etxeendako. Egin duen bakarra da Zerrajerako lurzoru publikoa hiperdentsifikatu babestutako etxebizitzak eraikitzeko eta modu horretan jabe pribatuak libratu egiten ditu halako karga sozialetatik aurreko Lurzoruaren Legea errespetatzen". Gogorarazi zuten aurreko legegintzaldian ez zutela onartu Gelmaren proiekturik, baizik eta hitzarmena egitea defendatu zutela desjabetze prozesuaren aurrean.

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Auzoko alkate Jone Bergaretxe dabil lan hori egiten

Artxibo eta liburu ugari ikuskatzen dabil informazioa jasotzeko

Historiaz gain, auzoko beste hainbat arlo ere ikertu ditu

**HISTORIA** > URIBARRIREN GAINEKO IKERKETA

# Uribarri auzoaren nondik norako guztiak liburuan batzen dabiltza



**URIBARRIREKIN MAITEMINDUTA** Jone Bergaretxe historiazale handia da, eta bere auzoa, Uribarri, izugarri maite du. IKER BARANDIARAN

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Uribarri baserri auzoko alkate da Jone Bergaretxe azken 15 urteotan. Lan handia egiten du auzoan eta urtero jaietako egitaraua kaleratzearekin bat auzoaren gaineko kontuak argitaratzen ditu (iturriak, mugarriak, errekak, errotak...). Hala hasi zen auzoaren gainean informazioa batzen eta dagoeneko informazio ugari dauka esku artean. Are gehiago, jakinminak artxiboetan, baserrietan eta bestelako iturrietan bilaketak egitera bultzatu du, eta hala jarraitzen du.

Joan den urtean, San Bartolometan Markulete baserrikoekin jai egitaraua bukatzen zebiltzala pentsatu zuten informazio horrekin guztiarekin liburu bat egin zezaketela.

**LAGUNTZA BEHAR DU**

Bergaretxeren asmoa da liburu hori lehenbailehen bukatu eta argitaratzea, baina egileak aitortu digu horretarako laguntza behar duela. "Dokumentazio asko gazteleraz batuta daukat eta hori guztia itzuli egin behar dut. Denbora faltan nabil, beste lagun batekin Uribarriko antzinako protokoloak, hau da, salerosketak, testamentuak eta beste azterketzen nabilelako".

Horregatik, Jone Bergaretxe auzo alkateak Udalari eskatu dio itzulpen horiek egiteko laguntza emateko.

Ez hori bakarrik. Uribarriko auzotarren asmoa zen liburua auzoko aurrekontuarekin finantzatzea, baina Bergaretxek azaldu digu ez dutela horretarako diru nahikorik. Hortaz, Udalaren premia ere badute horretarako.





ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak
San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

MADINA ZURAK
Aroztegia
- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak
Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea • Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

UGARTE
Industria hornidurak
San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

**1353A EZKERO ARRASATEN**
Bergaretxek batu duen informazio gehiena aspaldikoa da, eta, jakina, gazteleraz dago gehiena. Hala ere, Bergaretxeren asmoa da bere auzoaren gaineko liburua euskara hutsean egitea.

Uribarri, Garagartza eta Gesalibar 1353an sartu ziren Arrasateko udalerrian. Ordura arte independenteak ziren. Baina baserrietan egin zituzten harrapaketen ondorioz auzo horietako bizilagunak beldurtu egin ziren eta Arrasateko agintariei eskatu zieten auzo horiek defendatzeko. Hala batu ziren Arrasatera.

**HISTORIA BAINO GEHIAGO**
Bergaretxeren esanetan, auzoak historia handia dauka eta gertaera garrantzitsuak izan dira auzoan historian zehar. Historia hori guztia batzeko lan handia egiten dihardu, baina, horrez gain, auzoaren gaineko bestelako informazioa ere jaso du. Hain zuzen ere, Uribarrin dauden hegazti, zuhaitz, landare, abere eta landare sendagaien gainean ere ikerketak egin ditu, eta ehiztariak eta bestelako adituak izan ditu lagun.

Arlo asko landu ditu auzoko alkateak informazio bilketan, eta orain, egileak berak lan handia egin beharko du hori guztia ordenatu eta behar duen forma emateko. Auzo hori orain dena eta iraganean izan dena jasotzeko eta gordetzeko ezinbesteko dokumentua izango da liburu hori.

## Pertsonaia eta gertaera nabarmen ugari izan dira Uribarri auzoko historian

Liburua osatuko duten eduki guztiak batzeko, Jone Bergaretxek argazkiak eta beste jaso ditu auzoko baserrietan, eta Arrasateko, Tolosako, Donostiako eta beste herri batzuetako artxiboak arakatu ditu, besteak beste. Horrekin guztiarekin batera, aspaldian hainbat liburu ikuskatzen dihardu. Auzoaren gaineko toponimia, abizenak eta protokoloak lantzen dabil azkenaldian Bergaretxe beste lagun batzuekin batera. Bestalde, dagoeneko desagertuta dauden karelabe, teila-labe, putzu artesiar, baseliza, harraska, errota eta bestelako eraikuntzen gaineko informazioa ere jaso du.

Horrez gain, auzoko gertaera garrantzitsu eta pertsonaia esanguratsuen gainean ere ikerketak egin ditu. Hala nola, Clara Ezkurra beata, Bañez de Artazubiaga (1461ean hil zuten, Ganboatar eta Oinaztarren liskarretan), haren alargun Sancha de Ozaeta (euskarazko lehenengo bertsoak idatzi zituen, senarra zenaren alde), Pedro Bernardo Villarreal de Bertiz arkitekto eta ingeniari ospetsua (Uribarrin jaioa, Monterrongo lehen kondearen alabarekin ezkondu zen eta ingeniaritzaren gaineko liburuak argitaratu zituen), Juan Prudencio de Ugarte abadea (Bonapartek gidatutako Frantziako tropak geldiarazi zituen, eta Uribarri auzoarendako basoak erosi eta lan garrantzitsuak egin zituen), besteak beste.

Bestelakoak ere batu ditu: adibidez, XIX. mende bukaeratik gaur egunera arte auzoan diren azken hamar alkateen izen-abizenak, azkeneko zortzi abadeak eta beste.

**MUSIKA** > ROCK EMANALDIAK

# Hiru rock kontzertu izango dira asteburuan gaztetxean, 3.60 aretoan eta tabernetan

Egubakoitzean, Jim TNT arituko da Taupa tabernan; zapatuan, berriz, hiruna taldek joko dute gaztetxean eta 3.60 aretoan


MUSIKARI BETERANOAK Argazkian Gasteizko Silikonay taldea. SONIA SAMANIEGO

**I.B.** > ARRASATE
Arrasaten sarritan egoten dira musika emanaldiak. Gaztetxeko batzarrak egiten dituenaz gain, aspaldian 3.60 aretoko kideak ere buru-belarri dabiltza kontzertuak antolatzen. Hori gutxi balitz, Gure Leku tabernak hainbat egubakoitzetan zuzeneko musika izaten du eta aspaldi honetan Taupa tabernan ere hasi dira halakoak egiten.

Gaur, egubakoitza, Jim TNT bakarlariak pop-rock eta rock-and-roll emanaldia egingo du Taupa tabernan. 23:00etan izango da, eta Jaime Lizarantzu bakarrik arituko da kantuan, gitarra alboan duela.

**GOSE, BERTAN BEHERA**
Bestalde, bihar, zapatua, Arrasateko Gose taldeak Taupa tabernan egin beharreko kontzertua bertan behera gelditu da, taldekide bat gaixorik dagoelako. Hala, beste egun baterako utzi beharko dute.

**PUNKA ETA HIP-HOPA GAZTETXEAN**
Bihar, zapatua, ere egongo da zer ikusi eta zer entzun herrian. Gaztetxean, adibidez, Gasteizko Kung Funk eta Silikonay eta Sevillako Protesta arituko dira, hain zuzen ere. 22:00etan izango da hori: Silikonay taldeak diskoa aurkeztuko du eta 80ko hamarkadako doinuak eskainiko ditu; Kung Funk taldeak hainbat doinu uztartuko ditu, horien artean hip-hopa. Adibidez, oso ezagun egin zen *España huele a culo* kantua Kung Funk taldeko partaideek idatzi zuten. Protesta taldea, berriz, Reincidentesen oinordekotzat daukate.

**MALA REPUTACION, 3.60 ARETOAN**
Egun berean, zapatuan, Asturiasko Mala Reputacion taldeak kaleratu berri duen *Al límite siempre* diskoa aurkeztuko du. Lan hori orain arte kaleratzen duten laugarrena da, eta punk-rock, hiri-rocka eta heavy doinuak batzen ditu, besteak beste.

Asturiasko talde horrek rock alternatiboaren disko onenaren izendapena jaso berri du, eta etengabe jotzen dabil Espainiako Estatuan barrena.


ETXEBIZITZAK ELGETAN
Elgetan (Torrealdea)
**B blokea:** 16 etxebizitza eta apartamentu.
Bukaera: 2007ko apirila.
- 2 logeladun apartamentuak, garajearekin (bi leku): 215.000 €
- 3 logeladun etxebizitzak, garajearekin (bi leku): 239.000 €
**C blokea:** 24 etxebizitza eta apartamentu.
Bukaera: 2008 urtea.
Elgetako etxegintza SL Tel. / Faxa: 943 79 83 08 Aldai kalea 7, behea ARRASATE

> SASKIBALOIA

### Heldu da kanpoan jokatzeko sasoia, Leioan izango da

Azaroari etekin ederra atera dio Mugarri Alkesa saskibaloi taldeak, norgehiagoka guztiak bata bestearen atzetik irabazi ditu-eta. Azkena, garrantzitsuena, Arrasateko taldeak igoera fasean egongo den Mapy.tv mendean hartu zuen-eta (84-74).

Biharko kontrarioa ez da horren gogorra izango (18:00, Leioa) azken aurreko postuan dago-eta Askartza Claret. Kanpoan, baina, ohikoak dira ezustekoak.

> ARKU TIROKETA

### 50 arkulari izango dira ligako bigarren jardunaldian lehian

Bihar, zapatua, Arrasateko SP 10 arkulari taldeak antolatuko du ligako bigarren jardunaldia. Hala, 12:00etan hasita, Musakolan, hamar edo hamaika klubetako ordezkariak izango dira lehian, 50 lagun guztira.

Lehenengo jardunaldia Eibarren egin zuten, eta Arrasaten egingo dute bigarrena. SP 10 taldeak zazpi ordezkari izango ditu etxean egingo duten txapelketan.

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Bihar Tecnifuelle Elgoibarri irabaziz gero balentria egingo luke Ford Mugarri Arrasatek

"Liderri irabazteko ilusioarekin kantxaratuko gara", esan digu taldeko entrenatzaile Bernardo Balerdik

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Jokatu dituzten bederatzi norgehiagoketatik bakarra galdu duen Tecnofuelle Elgoibar izango da bihar arratsaldean Iturripen. Baina Donibane Lohizunetik morala goi-goian ekarri du Ford Mugarri Arrasatek, eta horrek lagundu egiten du liderraren kontra partidua prestatzeko: "Ondo jokatuta irabazi genuen Donibane Majestic taldearen kantxan, eta garaipen garrantzitsua izan da hori. Pozik itzuli ginen handik".

Arrasateko entrenatzaileari, baina, hurrengo galdera egin diogu: zer du Elgoibarrek? "Oso talde sendoa da. Baina sendotasun hori ez dute titular jokatzen dutenek soilik, ordezko jokalariak ere oso onak dira-eta". Eta zer egin behar da Elgoibar mendean hartzeko? Hori bigarren galdera: "Hegaleko jokalariak ondo lotu beharko ditugu, eta baita erdilaria ere". Horrez gain, beste gauza asko egin beharko ditu ondo Arrasateko taldeak. Eta ez orain go partiduan bakarrik, datozen hiru hitzorduak aurrean dauden taldeen kontra jokatuko dituzteeta. Orain sailkapenaren erdian dago Arrasate (10 puntu).




**ERROMO** Talde horren kontra egin du Arrasatek *hanka-sartze* bakarra. GOIENKARIA

## futbitoa zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Lasagabaster-Iriztu | **6-1** |
| Manhattan Pippol-Equs | **4-1** |
| Abokajarro-HLB 108 | **1-4** |
| Betrayer-Saukelu Scream | **2-6** |
| AT Celaya-Iluntz | **3-3** |
| Mc Awen Dauen-THC | **5-5** |
| Cicatrus-Dribling | **3-9** |
| Cipris taberna- Iturriotz taberna | **3-2** |
| Dublin Irish Pub-Billy & The Cowboys | **3-0** |

**PARTIDUAK**

| **Azaroak 25, zapatua** | **Epaileak** |
|---|---|
| **09:50** Dribling-Iturriotz Tab. | **AT Celaya** |
| **11:00** Cipris - AT Celaya | **Dribling** |
| **12:00** Manhat. Pippol-Saukelu Abian | **Equs** |
| **13:00** Iriztu Taberna-Equs | **Manhattan Pip.** |
| **15:50** Betrayer-THC | **Cicatrus** |
| **17:00** Cicatrus-HLB 108 | **THC** |

| **Azaroak 26, domeka.** | **Epaileak** |
|---|---|
| **10:50** Lasagabaster-Dublin Irish | **Billy & The** |
| **12:00** Iluntz-Billy & The Cow. | **Lasagabaster** |
| **13:00** Abokajarro-Mac Awen Dauen | **Iluntz** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Saukelu Abian | 12 | 4 |
| **2.** | Iluntz | 10 | 4 |
| **3.** | AT Celaya | 10 | 4 |
| **4.** | HLB 108 | 9 | 4 |
| **5.** | Cipris taberna | 9 | 4 |
| **6.** | Betrayer | 7 | 4 |
| **7.** | Dribling | 6 | 4 |
| **8.** | Abokajarro | 6 | 4 |
| **9.** | Dublin Irish Pub | 6 | 4 |
| **10.** | Manhattan Pippol | 6 | 4 |
| **11.** | Iriztu taberna | 5 | 4 |
| **12.** | Mac Awen Dauen | 5 | 4 |
| **13.** | Iturriotz taberna | 4 | 4 |
| **14.** | Billy & The Cowboys | 4 | 4 |
| **15.** | Lasagabaster | 3 | 4 |
| **16.** | THC | 1 | 4 |
| **17.** | Cicatrus | 0 | 4 |
| **18.** | Equs | 0 | 4 |

'Asteleheneko Goienkaria',
Debagoieneko kirol taldeekin

*Asteleheneko Goienkaria*-k, Debagoieneko kirol taldeen posterrak argitaratuko ditu datorren astelehenetik aurrera.

Lehena, Mondragon Futbol Elkartearena izango da, oraingo astelehenean, hilak 27, kaleratuko dena.

Mondrako futbol talde nagusia handiz, jokalarien izen eta abizenekin, eta baita beste talde guztien argazkiak ere, erdierdiko orrietan, koloretan.




Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

boteprontuen

**Jose Angel Tena** > Zaldibarko areto futbol txapelketako antolatzaillie

# "Mondraguek hamengo museue biher dau"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

**Herrixen Zaldibarko txapelketie antolaketan dauelako da ezagune *Tena*, baiñe badauko ezkutuen beste zaletasun batzuk be; historixa kontuek, adibidez. Gustora egon zeike *Tena*-kin berbetan, futbola alde batera itxitte.**



**Zaldibarko txapelketie antolaketiek badauko gauza onak, eta baitte txarrak be.**

Holaxe da, bai. Jente askok eskertu egitten dau holako lana egittie, eta herrixen bizittasun apur bat ipinttie. Baiñe badauz hori eskertu biherrien bronkak botatera bakarrik etorten dienak be.

**Administraziño eta Finantzak ikesi zeuen, 27 urte zeuketzunien.**

Periodikuen ekonomiako saille leiduten neuen, gustau egitten jaten-eta. Holaxe okurridu jaten ETEOra ikestera juetie; esperientzia edarra izen zan.

**Oin, barriz, ekonomiakin batera historiazalie be bazara.**

Eskue apurtu eta bajan neuela hara eta hona jueten nitzen erretratuek egittera. Leze Txikire buelta batzuk emuten hasi eta Mondragueko historixien gaiñien leiduten hasi nitzen. Sekule be liburu bat leidu barik, historiadore baten tesi doktorala hasi eta bukatu neuen; Mondraguen gaiñekue zan.

**Ze biher dau herrixek?**

Hamengo historixien gaiñeko museo bat. Mondrague historixiek ahaztute daukon herrixe da. Gipuzkoako romanikuen erreferentzia bakarretakuek daukou hamen. Horrekin batera, Oñatiko udaletxie barrokue dala saltzen daue. Eta hamengue? Arkitekto iguelak egin euen, eta bi bider haundixaue da! Ez dou geure burue saltzen, eta hori egin biher dou. Mapak atara, herriko bazter bakotxa erakutsiko dauena, espliketan gauza bakotxa ze dan, noixkue... Kanpokuek esan daixela hau ez dala Toledo, baiñe ez daixela geuregaittik izen.

**Herriko baztar bat?**

Santa Barbara eta baitte Bedoña be. Ondiokan Mondraguen gaiñeko gauza asko dau Santa Barbaran gordeta. Eta, esaten daue moruek ez ziela Bedoñara aillegau.

bere ustez



**Nerea Makazaga**

## Orduen sarea: geu armiarma

(00:00) Ordularien orratzek marrazten duten soka ikusezinetan presatu diren pizti bilakatu gara. Bi hanka eta bi esku soileko armiarmak, hesiak gurutzatu ezinean, hesi sendoagoak sortzen, denboraren formatu guztiak nahastu eta probatuz (22:09;13:53; 19:21; 16:37; 22:08;…) /(11:11)!!!

Beirazko esfera, armoniarik gabeko zarata eskaintzen duen grafola zurruna besterik ez da. Eta hiriari gu ere birak ematen, pausu azeleratuan, beste ordulari modernoagoaren jostorratz digitalek markatutako sintoniara pasa arte. *Ja son les 18:15 de la tarda, pero igualment t'oferim la nostra companyia fins...* Baina zentro berera bueltatzen gara, inoiz mugitu ez garelako edota kale guztiek gakartzatelako hona; artikulaziorik gabeko garaira, beti ere, mugatua.

**"Armiarmak sortzen zaizkit barrenean, armiarmak armiarmen barruan"**

Armiarmak sortzen zaizkit barrenetan, armiarmak armiarmen barruan, korapiloak are gehiago korapilatzen (22:09;13:53;19:21;--:--) eta oxigeno faltak lurrunez pintatzen ditu gardenak ziren kaiola honetako paretak.

Orain udako euliak gogoratzen ditut betiko alde honetatik, kanpoko euliak, nostalgiaz, eta kristoren gosea sartu zait (00:00).

txutxumutxua

### Gaztainen prezioa da igo ez den gauza bakarra; horrenbestez, aprobetxatu!

Joan den astean izan ginen erretratuko lagun Jesus Gallegorekin. Orain pozik ibiliko da, eguraldia hoztu egin da-eta. Baina, harekin izan ginenean oraindik hego haizeak jotzen zuen, eta gura baino gaztaina gutxiago saltzen zituela kontatu zigun. Gallegok dagoeneko bigarren urtea du Portaloian gaztainak saltzen, eta Eibarren eta Gasteizen ibilitakoa da lanean. Esaten duenez, arrasatearrok gaztainazaleak gara, ondo saltzen du-eta. Seguru, baina, Gasteizen gehiago saltzen zuela. Kontua da azken lau urteotan ez duela gaztainen prezioa igo: dozena bat, euro eta erdi. Aprobetxatu, prezioa igo ez den gauza bakarretakoa izango da-eta.



IKER BARANDIARAN

**BITTORI**
**ERRETEGIA**
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

arbolapeta
arrasate
beinke

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

ZUBIZARRETA LANTEGIAK
Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

**EUSKARA** > 'GEHIXAGO ETA HOBETO' PROGRAMA

# Gero eta gehiagok dute interesa Bergarako euskara ondo erabiltzeko

Liburu baten jaso dute orain arte jaso eta landu dituzten akats nabarmenenak eta liburu dendetan eta sarean jarri dute liburu hori

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Herriko ikastetxeek, Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Jardunek jarri zuten martxan *Gehixago eta hobeto* programa duela zazpi urte, herriko ume eta gazteen artean Bergarako euskararen erabilera zuzena zabaltzeko. "Baina gurasoek ere premia zutela ikusi genuen", azaldu du Alex Labaienek, euskaltegiko zuzendariak. Egun, ikastetxeetako lana ez ezik, guraso edo interesa duen edonorendako ikastaroak ere ematen dituzte. "Gero eta jende gehiagok du interesa herriko euskara behar bezala erabiltzeko, akatsak zuzentzeko gogoa. Oraingo ikastaroan, adibidez, bederatzi ikasle ditugu", dio.



**BERBETA** Udal Euskaltegian erakusten dute Bergarako euskara zuzen erabiltzen. UBANE MADERA

**AKATSAK ZUZENDU**

Labaienek onartu duenez, "akats nabarmenak egiten ditugu; izan ere, adin batekoekin konparatuz gero, egungo euskararen kalitatea eskasa da. Espainolaren forma kopiatzen dugulako edo imitazio okerrak egiten ditugulako egiten ditugu akats handienak", zehaztu du Udal Euskaltegiko zuzendariak.

Akats nabarmenenetako batzuk hauexek dira, haren esanetan: "*Ikusi dotzut* esatea *ikusi zaittut* esan ordez; *ondo hartuko neban* esatea *ondo hartuko neuke* esan beharrean; *da mutil bat bizi dala* esatea *da mutil bat bizi dana* esan ordez".

**MATERIALA ESKURA**

Bada, hasi zirenetik hona landutako materiala gorde egin dute *Gehixago eta hobeto* programako arduradunek: "Normalean egiten ditugun 72 akats inguru, behintzat, baditugu jasota", dio. Liburu bat ere atera dute batutako oharrekin. Alde teorikoa eta adibideak jasotzen ditu. Liburu hori salgai dago liburu dendetan eta sarean ere kontsulta daiteke, helbide honetan: *www.badihardugu.com*. Bergarako euskara ezagutzeko ikastaroak hamar ordukoak dira, eta euskaltegian dute informazio guztia.

**ETXEBIZITZAK** > SAN LORENTZON ERAIKIKO DITUZTE

# Alokairuko etxebizitzak egingo dituzte eskaera betetzeko

Alokairuzko etxebizitzez gainera, 207 libre eta beste 52 tasatu ere egingo dituzte Tornilleria Deba dagoen tokian

**O.E.** > BERGARA

Gazteek alokairuan hartzeko 68 etxebizitza egingo dituzte San Lorentzon, egun Tornilleria Deba dagoen tokian. Enpresa hori Mekolaldeko industrialdune berrira joango da datorren urtean eta toki horretan etxeak egitea onartu zuten azken osoko bilkuran.

**ESKAERA HANDIA**

Victoriano Gallastegi alkateak azaldu duenez, "herriko gazteen aldetik eskaera handia jaso dugu alokairuan hartzeko etxebizitzak egiteko, eta horri erantzuteko da, neurri batean, proiektu hori. Udalak aterako du laster plegua eta hartzen duenak etxeen proiektua egingo du gero. Banketxe batek egingo ditu, ziurrenik, eta hark jarriko ditu baldintzak".

**BIZIGUNEK ARRAKASTA TXIKIA**

Jaurlaritzako Bizigune proiektuarekin akordioa eginda du Udalak, baina alkateak esan duenez, "arrakasta txikia izan du orain arte, ez dute askok aprobetxatu hori". Etxebizitza horiez gainera, 207 libre eta 52 tasatu ere egingo dituzte San Lorentzon.




**ETXEBIZITZAK** Tornilleria Deba dagoen tokian egingo dituzte etxebizitzak. O.E.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia
Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

> KEXAK

## Kalez kaleko salmenta zaindu egingo dute udaltzainek, debekatuta dagoelako

Kalez kale egiten duten salmenta zaindu egingo du aurrerantzean Udaltzaingoak, debekatuta dago-eta hori egitea; izan ere, Udalean hainbat kexa jaso dituzte gai horren inguruan eta horregatik hartu dute erabaki hori. Victoriano Gallastegi alkateak azaldu duenez, "herritar batzuek esan digute kalez kaleko salmenta egiten ari direla batzuk Bergaran. Hori debekatuta dago eta udaltzainek dagoeneko instrukzioak jaso dituzte salmenta mota hori kontrolatzeko. Hasieran hori ezin dutela egin esan diete udaltzainek, baina ez badute kasurik egiten, beste neurri batzuk hartu beharko dituzte". Zehazki, CD, DVD eta antzekoen salmenta egiten dutela-eta jaso dituzte kexak Udalean.

> GARRAIO PUBLIKOA

## Osintxutik bi autobus pasako dira egunean Donostiara, eta beste bi handik Bergarara

Donostiara doazen bi autobus pasako dira egunero Osintxutik, eta beste bi Donostiatik Bergarara datozenak. Garraio zerbitzu berria martxan jarri zutenean Osintxuko geltokia kendu egin zuten, eta autobus guztiak saihesbidetik pasatzea zen asmoa. Baina osintxuarren kexen ondorioz, lortu dute egunean bi autobus, noranzko bakoitzean, behintzat, pasatzea. Hauxe da ordutegia: Donostiatik Osintxura lanegunetan: 08:00etakoa eta 13:00etakoa geldituko dira. 11:00etakoa kendu egin dute. Zapatuetan, 21:00etakoa geldituko da Osintxun. Eta Donostiara joateko: 08:20 eta 15:50 inguruan helduko da Osintxura, Arrasaten 08:00etan eta 15:30ean irtenda. Zapatu eta domeketan lehengo ordutegiak jarraituko du.

> LEHIAKETA

## 250 euroko hiru sari emango dituzte aurtengo Gabonetako erakusleihoen lehiaketan

Gabonetako erakusleihoen lehiaketa egingo dute herriko merkataritza establezimendu guztien artean. Abenduaren 12tik urtarrilaren 2ra bitartean iraungo du lehiaketak. Hiru sari banatuko dituzte, bakoitza 250 eurokoa. Abenduaren 20an emango dituzte sari horiek. Lehiaketan parte hartzeko oinarriak kaleratu dituzte, eta, besteak beste, hauexek dira bete beharretako batzuk: erakusleihoetan komertzioan saltzen dituzten produktuak agertu beharko dira eta ez da komeni goroldiorik, gorostirik edo izei naturalik erabiltzea erakusleihoa apaintzeko. Lehiaketak irauten duen bitartean, komeni da erakusleihoak argiztatuta egotea, ixteko ordua arte lanegunetan eta 21:00ak arte jaiegunetan eta bezperetan.

> 18/98

## Autoinkulpazio agiriak jasotzeko mahaia jarriko dute zapatu iluntzean herriko plazan

18/98 epaiketa dela eta, jendearen salaketak biltzeko eta autoinkulpazio agiriak jasotzeko mahaia jarriko dute zapatu iluntzean herriko plazan. 18:00etatik 20:00etara egongo dira autoinkulpazioak jasotzen. Bestalde, Askatasunak manifestazioa deitu du zapaturako epaiketa hori salatzeko. 19:30ean irtengo da plazatik.

Bestetik, 18/98 epaiketa salatzeko eta auzipetuei babesa emateko autoinkulpazio kanpaina hori Debagoien osora zabalduko dute datorren astetik aurrera. Hurrengo martitzenean, azaroak 28, prentsaurrekoa emango dute hainbat herritarrek kanpaina horri hasiera emateko. Hantxe azalduko dituzte kanpainaren nondik norakoak eta dituzten asmoak.

**HIRIGINTZA** > LANAK

# Labegaraietako biltegia botako dute, egoera txarrean dagoelako

Oraingoz ez dute beste ezer eraikiko han; izan ere, beharraren araberako eraikina egin nahi dute

**O.E.** > BERGARA

Labegaraietan Udalak duen biltegia bota egingo dute "egoera txarrean dagoelako", alkateak esan duen moduan. Oraindik zehazteke dute noiz hasiko dituzten botatzeko lanak eta gero zer egingo duten ere ez dute erabaki. "Momentuz ez dugu beste ezer eraikiko hor", argitu du Victoriano Gallastegi alkateak.

**BEHARRAREN ARABERAKOA**

Biltegia dagoen tokian gero zer egingo duten ez dute oraindik pentsatu. Victoriano Gallastegi alkateak esan duenez, "beharraren araberako eraikina egingo dugu gero. Ondoan kiroldegia dago, eta horrek ere bere zerbitzua sendotzeko beharko ditu agian beste instalazio batzuk. Ikusi egin behar da zer behar dauden. Momentuz, hutsunea geldituko da hor, ez dugu ezer egingo biltegia dagoen leku horretan".

Joxe Mari Etxeberria aparejadorearen esanetan, "oraindik ez dakigu noiz botako duten. Erabakia hartzen dutenean hasiko gara lanak adjudikatzeko prozesuarekin". Karroza zaharrak, baldosak eta antzerako elementuak gordetzeko erabiltzen du biltegi hori Udalak. Bota aurretik hustu egin beharko dute dena, baina Iñaki San Jose obretako buruak azaldu duenez, oraindik ez dira huste lanekin hasi.

**BETI BUSTIKO PIRAGUAK**

Udalak bere materiala gordetzeko ez ezik, herritar batzuek ere erabili izan dute biltegia. Beti Busti taldeak, adibidez, hantxe gordetzen du oraindik bere materiala. Taldeko *Kuxi*-k azaldu digu oraindik beti bezala ari direla erabiltzen biltegi hori, inork ez diela esan lokala utzi behar dutenik bota egin behar dutelako.




**BILTEGIA** Labegaraietako kiroldegiaren ondoko biltegia botako dute, egoera onean ez dagoelako. O.E.

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29



**LEHIAKETA BETERANOA** Lehiaketaren hamabosgarren ekitaldia izango da. Argazkian, iazko irabazleak. GOIENKARIA

**LITERATURA** > JARDUN ELKARTEAK ANTOLATUTAKO LEHIAKETA

# Amodiozko gutunen lehiaketa deitu dute

Lanak entregatzeko epea urtarrilaren 7ra arte egongo da zabalik; guztira, 1.030 euro banatuko ditu saritan Jardun euskara elkarteak

**EDU MENDIBIL**> BERGARA

Jardun elkarteak amodiozko gutunen XV. ekitaldia deitu du. 1992an edo lehenago jaiotako edozeinek parte har dezake lehiaketan, eta lan guztiek jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute.

Honako sariak banatuko dituzte: 450 euro irabazlearentzat eta 240 euroko saria bigarren saridunarentzat; Bergarako onenak 150 euro jasoko ditu eta gazte epaimahaiak emandako saria (26 urtetik beherakoei zuzenduta) 100 euro da. Azkenik, SMS bidezko lehiaketa deitu dute aurten ere: 90 euro eskuratuko ditu mezurik onenak. Mezuak 605 71 24 69 telefono zenbakira edo *kulturajardun@topagunea.com* posta elektronikora bidali beharko dira.

**URTARRILAREN 7RA ARTE**

Lanak jasotzeko azken eguna 2007ko urtarrilaren 7a izango da. Sari ematea, ohikoa denez, otsailaren 14an, San Valentin egunean egingo da. Argibide gehiago Jardunen jaso ditzakezue.

**MAGIA** > NESKA-MUTIKOEI ZUZENDUTA

# Eriz magoaren ikuskizuna Osintxun, Gaztañatan programaren barruan

Emanaldia Osintxuko eskolan izango da, 17:00etan; ikusle gaztetxoen parte hartzea bilatzen du Eriz magoak

**E.M.** > BERGARA

Gaztañatan kultura egitarauari amaiera emateko, bihar, zapatua, Eriz magoaren ikuskizuna izango da Osintxuko eskolan, 17:00etan hasita. Eriz magoa ezaguna da Osintxun dagoeneko: justu orain dela urtebete ekarri zuten auzotarrek lehendabiziko aldiz, eta txunditutа utzi zituen orduan ikusle gaztetxoak zein helduak Eriz magoak. Bereziki neska-mutikoei zuzendutako ikuskizuna da zapatuan Osintxura ekarriko duena. Kutxaren laguntzarekin antolatu dute biharko emanaldia.

**MAGIA ETA UMOREA**

Eriz Markes da ikuskizuneko protagonista nagusia, eta ikusleen konplizitatea ezinbestekoa da. Umorea eta magia uztartuko ditu Eriz magoak. Gezurretako magoa den itxura emango du, baina azkenean erakutsiko du benetako magia egiten badakiela. Esan bezala, ikusleek zerikusi handia izango dute ikuskizunean. Ordubete inguru iraungo du eta euskaraz izango da.

> PINTURA

## Miguel Okinaren erakusketa domekara arte izango da zabalik Aroztegiko aretoan

*Miguel Okina. Bizitza bat, margoari eskainia* erakusketa azaroaren 26ra arte izango da zabalik. 1949tik hona margotutako 35 koadro jarri ditu ikusgai Okinak: erretratuak, paisaiak eta natura hilak. Zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era izango da zabalik Aroztegi; domekan goizez bakarrik, 12:00etatik 14:00etara.

> ERAKUSKETAK

## Idoia Azkarateren margoak Donostian eta Altunarenak Miñaoko Parke Teknologikoan

Idoia Azkarate bergarararraren margo erakusketa Donostiako Kursal kafetegian (Ramon Maria Lili kaleko 2. zenbakian) ikus daiteke, azaroaren 30era arte. Azkaratek formatu txikiko 30 lan erakusten ditu han. Bestalde, Juanjo Altuna Akizuk *Espacios en construcción* erakusketa ikusgai dauka Miñaon, Arabako Parke Teknologikoan, abenduaren 31ra arte.

> ARGAZKILARITZA

## Nagore Igartzaren 'Gelak' argazki erakusketa Nahikari tabernan, hilaren bukaerara arte

Nagore Igartza antzuolarrak *Gelak* izenburuko argazki erakusketa jarri du Nahikari tabernan. Diseinua eta argazkilaritza uztartu ditu Igartzak Nahikariko argazkietan. Hormatik ateratzen diren adreiluak bailiran, Bartzelonan egindako 15 argazki zintzilikatu ditu egurrezko euskarrien gainean. Erakusketa hilaren bukaerara arte izango da ikusgai.

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak | Paper pintatuak
Moketa eta sintasola | Harea zorrotada
Iztuku esponjatua | Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

BERGARA Margoak

Certificado ISO 9001 por BVQi

Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

BOLU SUKALDEAK






2000 eguneko garantia. Aurrekontua konpromiso gabe.



Bolu 22 - behea • Bergara • Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

ELKAR
ELEKTRAGINTZA

ZURE ZERBITZURA!!

Mota guztietako instalazioak




943 76 00 00
Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

**PILOTA** > GABON SARIA ETA GIPUZKOAKO TXAPELKETA

# "Frontoiko taberna itxita badago ere, jendea gazteen partiduak ikustera animatu gura dugu"

Pilota taldeko arduradunek esan digute taberna itxita egonda zailtasunak izango dituztela Gabonetako zozketako txartelak saltzeko



37 NORGEHIAGOKA Jokatuko dituzte asteburuan Bergarako frontoian. GOIENKARIA

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

"Frontoiko taberna itxita egoteak ez digu batere mesederik egingo, orain jokatzen gabiltzan Gabonetako Sariko norgehiagokak aprobetxatzen genituelako zozketako txartelak saltzeko. Herritarrak txikiteoan etortzen ziren hona; partiduak ikusi eta, bide batez, txartelak erosten zituzten. Pilota elkartearendako oso garrantzitsua da diru sarrera hori, eta beldur gara inoiz baino txartel gutxiago salduko ditugun".

Hori esan digu Reyes Azkoitiak, eta horregatik animatu nahi ditu herritarrak pilotalekura joatera: "Giro polita egoten zen hemen, jendetxoa elkartzen zelako. Hala, taberna itxita egonda ere, frontoira etortzeko animatu gura ditut, gazteek zelan jokatzen duten ikusi eta txartelak erosteko".

**PARTIDUZ BETETAKO ASTEBURUA**

Gaur bertan jokatuko dituzte lehenengo partiduak. Hala, 19:00etan hasita Gabonetako Sariko 15 norgehiagoka jokatuko dituzte. Bihar, berriz, Gipuzkoako Txapelketako eta Gabonetako Sariko norgehiagokak jokatuko dituzte. 16:30ean hasita, Eibarko, Arrasateko, Illunpeko, Bergarako, Eskoriatzako eta Goierriko pilotariak izango dira lehian. 18:30ean amaituko dituzte norgehiagoka horiek, eta orduan jokatuko dituzte Gabonetako Sariko beste lau norgehiagoka.

Domekan, amaitzeko, txapelketa horretako beste 14 norgehiagoka egongo dira ikusgai, 11:00etan hasita.

> FUTBOLA

## Bigarren dagoen Tolosaren zelaian jokatuko du Bergarak

Bergarak joan den astekoa baino kontrario gogorragoa izango du oraingo asteburuan. Azkeneko postuan dagoen Segura 1-0 mendean hartuta, Bergarak bigarren postuan dagoen Tolosaren zelaian jokatu beharko du asteburuan. Bergarak baino sei puntu gehiago ditu Tolosak.

Bigarren erregionalean ere Bergarako talde BTLSk etxetik kanpora jokatuko du. Mondraren kontrako derbian lortutako puntuekin animatuta, mahoneroek Urkiren zelaira joan beharko dute, Eibarrera. Zortzigarren lekuan dago talde hori.

> ESKUBALOIA

## Liderrak bigarren dagoen Ormaiztegiren bisita izango du

Arrasateko kantxan 23-29 irabazita, Bergarak territorial mailako lehenengo postuan agintzen du. Lehia estua du, baina, puntu kopuru bera dute-eta Ormaiztegik eta Usurbilek (12 puntu). Hala, Ormaiztegiren bisitak esan gura du Bergarak kontrario zuzena izango duela aurrean.

> PILOTA

## Barriolak eta Olaizolak ez dute Bergaran jokatuko

Aurreikuspenek horrela bazioten ere –baita Aspe pilota enpresak ere–, azkeneko momentuan iritzia aldatu eta Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatuko dute Barriolak eta Olaizolak Lau t'erdiko Txapelketako finalerdietako norgehiagoka. Pilotaleku "neutralagoa" nahi izan dute.

**labegaraieta**

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Altospornos-Errotagain | **0-3** |
| Teatekh-Tornilleria Deba | **12-2** |
| Komando Piperrak-Tiki Taka | **5-6** |
| Irish Pub-Niu Tim | **2-5** |
| Belengua-Irubide | **Atzeratu egin dute** |
| Azkenak | **Atsedena izan du** |

**PARTIDUAK**

| Azaroak 25, zapatua, barruan | Epaileak |
|---|---|
| **09:30** Azkenak-Errotagain | **Komando Pip.** |
| **10:30** Irish Pub-Komando Pip. | **Irubide** |
| **11:30** Irubide-Niu Tim | **Irish Pub** |
| **12:30** Altospornos-Belengua | **Niu Tim** |

**Atzeratuta:** Tiki Taka-Tornilleria Deba

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Niu Tim | 15 | 5 |
| **2.** | Errotagain | 15 | 5 |
| **3.** | Irish Pub | 12 | 6 |
| **4.** | Teatekh | 12 | 6 |
| **5.** | Altospornos | 9 | 5 |
| **6.** | Belengua | 9 | 5 |
| **7.** | Komando Piperrak | 6 | 6 |
| **8.** | Tiki Taka | 3 | 5 |
| **9.** | Irubide | 3 | 3 |
| **10.** | Tornilleria Deba | 0 | 5 |
| **11.** | Azkenak | 0 | 5 |

## Minutu bateko isilunea egingo dute oraingo jardunaldiko partiduetan

Tornilleria Deba taldeak oraingo asteburuko jardunaldia atzeratzea eskatu du. Kontua da, zoritxarrez, talde horretako jokalari baten aita hil egin dela aste barruan. Hala, oraingo asteko norgehiagoka guztietan minutu bateko isilunea gordeko dute. Albiste txarrak alde batera utzita, sailkapenak erakusten du Niu Tim eta Errotagain taldeek indartsu hasi dutela txapelketa, oraindik ez dute-eta norgehiagokarik galdu. Ikusi egin beharko da oraingo asteburuan bi talde horien kontrario diren Irubide eta Azkenak taldeak ezustea emateko gauza diren.

Euskararen Hitzarmena sinatuko dugu



EBPN

**EUSKARAREN HITZARMENA.**
1991n ume eta gazteekin lan egiten duten herriko hainbat entitatek Euskara Bultzatzeko Hitzarmena sinatu zuten. Esperientzia hark emaitza positiboak eman zituen eta orain berriz jarri nahi da martxan ekimena; eta, horretarako, hartu-emanak izan dira herriko elkarteekin. Helburua honakoa da: entitate horiek konpromisoa hartzea, euren funtzionamendua eta antolatzen dituzten eskolaz kanpoko ekintzak euskalduntzeko.

EBPN
euskara biziberritzeko plan nagusia. Bergara

Informazio gehiago:
www.bergara.net
Euskara Zerbitzua: 943 77 91 66

BERGARAKO UDALA

Herran
BERGARA
**Sukaldeko altzariak:** Matxiategi 4 • 943 76 37 53



bergararrak kanpoan

**Nuria Fernandez** > Kazetaritza ikaslea
Madrilen bizi da

# "Madril grisagoa irudikatzen nuen; uste baino politagoa da"

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > HERRIA

**Kazetaritza ikasten dihardu Nuria Fernandezek Madrilen. Lehenengo urte eta erdia ikasle egoitza batean egin ostean, Moncloako barrutian bizi da ikasle etxebizitza batean. Ikasketak amaitu artean geratzeko asmoa du.**

Madrilera 2003-2004 ikasturtean joan zen. "Bartzelonara joateko asmoa nuen. Unibertsitateak izen ona dauka, euskaldun asko dago eta hiria asko gustatzen zait. Azken unean, ordea, hizkuntza dela-eta iritzia aldatu nuen. Madrilera etorri nintzen, Unibertsitate Konplutentsera".

Goizetan etorkinei zuzendutako astekari batean dihardu lanean eta arratsaldeetan unibertsitatera joaten da. "Asteburuetan noizean behin antzerkira joaten gara edo zinemara... Madrilen paseatzen ere ondo pasa liteke. Bi hilabetean behin-edo, asteburuan kanpora joaten gara".

**"Madril sekulakoa da ikasleendako unibertsitatetik gertu biziz gero, eta dirua eta astia izanez gero"**



Nuria Fernandez.

**ASKOTARIKO JENDEA ETA GIROA**

Madrilen jendeak eta kaleko giroak harritu dute: "Denetariko jendea ezagutu dut. Bestalde, Madril grisagoa irudikatzen nuen; pentsatzen nuen baino politagoa da".

Hiria gustuko du, baina handiegia dela dio, distantzia luzea dagoela batetik bestera eta edozertarako autobusa edo metroa hartu behar dela. "Madril sekulakoa da ikasleendako, unibertsitatetik gertu biziz gero eta astia eta dirua izanez gero. Lanerako ez dut uste hain atsegina denik".

Toki guztietatik gertu samar egonik, leku berriak ezagutzeko aukera handiagoa du. Hala ere, "familiaren eta lagunen falta sumatzen dut", esan digu. Ikasketak amaitu artean geratuko da. "Lanean nabilenetik gutxiago joaten naiz Bergarara. Baina noanean ez dut bueltatu nahi".

Nuriak dio Madril "hiri aberatsa" dela; "merezi du denboralditxo bat horrelako toki batean bizi izatea. Eskaintza kulturala bikaina da".

txutxu-mutxua

## Afaritarako elkartu ziren aurten 40 urte bete dituzten 45 lagun

**Aurten 40 urte bete dituzten bergararrek afaria egin zuten joan den zapatuan. 45 lagun elkartu ziren Azpeitxi jatetxean. Hiru urte badira kinto afaria egiten hasi zirela, baina aurtengoa, adina berez berezia delako-edo, jendetsuena izan da. Aspaldiko kontuak gogoratu, elkarren berri izan, bapo afaldu..., denetarako astia izan zuten otorduan. Eta, ondoren, tabernarik taberna dantzan ere primeran igaro zuten gaua. Sobratu zen diruarekin Gabonetako loteriarako 6 dezimo erosi dituzte, jakina, 40 zenbakian amaituta: 61.740. Zapatuan beste lau kinto-afari-edo izan ziren zapatuan.**



GOIENKARIA

bere ustez



Mikel Elkoroberezibar

## Oztopoak herriko gune berrietan ere

Hemen bakoitzari tokatzen zaion arte gauzak zelakoak diren ondo ez dakigula esaten da eta hori esaten duenari arrazoirik falta ez zaiola uste dut.

Ikusi besterik ez dago, orain arte nik behintzat ikusi ez dudana, kalera beren kabuz joan ezin eta laguntza behar duten pertsonek Bergaran bizitzeko dituzten zailtasunak.

Argi dago ez dela erraza egun batetik bestera gauzak aldatzea eta aspalditik datozen oztopo arkitektonikoak berehala kentzea eta egokitzea. Baina herriko gune batzuetan obra eta eraikuntza berriak egin diren arren ez da kontuan eduki gure artean euren kabuz kalera irten ezin dutenen egoera.

**"Ez da kontutan eduki gure artean euren kabuz kalera irten ezin dutenen egoera"**

Bestela, paseotxo bat ematea besterik ez dago Zubiaurre, San Lorentzo edo Masterreka kaleetatik ume baten karroa eramanez edo erruberadun ahulki bat bultzatuz. Hor ikustea gustatuko litzaidake trafiko segurtasun kanpainak bultzatzen dituztenak.

Dagoeneko nahikoa oztopori aurre egin behar diote egoera horretan daudenek, oraindik ere gauzak errazteko eta hobetzeko ardura dutenek euren lana ez dutenean betetzen.

Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak
610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA
Pintura-lanak orokorrean
•
Pintura industriala
•
Zoru arinak: sintasolak, moketak...

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

FRONTOI

TABERNA
Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

Kaleetako oztopoak kentzeko 70 mila euro erabili dituzte aurten

Herriko Plaza berritzen dutenean sarrera bi egokituko dizkiote

Udaletxean igogailua jarri eta sarrera zela egokitu aztertzen dabiltza

IRISGARRITASUNA HERRIAN > ARKITEKTURA-OZTOPOAK KENTZEN

# Espaloietako 17 pasabide egokitu dituzte, oztopoak kentzeko



OZTOPOAK Gurpildun aulkian dabilen Hector Prieto aretxabaletarra udaletxeko atean zain, barrura ezin delako sartu ate nagusitik. M.A.

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Irail inguruan hasi ziren zebrabideetara jaitsierak egokitzen Santa Kurtz kalean. Hango lanak bukatuta, Errekabarren kalean ibili dira oraintsu. Hala, 2005ean Udalak onartutako irisgarritasun plana betetzen dabiltza.

**ARKITEKTURA-OZTOPOAK**

Euskadiko Irisgarritasun Legeak dioenaren arabera egin zuen Udalak herrirako irisgarritasun plana, eta behin idatzita poliki-poliki hasi da lanok egiten. "Herri guztia egokitzeak zazpi milioi euro inguruko aurrekontua izango luke, eta horregatik lanak zatika egin behar ditugu", azaldu digu Hirigintza Saileko teknikari Jose Mari Segoviak. Hala, Udalak 70 mila euro gorde zituen aurrekontuetan hirigintzako arkitektura-oztopoak kentzeko proiekturako. "Aurten oinezkoen pasabideak egokitzeko erabili dugu dirua. Eta zeintzuk egokitu erabakitzeko herriko hainbat ibilbide aurreikusi genituen, ezintasunak dituztenen kasuan jarrita". Hori horrela, industrialdetik Kurtzebarri eskolara dagoen ibilbidean 11 zebrabide egokitu dituzte, eta udaletxetik Nafarroa kalera bitartean, bost; Ilargi plazan, ostera, bat.

Irisgarritasuna bermatzeaz gain, beste helburu bat ere badu: "Kasu batzuetan helburu bi lortu gura genituen: errepidea pasatzeko samurtasunak ematea ezintasunak dituztenei, batetik, eta zebrabideak jasotzea, bestetik, automobilen abiadura murrizteko". Herritar bat baino gehiago harritu zen jaitsita zeuden espaloiak berriro altxatzen ikusita; kasu horietan, baina, zebrabideak ere jaso egingo dituzte eta gero espaloiarekin bat egin asfalto bidez. Egokitu dituzten 17 pasabideetatik 12 izango dira espaloiarekin bat egindakoak. "Asfaltoa botatzeko makinak ekartzea garestia da, eta pasabide guztiak gertu daudenean ekarriko ditugu. Hiru edo lau asteko kontua izango da; bien bitartean, zaharren egoitzaren parean dagoen zebrabidea egokitu egin dugu istripurik gerta ez dadin, baina behin-behineko moldaketa da". Hori guztia egiteko erabili dituzte 70 mila euroak.

**SANEAMENDU LANAK**

Irisgarritasun planarekin batera Udalak saneamendu eta hornikuntza plan berezia dauka, hau da, lurperatuta dauden hodi eta gainerako azpiegitura guztiak berritzeko ardura: "Bi planok erabat bateragarriak dira, eta hasi berri diren Otalora kaleko lanetan arkitektura-oztopo guztiak gaindituko ditugu", azaldu digu Hirigintza arduradunak. Otalorako lehenengo zatia, Untzillarako bidegurutzera artekoa, plano bakarreko kalea izango da, hau da, espaloi ertz eta gorabehera barik, eta gainerako tartean aurreikusita dituzte espaloi jaitsierak. Eta gaineratu du: "Irisgarritasun plana ez da beteko hau eta hori konponduta, saneamendu lanetan oztopoak gainditzea aurreikusita baizik".

Bestalde, Herriko Plazako saneamendu eta birmoldatze proiektua egiten dabil ingeniaritza enpresa bat. Oraindik bukatu barik badute ere, diseinuan, plazarako sarrera bi aurreikusi dituzte: kulturarako eraikinaren albotik, hau da, atzeko partean dagoen aparkalekutik eta Durana kaletik: "Arrapala zabal bi egingo dituzte, eta gehienez ere %5eko malda izango dute". 2007an hasi gura dituzte lan horiek.

Udalak Mitarte kaleko saneamendu lanen proiektua ere eskatuta dauka, eta plano berean dagoen kalea egingo dute han ere.

**OZTOPOAK UDALETXEAN**

Kaleetan dauden oztopoez gain, eraikinetakoei aurre egin behar diete ibiltzeko arazoak dituztenek. Eraikin publikoei dagokienez, bi daude arazo larriak dituztenak: udaletxea eta Durana kaleko udaletxe zaharra: "Udaletxearen behar handienak igogailua jarri eta sarrera egokitzea dira. Eta aztertzen gabiltza, zela egin jakiteko. Udaletxe zaharrean oraindik ez dugu ezer egin", dio Segoviak. Kulturarako eraikin berria egiterakoan musika eskolako eta liburutegiko arazoak konponduta geratuko dira. Kirol etxeak ere baditu oztopoak, baina konpontzen hasi beharrean eraikin berriari itxarotea erabaki dute.

Hector Prieto > Gurpildun aulkian dabilen herritarra

## "Ezintasunak ditugunoi gehiago entzun beharko ligukete"



M.A.

M.A. > ARETXABALETA

**Motordun gurpil-aulkian dabil Hector Prieto, eta ondo baino hobeto ezagutzen ditu herriko oztopo guztiak.**

**Zela moldatzen zara herrian?**

Nahiko ondo, baina egokitu dituzten espaloi batzuk altu samar utzi dituzte, eta ez da samurra izaten igotzea. Beste begiratu bat bota beharko liekete.

**Non duzu arazo handien?**

Herriko Plazan; oso zaila da bertako mailak igotzea.

**Espaloietan egin dituzten azken moldaketei zer deritzozu?**

Harritu egin nintzen espaloiak altxatzen ikusita, baina jakin dut zebrabideekin bat egingo dituztela asfaltoarekin eta uste dut ondo geratuko direla.

**Eta eraikinei dagokienez, zer deritzozu?**

Udaletxea dago okerren. Sarrera nagusia bera dago gaizki, eta igogailua jarri beharko lukete.

**Herritarrok kontziente gara zuen arazoaz?**

Apur bat, baina batzuetan ahaztu egiten zaizue eta automobila pasatu behar dugun lekuetan uzten duzue.

**Eta erakundeek egiten dizuete kasurik?**

Zerbait, baina kostata. Azkarrago hartu beharko lituzkete erabakiak eta ezintasunak ditugunoi gehiago entzun.

**GARRAIOAK** > TRANBIAREN PROIEKTUA

# Ikusgai dago tranbiaren proiektua, eta alegazioak aurkezteko epea, zabaltzear

Osoko bilkuren aretoan jarriko dute ikusgai ibilbidea eta alegazioak aurkezteko epea abenduan hasi eta urtarril erdira bitartean egongo da

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Uztaila ezkero zain egon ostean, azaroaren erdian iritsi da tranbiaren proiektua udaletxera. Aldaketa handiak ditu hasierako proiektuarekin alderatuta, eta hilabete izango dute interesatuek alegazioak aurkezteko.

**BITAN BANATUTA**
Iazko otsailean aurkeztu zuen orduan sailburu zen Alvaro Amannek proiektua gure herrian. Haren arabera, Otalora eta Durana kaleetatik eta Araba ibilbidetik pasatu behar zuen tranbiak. Bizilagun asko ez ziren ados agertu orduan –batez ere Duranakoak–, eta Udalak berak alegazioak aurkeztu zizkion eta aldaketak proposatu. Eskatutakoa aintzat hartu du Jaurlaritzak, eta aldatu egin dute proiektua, guztiz aldatu ere. Hona tranbiak Aretxabaletan izango duen ibilbide berria: Arrasatetik datorrela herrian sartu eta musika eskola inguruan banatu egingo da; noranzko batek Bedarretako San Migel auzunetik Lausitta kalera egingo du, eta errekaren beste aldetik joango da Belorrieta auzo hasieran erreka gurutzatu arte. Beste noranzkoak Otalora kaletik Errekabarrenera egingo du, eta Belorrieta hasieran biek bat egingo dute. Handik aurrera batera jarraituko dute Loramendi kaletik Araba ibilbideraino. "Lausitta kalean errekaren albotik joango da eta alboan oinezkoen pasealekua geratuko da. Nahiko tarte estua da, baina ez dago beste modurik", azaldu digu Arritxu Oliden alkateak.



**PROIEKTUA** Arritxu Oliden alkatea tranbiaren planoa erakusten osoko bilkuren aretoan, proiektua alboan duela. M.A.

**ALEGAZIOAK AURKEZTEKO EPEA**
Eskatutako aldaketa guztiak ez dizkiote onartu Udalari –noranzko biak errekaren beste aldetik pasatzea–, teknikoki ez zirelako posible. "Udala gustura dago proiektu berriarekin, baina Hirigintza Saileko teknikariak aztertzen dabiltza oraindik txosten berria, eta alegaziotxo batzuk aurkeztuko ditugu", argitu digu Olidenek, eta gaineratu du: "Herritar guztiak pozik egotea ezinezkoa izango da, eta badakigu alegazioak aurkeztuko dizkiotela".

Jaurlaritzak txostena bidali du proiektua kontsultatzeko, baina herritarrei kontuak errazteko panel bat egingo du Udalak. Bertan ibilbidea eta herrian izango dituen geltoki guztiak zehaztuko dituzte. Osoko bilkuren aretoan jarriko dute panela, eta udaletxeko bulego ordutegietan edonor hurreratu ahal izango da ikustera. Horrekin nahikoa ez eta txostena zehatz-mehatz ezagutu gura duenak, berriz, hitzordua eskatu beharko du Hirigintza Sailean: "Azalpenak emateko ez da inor egongo, norberak begiratu beharko du, baina udal aparejadorea inguruan ibiliko da zalantzaren bat sortuz gero argitzeko", esan digu alkateak.

Tranbiaren gaineko proiektua udaletxean dago, eta horren berri ekarri zuen hilaren 22ko GAOk. Orain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar du Jaurlaritzak: "Abenduaren 4aren inguruan izango dela esan didate", esan du alkateak, eta orduan hilabeteko epea egongo da alegazioak aurkezteko: "Hau da, urtarrilaren erdi ingurura arte. Gainera, epea luzatzeko eskatu gura diet".

**KULTURA** > JAI BATZORDEA

# Jaiak gertatzeko elkartzen hasi dira

Gabonetako ekitaldiak dagoeneko zehaztuta dituzte eta datorren astean banatuko dute etxez etxe Negu Kulturala egitaraua

**M.A.**> ARETXABALETA
Urrian hasi zen Jai batzordea elkartzen, eta ordutik hona hamabostean behin egiten ditu bilerak. Edozein koadrila, elkarte eta taldetako kideak hurrera daitezke, baita inoren izenean ez datozen herritarrak ere.

**NEGU KULTURALA**
Egindako bi batzarretan Gabonetako ekitaldiak zehaztu dituzte. Guraso ordezkariak izan ziren azkenekoan, Olentzero, Bizar Zuri eta Errege Kabalgata zela antolatu erabakitzeko. Gaztelekuan egoten diren gazteek ere hartuko dute parte aipatutako ekitaldiotan. Akordeoi Orkestrak, ostera, Gabonetarako aurreikusi dituen kontzertuen berri eman zuen Negu Kulturaleko egitarauan sartzeko. Dagoeneko gertu dauka Kultura Sailak egitaraua eta datorren astean jasoko dugu etxean.

**ARATUSTEAK GERTATZEN**
Gabonak gertatuta datorren urteko jaiekin hasi dira orain. Aratusteak datoz lehenengo, otsailaren 18an; hortaz, inork proposamenen bat izanez gero ager dadila astelehenean, hilak 27, 20:00etan, Iralabarri plazako kultura etxean.



M.A.

## Santa Zezilia gogoan, hainbat ekitaldi herrian

Leizarra musika eskolako irakasleek ohitura dute Santa Zezilia egunean kalejira egin eta herriko ikastetxeetara joateko. Aurten bezperan egin zuten, martitzenean, baina euri zaparraden eraginez, kalean ibili barik zuzenean joan ziren Basabeazpi gunera. Handik Kurtzebarri eskolara joan beharrean –greba egin zuten irakasleek–, zaharren egoitzara egin zuten.

Abesbatzak bere aldetik Santa Zeziliaren omenez abestuko du meza domekan, 11:30ean, eta ondoren Taberna Berri jatetxean bazkalduko dute.

**LUDOTEKA** > PROIEKTU BERRIA

# Lehiaketarako dei egin du Udalak ludotekako zerbitzua kontratatzeko

Proiektu berriaren gaineko azalpenak eman gura dizkiete ludotekako bazkideei, eta batzarra egingo dute eguaztenean, hilaren 29an, 18:00etan



**LUDOTEKA** Letra eta zenbakiekin jolasean dabil Kaiet Gonzalez lurrean eserita. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Loramendi Euskara Elkarteak kudeatu du orain arte Algara ludoteka. Bada, Udalak erabaki du lehiaketa bidez esleitzea zerbitzua, eta proiektu berria jarriko du abian urtarrilean.

**GAZTETXOEN AISIALDIA**
Gernika plazan dagoen Algara ludoteka 3 eta 12 urte arteko ume zein gaztetxoen topalekua da. Adin bakoitzak bere egutegi eta ordutegia dauka, eta 100 ume inguru pasatzen da bertatik astean. Umeak gehiago izaten dira gaztetxoak baino, eta horri buelta eman gura dio Udalak. Hain zuzen, 8 eta 12 urte arteko gaztetxoentzat programa berezia jarri gura du abian: "Adin tarte horretako gaztetxoentzat hutsunea dago aisialdiari dagokionez; ludotekara ez dute joan gura handiegiak direlako, baina gazteegiak dira gaztelekuan sartzeko", dio Maider Etxanizek, Gazte teknikariak. Horregatik, urtean lau hilabetetan gazte horientzat zapatu arratsaldeetan zabaltzea pentsatu dute.

**BATZARRA BAZKIDEEKIN**
Horren harira, lehiaketarako dei egin dute lege kontuengatik: "Gainera, uste dugu hobe dela kontratuarekin lan egitea", dio Etxanizek. Hilaren 22ko GAOn argitaratu zituzten oinarriak, eta orain, 15 eguneko epea daukate interesatuek proiektu eta gainerako kontuak udaletxean aurkezteko.

Ludotekako bazkide diren gurasoei ikasturte hasieran eman zieten aldaketaren berri. Urtarriletik aurrera datorren proiektuaren gaineko kontuak argitzeko batzarra egingo du Udalak bazkideokin. Azaroaren 29an izango da, eguaztenean, 18:00etan, Iralabarri plazako kultura etxean. Galdera zein kezkak agertzeko aukera izango dute gurasoek.

## Umeak letxe, gurasoak ere saltoka, kantuan eta jolasean

Jolas eta kantu ikastaroa antolatu du Udalak, eta 2 eta 8 urte arteko umeen guraso, irakasle zein begiraleei egin zien dei. Hamar bat lagun hurreratu ziren martitzenean egin zuten lehen saiora, eta ikasteko zer hobeto umeen lekuan jartzea baino. Hala, saltoka, kantuan eta jolasean jardun zuten Urtxintxa Eskolako irakaslearen esanei jarraituta, eta izerditan bukatu zuten batzuek.

Hiru saioko ikastaroa da, eta azkena martitzenean egingo dute, hilak 28, 17:00etan, gaztelekuan.



M.A.

> IKASTAROA

## Kontakt-inprobisazio ikastaroa antolatu du Jaiki elkarteak

Jaiki elkarteak –lehen Gozatu ekimena zena– ikastaroa antolatu du abenduaren 16rako eta 17rako. Kontakt-inprobisazioaren gainekoa izango da, eta Olaff Kehler irakasleak egingo du. 13 orduko ikastaroa da, eta Leizarra musika eskolako dantza aretoan egingo dute. 12 lagunentzako daukate lekua; hortaz, izena lehenbailehen eman behar da. Horretarako deitu 943-53 43 96 telefono zenbakira eta Maierrekin egin berba.

Abenduaren 15ean, gainera, dantza garaikide-poesia-kontakt ekitaldia egingo dute udaletxe zaharrean.

GARBITU S. KOOP
Garbiketa orokorrak
Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 606 665 448



ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA
Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

> KIROL ETXEA

## Kantxaren zozketa egingo dute hilaren 29an, 18:00etan

Udaleko Kirol Sailak zera jakinarazi gura die herritar eta kirolzaleei: kirol etxeko kantxa-frontoiaren erreserba egin gura duten erabiltzaileen artean zozketa egingo dutela Kirol Saileko arduradunek, eguaztenean, hilak 29, 18:00etan. Zozketa horren bitartez hurrengo hiru hilabeteetako orduak banatuko dituzte, hau da, abenduaren 4tik martxoaren 2ra artekoak. Horrenbestez, kantxa erabiltzeko interesa duten guztiek zozketa egiteko orduan agertu beharko dute.

> PARROKIA

## Jaunartzea egingo duten umeen gurasoek batzarra

Aurtengo ikasturtean jaunartzea egingo duten umeen gurasoei batzarrerako dei egin diete parrokiako arduradunek. Hilaren 29an izango da, eguaztena, 18:00etan, parrokiako lokaletan.

Bestalde, hurrengo egubakoitzean, abenduak 1, otoitzaldia egingo du Arrasateko Artziprestaldeak, seminario eguna dela-eta. Bokazioak izango dituzte gogoan, eta Arrasateko Zigorrola auzoko San Isidro parrokian izango da, 21:00etan.

> ERRETIRATUAK

## Loaren beharraren gaineko berbaldia abenduaren 4an

Basotxo erretiratuen elkarteak berbaldia antolatu du abenduaren 4rako, astelehena. Edadetuek daukaten loaren beharra aztertuko du Gema Estevez adituak eta ondo lo egiteak dituen onuren gainean egingo du berba. 17:30ean izango da berbaldia Basotxoko egoitzan.

Bestalde, erretiratuen elkarteak Gabonetako otarre galanta gertatu du; hortaz, eskuratu gura duenak txartelak erosi behar ditu.

**LORAMENDI EUSKARA ELKARTEA** > URTEURRENA GERTATZEN

# Beinke elkartearen 20. urteurrena ospatzeko afaria antolatu dute, eta datorren astean bukatuko da txartelak hartzeko epea

Abenduaren 15erako gertatzen dabiltzan Beinke-Loramendi dantzaren azken entsegua eguaztenean izango da, hilak 29

**M.A.** > ARETXABALETA

Abenduaren 15ean ospatuko du Loramendi EEk Beinke elkartearen 20. urteurrena. Oraindik hiru aste geratzen badira ere, antolaketa lanak aurrera doaz eta azken xehetasunak lotu guran dabiltza.



**BERBALDIA** Iñaki Arnaizek berbaldia egin zuen orain dela bi aste. IÑIGO TRUEBA

**BAZKIDE ETA EZ BAZKIDEAK**

Abenduaren 15eko ospakizunak afariarekin borobilduko dituzte. Loramendiko bazkideek etxean jaso dute horren berri, baina edonor joan daiteke Taberna Berri jatetxean egingo duten afarira. Horretarako, txartelak jaso behar dituzte interesatuek udaletxe zaharrean Loramendik duen egoitzan, 30 euro ordainduta, eta datorren astean bukatuko da txartelok jasotzeko epea. Bestalde, azken hiru urteotan egin barik egon den Beinke-Loramendi dantza gertatzen dabiltza abenduaren 15erako. Azken entsegua eguenean, hilak 30, izango da 19:00etatik 20:00etara, Basabeazpi gunean.

**ABENDUAREN 1EAN, PIZTIAK**

Urteurreneko ekitaldiak baztertu barik, Loramendi EEk udazkenerako antolatutako kultura eskaintzekin jarraitzen du. Azaroan berbaldiak izan dira nagusi; Iñaki Arnaiz aretxabaletarrak, esaterako, Brasilen egoeraren gainekoa egin zuen, eta abendua kontzertuarekin hasiko dute. Hala, abenduaren 1ean, egubakoitza, Ondarroako Piztiak taldea hurreratuko da kontzertua ematera. Ezkutu tabernan izango da, 22:30ean.

argazki zaharra

## Parrokiak antolatuta, erromes

Talde galanta joan zen erromes 1968an, parrokiak antolatuta. Erromako elizak, San Pedro katedrala eta Loretoko Ama Birjinaren santutegia ikusi zituzten Italian, eta Frantzian Lourdes bisitatzera hurreratu ziren. Ia 50 lagun joan ziren, eta guztien gidari On Anjel Garmendia Aretxabaletako parrokoa, erretratuaren erdi-erdian ageri dena, eta On Fakundo Sampedro Aozaratza auzoko parrokoa. Autobusean egin zuten bidaian larri ibili ziren batzuk, baina ederto ibili ziren guztiak.

**Argazkia:** Felisa Elkoro.
**Testua:** Felisa Elkoro.
**Urtea:** 1968.




((112))
SOS DEIAK

SANER
ITURGINTZA
Selaikua baserria
Apotzaga auzoa
ESKORIATZA
605 71 66 92 / 943 71 52 51

Martin
erloju-denda
Viceroy Fashion eta Lotus Style
Mitarte 16, Tel.: 943 79 01 72 - ARETXABALETA


GOIENKARIA
2006ko azaroaren 24a

31 etxebizitza tasatuak ezingo dira inoiz merkatu askean saldu

Bizpahiru hilabetean prest izango dute gaztetxe berria

Bengoak ez du erabaki udal hauteskundeetan zer egingo duen

**'DEBARRI'** > ESKORIATZAKO ALKATE JUAN CARLOS BENGOA GOITB-N

# Abendu erdian zabalduko dute etxebizitza tasatuen izenematea




**ESKU HARTU** Herritar askok baliatzen dute *Debarri* herriaren gaineko zalantzak argitzeko; argazkian Eskoriatzako alkate Juan Carlos Bengoa. IKER BARANDIARAN

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Eguaztenean Eskoriatzako alkate Juan Carlos Bengoa izan zen GOITBko *Debarri* saioan. Ohikoa den moduan, Alberto Gorritibereak aurkeztu zuen saioa, eta Bengoak Gorritiberearen eta herritarren galderak erantzun behar izan zituen.

Herritarren kezka nagusienetako bat da Santa Marina esparruan egin beharreko etxebizitza tasatuen proiektua. Alkateak jakinarazi zuen abenduaren erditik aurrera izenematea zabalduko dutela. Horretarako, bulego bat zabalduko dute herrian, interesatuei arreta emateko, hain zuzen ere. Bulego horrek hilabete egingo du zabalik eta herritarrek denbora epe hori izango dute apuntatzeko.

**BETIKO TASATUAK**
Horren harira, Bengoak azaldu zuen azkenean etxebizitza tasatuak 31 izango direla. Eta, are gehiago, lurzoruaren gaineko lege berria baliatuta, Udalaren asmoa dela etxebizitza horiek betiko tasatuak izatea. Hau da, inoiz ezingo dira merkatu askean saldu.

Gaia aldatuta, autobidearen gainean ere galdetu zioten. Alkateak onartu zuen gai horrekin zenbait kasutan inpotentzia izan duela, Udalak bitartekari lana egiten duelako. Lanen bukaerari dagokionez, Bengoak ez du uste 2008ko urtarrilerako bukatuko dituztenik. 2008ko ekaina da, haren ustez, data posibleagoa.

**GAZTETXEA GELTOKI ZAHARRERA**
Gazte batek gaztetxearen gainean galdetu zion. Horren aurrean azaldu zuen udal brigada dagoen lokala, hau da, geltoki zaharra, gaztetxe bihurtu gura dutela. Horren aurretik, baina, udal brigada, biltegia eta bestelako zerbitzuak zentralizatu egin gura dituzte. Hori guztia egiteko bizpahiru hilabete beharko dituztela jakinarazi zuen.

**HAUTAGAITZA, ERABAKI BARIK**
Besteak beste, Gorritibereak galdetu zion ea 2007ko udal hauteskundeetan aurkeztuko den. Eta erabaki hori otsailerako hartuko duela jakinarazi zuen, baina badituela arrazoi dezente ezetz esateko. Hala ere, Eskoriatza berria egiteko lanak ere ilusioa pizten diola onartu zuen.

## Aparkalekuen gaineko premia eta auzoetako lanak noiz bukatuko dituzten, horiek dira eskoriatzarrek dituzten ardura nagusiak

Hainbat herritar arduratuta daude herrian gero eta aparkaleku gutxiago daudelako. Bengoak azpimarratu zuen Eskoriatzan biztanleekiko autoen ratioa oso handia dela: 3.960 biztanle daude eta 2.400 ibilgailu. Azken horietatik 2.200 dira ibilgailu arruntak. Horren harira, jakinarazi zuen azken hiru urteotan hainbat aparkaleku berri egin dituztela: Dorletan saihesbide ondoan (40 bat) eta HUHEZIren alboan (40 bat). Horrez gain, Udalaren asmoa da laster Intxaurtxuetan eta Aingeru Guardan aparkaleku gehiago egitea.

"Herritarrek ulertu behar dute erdigunean ez dagoela lekurik aparkaleku gehiago egiteko. Gainera, erdigunea ez da horretarako. Ohitu egin behar gara beste leku batzuetan aparkatzen", azaldu zuen.

Inoiz ordaindu beharreko lur azpiko aparkalekuak egiteko ideia ere izan dutela aitortu zuen, baina baita "zalantza" duela ea eskoriatzarrek aparkatzearen ordaindu egingo luketen.

Auzoetan egiten dabiltzan lanei dagokienez, ulertzen du herritarren ezinegona, baina falta diren biak bukatuta, ia herri osoa berriro urbanizatuta egongo dela nabarmendu zuen. "San Juan kalea eta Aranburuzabala izan ezik, gainontzeko guztia eginda daukagu datozen 50 urte pasa arte".





Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika

Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

**AZPIEGITURAK** > AUTOBIDEAREN LANAK

# Onbide.org elkarteko kide batzuek epaitegietara jo dute

Babestutako Zarimuzko errekan baimen barik lanak egitea salatu dute

I.B. > ESKORIATZA

Azpiegiturek eragindako kalteak saihestu eta salatzeko eratutako Onbide.org elkarteko kide batzuek auzitegietara jo dute azken egunotan. Eibar-Gasteiz autobidea egiten dabiltzan arduradunei beste salaketa bat jarri dizkiete. Oso haserre daude, Bidegik eta hainbat enpresak duten jarrerarengatik; "errespeturik eza" leporatu diete.

Azken asteotan Bidegik baimena eskatu du Zarimuzko errekan hainbat lan egiteko. Hain zuzen ere, errekatxoan pista bat eta Zarimuzko zutabea jarri ahal izateko plataforma egiteko baimena da eskatu dutena. Hala argitaratu zuen GAOn azaroaren 10ean.

**"EGIN OSTEAN, BAIMENA ESKATU"**

Onbide.org elkarteko kide horiek oso haserre daude "baimendu gura dituzten lanak dagoeneko eginda daudelako". Hala, ondorioztatu dute Bidegik ez duela "inolako arazorik izan baimen barik gauzak egiteko".

Are gehiago, kaltetutakoek azpimarratu dute Zarimuzko erreka ondare gisa katalogatuta dagoela eta babesteko premia duela. Bada, katalogazio horiei jaramonik ez egitea "oso larritzat" hartu dute Onbide.org elkarteko kideok. "Herritarrek jakin beharko lukete lanak zelan egiten diharduten".

Bidegiko arduradunek ez dute gura izan adierazpenik egin.

**OSPAKIZUNA** > GAUR, EGUBAKOITZA, GAZTAINA ERRE EGUNA

# Gaztainak jan, abestu eta jolasteko aukera izango dute

Luis Ezeizako irakasle eta gurasoen elkarteko lagunek Gaztaina Erre Eguna egingo dute bihar; herritar guztiak joan daitezke

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Gaztaina Erre Eguna urtero ospatzen dute Eskoriatzan. Orain dela urte dezente hasi ziren Luis Ezeiza ikastetxeko irakasleak hura antolatzen, eta azkeneko urteotan eskolako gurasoen elkarteak hartu du ardura hori.

Horren helburua da ume eta gaztetxoei erakustea danbolina zelan egiten den, gaztainaren gainean zer kantu abesten diren eta elkarrekin ondo pasatzea. Hain zuzen ere, Luis Ezeiza ikastetxeko gurasoen elkarteko presidente Eguzkiñe Alberdik azaldu digu umeak eta gurasoak elkarrekin egoteko egun oso polita dela.

**HERRITAR GUZTIENDAKO**

Dena dela, gurasoen elkartekoek azpimarratu dute jaia herritar guztiei zabalik dagoela, Luis Ezeizarekin loturarik izan edo ez izan; berdin du horrek.

Urtero eskolako irakasleek aukeratzen dute eguna, eta horren ostean gurasoen elkartekoekin elkarlanean egunaren nondik norakoak antolatzen dituzte. Joan den urtera arte udazkeneko fruituen gaineko tailerrak egin izan dituzte, baina iaz aldatzea erabaki zuten. "Aldatzeko ordua zen, eta handik aurrera erabaki genuen tailerrak herri jolasekin ordezkatzea", azaldu ziguten. Hala, azkenaldian sokatiran, txingetan eta bestelakoetan jolasteko aukera izaten da. Horrez gain, txikienendako tailer txikiren bat ere egiten dute.

**JOLASAK, ZOZKETAK, OPARIAK...**

Jaia 17:00etan hasiko da eta 19:30era arte-edo ez da aspertzeko aukerarik izango. Nahi adina gaztaina erre egingo dituzte, eta, jolasez gain, hainbat zozketa egingo dituztela eta opariak banatuko dituztela iragarri digute. Horrekin batera, 19:00ak aldera txokolatea banatuko dute.

Hitzordua Luis Ezeiza eskolako patioan egin dute 17:00etarako. Eguraldi txarra balego, ordea, pilotalekua izango dute babesleku aproposa.

**EUSKARA**

# Euskararen Egunean, kantu bazkaria

I.B. > ESKORIATZA

Abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatuko dute Eskoriatzan. Udaleko Euskara batzordeak eta herrian euskalgintzaren alorrean lan egiten duten beste eragile batzuek antolatu dute. Aurtengoa hirugarren aldia da.

Hilaren 3an egingo dituzte ekitaldi guztiak eta horien artean berrikuntzetako bat da kantu bazkaria egingo dutela. Egokiena elkartean egingo dute, 14:30ean. Babajana prestatuko dute egun horretarako, eta txartelak dagoeneko salgai daude. Helduek 15 euro ordaindu beharko dituzte; eta umeek, berriz, 7 euro. Txartelarekin batera, kantu-liburuxka opari egingo diete erosleei.

**GASTRONOMIA**

# Ardo dastatzea egingo dute zapatuan

I.B. > ESKORIATZA

Bihar, zapatua, ardo dastatzea egingo dute herriko plazan. Aitzorrotz kultura elkarteak antolatu du, eta aurtengoa bigarren aldia da. Iazko dastatzeak izan zuen harrera ona ikusita, ekitaldia errepikatzea erabaki dute.

19:00etan izango da dastatzea. Arabako Errioxako ardo botila dezente eramango dituzte, eta jana eta edana emango dute.

**JATEKOA ETA EDATEKOA**

Antolatzaileek 5 euroko bonuak salduko dituzte plazan bertan. Bonu bakoitzaren truke bi ardo ondu, erreserba ardo bat eta pintxo eta kopa bana eskuratu ahal izango dituzte hara gerturatutakoek.

# 'Dena klowntrolpean', berriro ikusgai

Oihulari Klown talde beteranoak aspaldiko *Dena klowntrolpean* ikuskizuna berreskuratu egin du. Gaur, egubakoitza, izango da berrestrainaldia HUHEZIko aretoan, 22:30ean.

Lan hori taldeak sortutako hirugarrena da. 90eko hamarkada hasieran hasi ziren eskaintzen eta 1998ra arte eutsi zioten. Hala, orain, hainbat taldek eskatuta, berreskuratzea erabaki dute.

Bi lagun arduragabe, poliziak balira bezala, jendea irtenarazten saiatuko dira lokal batetik, barruan jende susmagarria dagoen ustetan. Saiakera hutsal horretan gaur egungo gaiak izango dituzte berbagai: drogak, langabezia... Euskaraz egingo dute.



OIHULARI KLOWN



INSTITUTO OPTICO

Erdiko kale 22
Arrasate
Tel.: 943 79 71 68

Bidekurutzeta 10
Bergara
Tel.: 943 76 97 03

Eguneko lentillak, botatzekoak, 60 u. 34 €.

Eta eraman gida mapa bat doan.

**bere ustez**



Patxi Olabarria

## Errotondatik irten ezinda

Ehun urte baino gehiago dira Parisen errotonda asmatu zela. Antzuolara, ordea, ez da oraindik iritsi. Bitartean, herriko sarreretan istripuak ikusten ditugu behin eta berriz. Nora begira dago Diputazioa? Eta plaza eta parkea txikitzeko kapaza izan den Udalak ezin du errotonda ziztrin bat egin?

Bitartean, bake prozesua errotonda batean sartuta dagoela ikusten ari gara. Urte luzeetan STOPean egondako autobusa martxan jartzen ikusi genuen, urtetako elkarrizketen ondoren hartutako konpromisoengatik. Baina, besteak beste, espainiar gobernuak hitzartutakoa bete ez duelako, errotondan sartu da autobusa eta bueltaka gabiltza, erdi mareatuta.

**"Bake prozesua errotonda baten sartuta dago eta bueltaka gabiltza, erdi mareatuta"**

Errotondatik irteteko bide bat baino gehiago daude, baina guztiok adostutako bidea hartzea ezinbestekoa da, okerreko bidea hartuz gero berriro STOParekin aurki gaitezke eta.

Etorkizunean nahi duguna izateko aukera izan dezagun, orain da garaia. Eta horretan herritar guztiok dugu zer esana. Beraz, guztion bultzadarekin atera dezagun autobusa errotondatik Autodeterminaziora eramango gaituen bidera.

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

**MAIRUAREN ALARDEA** > MARTITZENEAN, HILAK 28, AURKEZTUKO DUTE PROIEKTUA

# Alardea ikertuko du Eusko Ikaskuntzak

Ikerketaz gain, Euskal Herriko alardeen gaineko jardunaldiak egingo dituzte 2007ko maiatzean

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Mairuaren Alardearen Elkarteak bultzatuta, Mairuaren Alardearen gaineko ikerketa eta jardunaldiak egingo dituzte. Datorren martitzenean, azaroak 28, aurkeztuko dituzte proiektu horiek, 19:00etan, Olaran etxean.

Eusko Ikaskuntza arduratuko da ikerketa egiteaz. *Alardearen lehena, oraina eta geroa* izenarekin, ikerketa sozio-kulturala egingo dute. Ikerketa horren helburuak izango dira, batetik, Mairuaren Alardearen jatorria eta historia ezagutzea, eta bestetik, herritarrek alardearen gainean duten iritzia.

**INKESTAK HERRITARREN ARTEAN**

Herritarren artean inkestak egingo dituzte, besteak beste, alardeko hizketaldiaren eta mairuari ematen zaion tratuaren gainean euren iritzia eman dezaten. Elkarrizketa sakonak izango dira, ordubete ingurukoak.

Abenduan hasiko dira ikerketa hori egiten. Eusko Ikaskuntzako Garazi Lopez Etxezarreta eta Margaret Bullon eta Xabier Kerexeta historialaria izango dira ikerketaren arduradunak.

**MAIATZEAN, JARDUNALDIAK**

Ikerketa horrekin lotuta, Mairuaren Alardearen Elkarteak bultzatutako proiektuaren barruan, datorren urteko maiatzean Euskal Herriko alardeen gaineko jardunaldiak antolatzen dihardute. Besteak beste, Hondarribia, Irun, Tolosa eta Elorrioko ordezkariek parte hartuko dute.

Astebeteko jardunaldiak izango dira; mahai-inguruak, hitzaldiak, erakusketak eta beste hainbat ekitaldi antolatuko dituzte aste oso baten zehar.

Bestalde, jardunaldietan parte hartuko duten herrietako alardeen interpretazio txikiak ere egingo dituzte, herritarrek ikusteko beste herri batzuetan zelako alardeak dituzten.



**LAUKOTEA** Jose Mari Anduaga eta taldekideak kontzertu batean. ANTZUOLAKO UDALA

**MUSIKA** > ANTIGUAKO BASELIZAN IZANGO DA EMANALDIA, GAUR, EGUBAKOITZA, 22:30EAN

# Jose Mari Anduaga oñatiarrak kantaldia eskainiko du gaur

Bakarlari moduan grabatu duen 'Bizitza bera' diskoa aurkeztuko du, bere taldearen laguntzarekin

A.I. > ANTZUOLA

Azaroaren 22an, eguaztena, izan da Santa Zezilia eguna, musikarien zaindariaren eguna. Hori dela eta, musika emanaldi berezia izango dugu gaur, egubakoitza, gauean. Antiguako baseliza auditorio bihurtuko da, 22:30ean hasita; izan ere, Jose Mari Anduaga musikari oñatiarrak eta bere taldeak *Bizitza bera* diskoa aurkeztuko digute. 2003. urtean argitaratu zuen Anduagak disko hori, bakarlari moduan argitaratu duen lehen diskoa, hain zuzen ere. Juanjo Untzila (gitarra eta baxua), Itziar Lertxundi (txeloa) eta Igor Sala (perkusioa eta akordeoia) ditu taldekide Anduagak. Bada, Joxe Mari Anduagak berak gitarra jotzen du, baita abestu ere.

**IBILBIDE LUZEA**

Bakarlari orain dela gutxi hasi den arren, ibilbide luzea egin du Anduagak musikagintzan. 12 urterekin hasi zen gitarra ikasten. Kanturako zaletasuna ere betidanik izan du; 1980tik 1995era Oñatiko abesbatzan jardun zuen. 1982tik 1985era, berriz, Madina laukotearen partaide izan zen. Alai taldeko kide ere izan zen. Aipatzekoa da, bestalde, Oñatiko musika eskolaren sortzaileetako bat eta gitarra saileko arduraduna izan zela.

**BERBALDIA**

## Jon Maiak 'Riomundo' eleberriaz jardungo du

A.I. > ANTZUOLA

Azaroaren 30ean, eguena, Jon Maia bertsolari eta idazleak *Riomundo* eleberriaren gaineko berbaldia egingo digu, Olaranen, 19:00etan.

Jon Maia Espainiako etorkinen ondorengoa da; gerra ondoren Euskal Herrira etorri ziren edozein familiaren historia izan daiteke eleberri horretan kontatzen duena. Liburua idaztera eraman duten arrazoien gainean, etorkinen ikuspegitik Euskal Herria zelakoa dugun eta abar kontatuko digu Maiak.



Jon Maia. GOIENKARIA

\> JAIA

### Meza kantatua eta gaztaina erre jana etzi, domeka

Domekan, hilak26, meza kantatua izango dugu, 11:30ean. Antzuolako abesbatzak abestuko du meza horretan.

Arratsaldean, berriz, urtero bezala, gaztaina erre jana izango dugu Herriko Plazan. 18:00ak aldera hasiko da. Gaztaina erreekin batera, sagardoa ere banatuko dute. Anelkar Antzuolako Elkartasun taldea arduratuko da gaztainak eta sagardoa banatzeaz.

\> INTERNET

### KZgunean posta elektronikoaren gaineko ikastaroa

Doaneko hainbat ikastaro antolatzen ditu KZguneak urte osoan zehar. Oraingoan, posta elektronikoaren gainekoa antolatu du. Datorren asteko eguenean, azaroak 30, izango da hori, Olaran etxeko internet gelan, 18:00etan hasi eta 20:00ak arte.

Outlook programa erabiltzen ikasiko dute ikastaroan parte hartzen duten herritarrek. Bi astean behin, eguenetan egoten da internet zerbitzu hori.

**AISIALDIA**

# Ibilaldia Elgetako lau menditan barrena

Azkonabieta, Egoarbitza, Erdella eta Intxorta mendiak igoko dituzte

**I. A.** > ELGETA
Egoki kirol taldeak antolatuta mendi ibilaldia izango da herri inguruko mendietan zapatuan. Mendizaleek bi ibilbide izango dituzte aukeran: laburra aukeratzen dutenek 09:30ean dute hitzordua plazan. Elgetatik abiatu eta Azula baserri ingurutik joanda Azkonabieta (725 m) mendia igoko dute; handik Karabietara jaitsi eta Egoetxeagako bidean barrena Egoarbitza (734 m) tontorrera igoko dira; Aixolako urtegira jaitsi eta han ibilaldiko partaide guztiendako jana eta edana egongo dira. Handik Elgetara itzuliko dira hiru ordu eta erdiko ibilaldia egin ostean.

**SEI ORDUKO IBILALDIA**
Bide luzea aukeratzen dutenak 08:30ean irtengo dira. Aixolara arteko bidea berbera izango da, baina handik Erdellara (683 m) igoko dira; gero San Romanera jaitsi eta handik Intxortara igo (714 m). Ibilbidea Elgetan amaituko dute sei ordu inguru ibili eta gero.

Azkonabietan antena errepikatzailea dago kokatuta; Egoarbitza da Elgetako mendirik ederrenetakoa; Erdellaren magalean Ego ibaia jaiotzen da; eta Intxorta 36ko gerrako guduek egin zuten ezagun.

Mendi bakoitzak du bere berezitasuna. Beraz, kirola egiteko ez ezik, etxetik gertu egon arren sarri uste baino ezezagunagoak zaizkien parajeak ezagutzeko aprobetxatu ahal izango dute irteera elgetarrek.



Intxorta tontorra. GOIENKARIA



**TERAPIA** Adinekoendako entretenigarriak diren ekintzak egiten dituzte zentroan terapia modura. I.A.

**ZERBITZUAK** > ADINEKOENDAKO ZENTROA

# Eguneko Zentroak ateak zabalduko ditu zapatuan

Jaiegunetan izan ezik egunero 09:30etik 17:30era bitartean egoten da zabalik; ordutegiak erabiltzaileen beharretara egokitzen dituzte

**IRATI AGIRREAZALDEGI**> ELGETA
Zapatuan, azaroaren 25ean, erabiltzaileen senideek eta oro har herritarrek Eguneko Zentroa hobeto ezagutzeko aukera izan dezaten, ate irekien eguna egingo dute. 11:30etik 13:30era bitartean egin ahal izango da bisita eta eguerdian luntxa emango diete bertara joaten direnei.

"Helburua da herritarrek gertutik ezagutzea zein baliabide dauden zentroan, egunen batean beharra izanez gero jakin dezaten zer aurkituko duten han. Izan ere, buruan ideiaren bat izan dezakete, baina ezin da jakin bertatik bertara ikusi arte", esan digute Gizarte-Ongizate Sailean.

**ADINEKO BOST LAGUN EGUNERO**
Orain dela gutxira arte zazpi lagun izan dira zentroan, baina bik utzi egin dute adinekoen egoitzara joateko; beraz, orain bost lagun daude: lau elgetarrak eta eibartar bat. Gizarte-Ongizate Sailekoek azaldu digutenez, "hasieran buruko arazoren bat zutenak joaten ziren batez ere zentrora; orain, ordea, askotariko jendea dago: bai buruko gaitzen bat dutenak, bai ezintasun larririk izan gabe mugitzeko zailtasunen bat dutenak ere".

Zaintzapeko etxebizitzan ere hiru lagunendako lekua egon arren, oraindik hutsik daukate. "Herrian ez da eskaririk jaso eta ez dugu ikusi kasurik zerbitzu hori eskaintzeko moduan", esan digute Gizarte-Ongizate Sailean.

Azpimarratu nahi dute, "bakoitzaren beharren arabera moldatzen direla ordutegiak eta egonaldiak. Bada jangela zerbitzua bakarrik erabiltzen duenik edo noizean behin joaten denik".

**KIROLA** > BERGARATIK KANPO ERE ATERA DAITEKE TXARTELA

# Txartel mankomunatua ibarreko edozein herritan atera daiteke

Bergaran 18 euro ordainduko dira hileko; gainontzekoetan 14,39

Igerilekurako bakarrik balio du Bergaran beste herrietako txartelak

**I. A.** > ELGETA
Elgetarrek orain arte derrigor Bergaran egin behar zuten eskaria Debagoieneko kirol txartel mankomunatua nahi izanez gero. Datorren urterako txartela eskuratzeko, ordea, Bergarara ez ezik Oñatira, Arrasatera, Eskoriatzara eta Aretxabaletara jo ahal izango dute.

**ASKOTARIKO KUOTAK**
Hala ere, txartela ateratzen den herriko baldintzak onartu beharko dira horretarako. Bergaran txartela ateratzen dutenek hileko 18 euro ordaindu beharko dituzte, baina Agorrosin Ekintza Gunea ez ezik gainontzeko herrietako kirol instalazioak ere erabili ahal izango dituzte.

Beste herrietan hileko kuota 14,39 euro da. Baina txartela Bergaratik kanpo egiten dutenek Agorrosinen igerilekua baino ezingo dute erabili. Hortaz, gimnasioan eta ekainean zabalduko duten bainuetxean sartzeko derrigorrezkoa izango da txartela Bergaran ateratzea.

> SALMENTA

## Eskola Txikien Jairako kamisetak salgai daude

Orain dela bi urte Elgetan egin ostean, iaz Igeldon ospatu zuten Eskola Txikien Jaia. Bada, aurten Zubietak hartuko du lekukoa, eta ekainean izango da festa. Jaia antolatzeko dirua jaso ahal izateko kamisetak ipini dituzte salgai eta Elgetan ere izango da horiek erosteko aukera. Azaroaren 28ra bitartean kamisetak Ana Mariren dendan egongo dira, nahi duenak ikusteko eta enkargua egiteko.

> KIROLA

## Gabonetako bolo txapelketa abenduan jarriko dute abian

Bolo txapelketa izango da abenduko zapatuetan 23:00etan: egun bakoitzean batutakoaren %35 jasoko du lehenengoak; %25 bigarrenak; hirugarrenak %15; eta %5 laugarrenak. Erregulartasuna ere sarituko dute: urdaiazpikoa egongo da lehenengoarendako; bigarrenarendako langostinoak eta erreserba ardoa; eta intxaurrak eta ardo ondua jasoko ditu hirugarrenak.

> ANTZERKIA

## Leo Bassiren ikuskizunerako sarrerak salgai daude

*La Revelacion* antzezlana egingo du Leo Bassik Espaloia Kafe Antzokian abenduaren 2an, 22:30ean. Euskal Herrian egingo duen emanaldi bakarra denez, eta sarrera kopurua mugatua denez, lehenbailehen erosteko gomendioa egin dute antolatzaileek. Sarrerak Espaloian bertan eros daitezke 15 eurotan, eta bazkideek 12 eurotan. Obra polemikoa da Bassirena eta ateotasunaren aldarrikapena du oinarri.

> POSTA

## Correosek helbide zuzenak emateko eskatu die herritarrei

Gauza jakina da Correosek Andramari plazako postontzia berritu duela irisgarritasun neurriak kontuan hartuz. Horrekin batera, herritarrei mezu bat helarazi diete posta zerbitzutik. Mezu horretan eskatzen diete elgetarrei helbide zuzenak eta osoak emateko gutunak sarritan bidaltzen dizkietenei. Horrela, zerbitzu hobea eskainiko diete eta ez da gutunik bueltatu beharrik izango.



BARRUTIK Kanpotik konpondu ostean, orain barrutik birmoldatu nahi du Udalak kiroldegia. U.M.

**OBRAK** > KIROLDEGIA

# Kiroldegia birmoldatu egin nahi du Udalak, zerbitzuak hobetzeko

Besteak beste, gimnasia egiteko guneak eta aldagelak ipini nahi ditu Udalak; guztia egiteko dirulaguntza eskatu dio Arabako Diputazioari

**UBANE MADERA** > ARAMAIO

Kiroldegiak dituen hiru solairuetan egin nahi ditu Udalak aldaketak, orain libre dagoen edo erabiltzen ez den espazioa hobeto aprobetxatzeko, zerbitzu berriekin.

Hala, solairuz solairu aztertuz gero, behekoan egin nahi dituzten berritasunak dira: oraingo bulegoa lekuz aldatu eta sarreran ipini; aldagelak berritu eta baita komunak ere. Horrez gainera, batzarrak egiteko gela bat ere sortu nahi dute.

**LEHEN ETA BIGARREN SOLAIRUAK**

Lehen solairuari dagokionez, dutxadun aldagela berriak egin nahi dituzte han. Eta gimnasio baterako gunea egokitu. Gimnasio hori bi zatitan banatzea aurreikusi du Udalak: muskulazio gela batean eta makinen gela bestean.

Bukatzeko, bigarren solairuan, aerobik edo bestelako gimnasia motaren bat egiteko gunea egokitzea da asmoa. Orain bulegoak daude solairu horretan, baina apenas erabiltzen dira. Gainera, gaur egun, herritarrek San Martin eskolako kiroldegia erabili behar izaten dute aerobic egiteko, adibidez.

Eta oro har, eraikin osoa irisgarri izateko egokitzapen obrak ere egin nahi ditu Udalak. Besteak beste, igogailua ipini nahi du.

**LAGUNTZA ESKAERA**

Oraingoz, hori guztia egiteko proiektua idatzi du Udaleko arkitekto Unai Aiastuik. 110.195,5 euroko inbertsioa behar dutela ere aurreikusi dute. Eta hain justu ere, obra horiek egiteko dirulaguntza eskatu dio Udalak Diputazioari. Ikusi behar bada, zela erantzuten duen Gasteizko erakundeak.

> HITZALDIA

### Barreterapiaren gaineko hitzaldia egingo dute eguaztenean

Azaroaren 29an, 19:00etan, *Bihotzaren barrea* izeneko hitzaldia egingo dute kultura etxean. Hain zuzen ere, La Risa Inteligente izeneko taldeak egingo du hitzaldia. 1990ean sortutako taldea da La Risa Inteligente; besteak beste, barrean oinarritutako terapia lantzen du eta horren gainean berba egingo du Aramaion. Hitzaldia Txirritola Euskara Elkarteak antolatu du.

> ERRETIRATUAK

### Lizarrara txangoa antolatu dute erretiratuen elkartekoek

Alaiak erretiratuen elkarteak antolatu du Lizarrara (Nafarroa) txangoa, abenduaren 3rako. Honako egitaraua zehaztu dute, besteak beste: 09:00etan atera, kiroldegitik; eta 14:30ean bazkaldu, Iratxen.

Interesa duenak azaroaren 28a baino lehen eman behar du izena Euskadiko Kutxan, eta 27 euro ordaindu. 68 lagunendako lekua izango da.

> KULTURA

### Martin Aranari omenaldia egingo diote domekan

Martin Arana 25 urte baino gehiagoan izan da Bizente Goikoetxea abesbatzako zuzendari. Hori horrela, esker ona adierazteko omenaldia egingo diote abesbatzako kideek. Hitzordua da domekan, hilaren 26an. Lehenengo, 12:00etako meza nagusira joango dira eta haren ostean, kontzertutxo bat egingo dute abesbatzakoek. Oroigarria ere emango diote Martin Aranari.

**KULTURA** > BERTSOLARITZA

## Gaur, Bagare lehiaketako kanporaketa jokatuko dute

Hitzordua da 20:30ean, gaur, barikua, Uribarri auzoko Intxaurrondo elkartean

**U.M.** > ARAMAIO

Bertsolari gazteendako lehiaketa da Bagare. Gaur, barikua, hasiko dira kanporaketak jokatzen. Eta lehenengo saioa Aramaion jokatuko dute, lehen esandako moduan, Uribarriko Intxaurrondo elkartean, 20:30ean. Bertso-afaria izango da, hain zuzen ere.

Gainera, lehiakideen artean aramaioar bat ere izango da: Iker Agirre. Hark aurrez aurre izango ditu beste bost bertsolari: Izar Mendiguren, Jon Elizetxe, Enaitz Alustiza, Unai Atxa eta Peru Vidal.

**GAINERAKO KANPORAKETAK**

Aramaioko kanporaketaz gainera, beste bi jokatu beharko dituzte lehiakideek: abenduaren 2an hurrengoa, Zigoitian. Eta abenduaren 9an azkena, Urbinan.

Zigoitiko kanporaketan Manex Agirre aramaioarra lehiatuko da, honako bosten kontra: Hodei Lopez de Arkaute, Julio Soto, Jagoba Apaolatza, Jokin Labaien eta Unai Muñoa. Hitzordua da 20:30ean.

Eta Urbinako kanporaketan lehiatuko da Andere Arriolabengoa aramaioarra, honako bosten kontra: Iñaki Viñaspre, Olatz Ibarluzea, Xabier Lasa, Ekaitz Samaniego eta Eneritz Zabaleta. Kasu horretan, hitzordua da 20:30ean, Urbinako Iñaki Enean.

Finala, berriz, Gasteizen jokatuko dute, abenduaren 14an.



GUTXI Batzarrean guraso gutxik parte hartu zuela kritikatu zuten. FERNANDO IZAGA

**HEZKUNTZA** > SAN MARTIN ESKOLA

## Eskolako batzar nagusian, ez zen ezustekorik izan

Astelehenean jai dute eskolan, zaindariaren eguna delako: San Jose de Calasanz

**U.M.** > ARAMAIO

San Martin Eskolakoek azaroan egin dute ikasturteari dagokion batzar orokorra. Alkateak berak ere parte hartu zuen. Hala, landutako gaien artean, zela ez, datorren urtean estreinatuko duten haurreskola zerbitzua zuten zerrendan. Hain justu ere, Mertxe Mondragon alkateak jakinarazi zien batzarrera joan ziren gurasoei, oraingoz jende gutxik eman duela haurreskolarako izena, baina zerbitzua zabaltzeko nahikoa direla. Halaber, jakinarazi zuen izena emanda dutenez gainera, beste guraso batzuk paperak egiten badabiltzala; beraz, espero duela oraindik ere jende gehiagok emango duela izena.

Horrez gainera, gai zerrendan zuten, baita ere, irakasleen aurkezpena egitea eta, bestak beste, ikasleek eskolatik kanpo egiten dituzten ekintzen berri ematea.

**JANTOKIA, BETI ZABALIK**

Jantokia ere berbagai izan zuten batzarrean. Izan ere, erabaki zuten aurrerantzean, ikasleek bakarrik egun erdiz eskola izan arren, jantokia zabaldu egingo dutela. Eta ez orain moduan; izan ere, egun erdiko eskola dagoenean, ikasleek etxean bazkaldu behar izaten dute.

**IA 600 EURO HARREMAN-ENDAKO**

Bukatzeko, bestelakoen artean jakinarazi zuten aurten eskolak 570 euro emango dizkiola Harreman erakundeari.

**LANAK** > GASA SARTZEN

# Hartuneak egiten hastear daude, eta urtarrilean iritsiko da gasa etxeetara

Bigarren faseko lanak udaberri inguruan hasi gurako lituzke Udalak, baina hitzarmena sinatzeko dauka oraindik Jaurlaritzarekin




**ERREGAI-TANGAK** Herriaren goiko partean, ur-andelaren azpian, jarri ditu Repsolek bi erregai-tanga. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Atzerapen handiarekin dabiltza gasaren lanak herrian. Azarorako gasa izango zutela aurreikusi zuten Udalean, Repsolek agindutakoaren arabera, baina urtarrila arte ez da iritsiko.

**HIRU FASETAKO LANAK**

"Asteotan jarriko dituzte hartuneak etxeetan, eta bilerak egingo ditugu bizilagun horiekin", argitu digu Joxerra Perez alkateak. Lan horiek bukatukoan Jaurlaritzako Industria Sailak probak egin beharko ditu oniritzia emateko, eta ostean iritsiko da gasa: "Atzerapenik ez badago urtarrilerako izango da".

Herrian gasa sartzeko lanek hiru fase dituzte. Bada, lehenengoak bukatuta eta hartuneak egiteko zain daudela, bigarren fasekoei begira dago Udala: "Jaurlaritzarekin laguntzak hitzartu behar ditugu, eta ahoz baietza izan arren abenduan sinatuko dugu hitzarmena. Behin hori eginda lehiaketara aterako ditugu lanok eta martxorako hasita egon beharko lukete", dio Perezek. Fase biak egindakoan hirugarrenean dauden etxe gutxi batzuk geratuko lirateke gas barik. Eta hori ez dadin gehiegi luzatu, bigarren faseko lanak bukatutakoan hirugarrenekoei ere gasa jarriko die te behin-behineko lanak eginda.

Hain zuzen ere, urtebeteren bueltan herriko etxe guztiek izango dute gasa, eta baserrien txanda iritsiko da orduan: "Baserrietara eramateak daukan kostuaren aurrekontua aspaldi eskatu genuen, baina erantzunik ez dugu izan. Jasotakoan ikusi beharko dugu zela bideratu", argitu zigun alkateak.

## Herriko umeak oso gustura liburutegian

Astelehenean zabaldu zituzten ludoteka eta liburutegia, eta betebetean asmatu zuten Gureleko kideek. Izan ere, iritsi da eguraldi narrasa eta Gatzagako ume zein gaztetxoek arratsaldea pasatzeko leku bikainak aurkitu dituzte. Txikienak saltoka eta jolasean eta 6 urtetik gorakoak liburuei begira, nork bere lekua topatu behar du. Alazne Diaz aretxabaletarraren begiradapean ez dira aspertuko ekaina bitartean.



M.A.

> UDALA

### GOITBko 'Debarri' saiora joango da alkatea hilaren 29an

Debagoieneko herrietako alkateak protagonista dituen GOITBko *Debarri* saioan Joxerra Perez egongo da azaroaren 29an. Alberto Gorritiberearen galderak erantzun beharko ditu, baina herritarrek ere izango dute aukera galderak egin edo eskaerak aurkezteko. Horretarako, telefonoz dei egin dezakete interesatuek (943-71 23 96) edo *Goiena.net* webguneko eztabaiden atalean egongo den galderan sartu. Bata zein bestea hautatu, hilaren 29a baino lehen egin behar dira.

Debarri Leintz-Gatzaga

**Jose Ramon Perez, Leintz Gatzagako alkatearekin berbetan**

**Emisio eguna:**
Asteazkena 29, 21:15ean

**Aurkezlea:**
Alberto Gorritiberea

**Aurrez galderak egiteko:**
www.goiena.net webgunean edo 943 71 23 95 telefono zenbakian



Goitb Goiena Telebista
Ikustekoa!

DEBARRI / Babeslea
GRUPO ARKAUZ

**GOLFA** > MIKEL GALDOS, PEUGEOT TOURREKO FINALEAN

# "Edo negargarri ibili naiz, edo bikain jokatu dut; ez da erdibiderik egon"

## Aretxabaletako golf jokalari profesionala Cadizen dago Peugeot Tourreko finala jokatzen

## Atzo hasi zuten txapelketa hori, eta domekara arte lehiatuko dira 50 jokalari onenak

**XABIER URTZELAI** > ARETXABALETA

Cadizera joateko maletak egiten zebilela harrapatu dugu Mikel Galdos. Batetik, amaitzear dagoen denboraldiaren gainean egin dugu berba; bestetik, urteko hitzordu garrantzitsuenaren gainean galdetu diogu, domekara arte Peugeot Tour golf txapelketan lehiatuko da-eta; Almenarako zelaian, Sotogranden. Aretxabaletakoak lehenengo urtea egin du profesional mailan, eta denboraldiaren gainbegiratuarekin hasi gara: "Urte ona izan da, finalerako sailkatu naizelako. Baina inoiz baino irregularrago jokatu dut, eta horrek harritu egin nau. Edo negargarri ibili naiz, edo bikain jokatu dut, ez da erdibiderik egon".

**HASIERA ONA**

Mikel Galdosek bikain hasi zuen denboraldia: "Sevillatik laino baten gainean itzuli nintzen. Peugeot Tourreko lehenengo hitzordua zen, eta zortzigarren sailkatu nintzen. Hori bai, hurrengo txapelketan etorri zen kolpea, Burgosen, lehenengo kanporaketa gainditu barik etxerako bidea hartu nuenean. Urtean zehar horrelako bat baino gehiago izan ditut, eta gogorra izaten da".

Izan ere, hori izan da oraingo denboraldian behin eta berriro errepikatu dena, "txapelketa oso ona egin ostean negargarri jokatu dudala, alegia". Aretxabaletakoak, baina, ondo jakin du noiz jokatu behar zuen ondo: "Alde horretatik zortea izan dut, urteko lehia garrantzitsuetan neurria eman dudalako, eta sailkapenean asko lagundu dit horrek". Hala, ez du ahaztuko orain dela bi hilabete Logroñon egindako Espainiako Txapelketa: "Europan jokatzen duten bi jokalarirekin jarri ninduten, eta euren kontra ondo jokatzea sekulakoa izan zen". Biak gaindituta, Ignacio Garridorekin jokatu zuen azken txanpa: "Tipo hori figura hutsa da, oso ona, eta berarekin jokatzea gozamena izan zen". Hamaikagarren sailkatu zen Mikel Galdos: "Zelaiak duen parea baino zazpi kolpe gutxiago egin nituen. Niretako txapelketa perfektua izan zen". Bost mila euro pasatxoko saria eskuratuta egin zuen Galdosek Aretxabaletarako bidea.

**SENTSAZIOEI KASU EGIN**

Sevilla, Valentzia, Errioxa (Espainiako Txapelketa), Andorra... gozatzeko txapelketak izan badira, gainontzekoak berehala ahaztu ditu: "Ez naiz jokatzerakoan kale zerk egin duen behin eta berriro pentsatzen ibiltzen den horietakoa. Ez naiz oso mekanikoa, momentuan ditudan sentsazioei egiten diet kasu. Baina bai, Madrilgo eta Kanarietako txapelketetatik triste bueltatu nintzen, benetan eskas ibili nintzelako".

**ASTEBURUAN CADIZEN**

Denboraldiko hitzordu garrantzitsuenaren aurrean dago Mikel: "Peugeot Tourreko finalean 190.000 euro daude jokoan, eta 50 jokalari baino ez gara izango. Finala denez ez dute lehenengo kanporaketarik egingo eta azkeneko postuan sailkatuta ere, badakit ez naizela esku-hutsik itzuliko. Finala berezia izango da, inoiz ez dut horrelakorik jokatu eta ez dakit zelan ibiliko naizen. Badakidana da horrelako txapelketetan jendeak ez duela berdin jokatzen".



**MIKEL GALDOS** Larrabeako (Legutiano) golf zelaian. Klubak duen jokalari profesional bakarra da. JOSETXO ARANTZABAL



**ENTRENATZEN** Cadizera joan aurretik egindako azken lan saioan. JOSETXO ARANTZABAL

Azkeneko txapelketa hori kontuan hartu barik, Peugeot Tourreko rankingak erakusten du Mikelek dagoeneko 8.235 euro irabazi dituela. Ez da marka txarra, baina horrekin bakarrik ezin da aurrera egin: "Egia esateko, babesleei esker egiten diogu denboraldiari aurre. Aurten Euskaltel izan dut babesle nagusi, baina ikusteko dago datorren denboraldian zelan ibiliko garen". Profesional mailako txapelketak ere babeslea aldatuko du: "Lauzpabost urte egon da Peugeot etxea torneo hori babesten, baina aurten utzi egingo du. Orain jakingo dugu zein den babesle berria, eta datorren urteko txapelketa zelakoa izango den".

**EUROPARI BEGIRA**

Azken urteotan baino txapelketa gutxiago jokatu ditu Mikel Galdosek: "Gaitza izan da erregulartasunari eustea, txapelketa batetik bestera denbora luzea igaro da-eta; aurreko urteotan gehiago jokatu izan dut. Aurten Europara joan ere ez naiz egin, eta hori egin gurako nuke datorren urtean, Europan jarduteko txartela ateratzea, alegia. Badakit, baina, gaitza izango dela".

Kontuak kontu, astelehenean bertan jakingo dugu Mikel Galdosen urteko azken txapelketa handiaren nondik norakoa. Andaluziatik itzultzerakoan jokatzen jarraituko badu ere, abendua eta urtarrila atseden hartzeko aprobetxatuko du, otsailera arte ez du-eta denboraldia hasiko. Lerro hauek irakurtzen dituzuenerako Galdos finalean murgilduta ibiliko da. Azkeneko txapelketan, Empordan (Girona), ez zuen lehenengo kanporaketa gainditu. Urteko ibilbidea ikusita, oraingoa ondo egitea tokatzen da.

**"Urte ona izan da finalean nagoelako; baina, inoiz baino irregularrago jokatu dut"**

**"Sevillatik laino baten gainean itzuli nintzen, baina berehala jaso nuen kolpea, Burgosen"**

**"Aurten ez dut Europan jokatu, eta datorren urtean hori izango da helburuetako bat"**



**DEFENTSA ETA ERASOA** Oñatin egindako txapelketan, karateka bi, Euskadiko txapelketarako sailkatzeko lehian. J.A.

**KARATEA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# karateka onenak hartuko ditu Labegaraietak

## Bihar egingo dute Bergaran Euskadiko Karate Txapelketa (16:30); ibarreko zortzi ordezkari sailkatu dira onenen artean lehiatzeko

**XABIER URTZELAI**> BERGARA

Bihar arratsaldean 200 karatekatik gora izango dira Labegaraietan lehian. Hala, orain dela hilabete inguru Oñatin egindako Gipuzkoako Txapelketaren errelebua hartuko du asteburuan Bergarak, Euskadiko Txapelketarekin. Kata eta kumite modalitateetan hiru kategoriatako karatekek jardungo dute.

Shotokan karate elkarteko Joxean Iñarrak esan digu ez dela erraza horrelako txapelketa bat antolatzea, normalean hiriburuetan egiten dituztelako, eta txapelketa bertatik bertara ikusteko gonbita egin du: "Zaleek orain momentuan Euskal Herrian dauden karateka onenak ikusi ahal izango dituzte, eta hemengo ordezkariei animuak emateko ere behar ditugu". Oñatiko txapelketan sailkatu ziren karateken zerrenda eman digu Iñarrak: "Arrasatetik Carlos Sanchez eta Jon Rodriguez etorriko dira. Bergaratik, berriz, Miren Laskurain, Unai Zabarte, Naiara Cantero, Andoni Conde, Aitziber Ferreiro eta Kepa Odriozola izango dira".

Karateka horiekin batera, Gorka Iglesias oñatiarra eta Jon Gantxegi bergararra ere sailkatu ziren. Lehenengoak gurago izan du aurten esku ez hartu, joan den urteko txapelketan kolpe txar bat hartu zuen-eta. Gantxegiri dagokionez, Giartzuko karateka azterketetan ibili da, eta ezin izan du txapelketa aurretik egiten duten entrenamendura joan. Hala, entrenatu barik egonda, gurago izan du txapelketan esku ez hartu.

**HAINBAT FABORITO**

Karateka mordoa egonda ere, Iñarrak baditu hainbat faborito: "Barakaldoko Santa Teresa elkarteak karateka mordoa ditu, eta baita Gasteizko Fitness eta Ying Yang elkartekoek ere".

**ATLETISMOA** > DONOSTIAKO 29. MARATOIA, DOMEKAN

# Donostiako maratoia, gero eta garrantzitsuagoa

## B mailako maratoi izendapena eman dio Atletismoko Federazio Internazionalak

**X.U.** > BERGARA

Antolatzaileek 2.300 korrikalari inguru espero dituzte domekako maratoirako (09:00). Eta, bi mila lagun pasatxo horien artean makinatxo bat debagoiendar izango da, tartean Bixente Pagaldai bergararra. Pagaldaik orain arte egin dituzten Donostiako maratoi guztietan hartu du esku; 28 ediziotan, alegia.

**LEHENGO IBILBIDEA EGINGO DUTE**

Berritasunen artean esan, aurtengo ediziorako ibilbidea aldatu egin dutela, eta aurreko errekorra lortu zen ibilbidera itzuli. Aldaketa horrekin, lasterketa bizkortu egin gura dute eta Donostiako maratoiaren errekorra gainditzeko aukera eman: 2:09:34 gizonezkoetan, eta 2:26:51 emakumezkoetan. Anoetan hasi eta amaituko dute lasterketa.

> ZIKLO-KROSA

### Ander Altube oñatiarra lehenengo izan zen Zornotzan

Zornotzan egindako Spiuk txapelketan nagusitu zen kadete mailako Ulmako ziklista (26:43).

> PILOTA

### Aitor Mendizabal antzuolarra DVko final-laurdenetan

Bihar arratsaldean jokatuko du Aitor Mendizabalek DV txapelketako final-laurdenetako bat. 17:00etan hasiko da partidua eta Lakuntzako Etxeberria izango du bikotekide.

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Lehenengo maila**
At.Madrid-Reala
Zapatua. 22:00. V. Calderon.

**Preferente maila**
Zestoa-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Zubiaurre.

Hondarribia-Mondra
Zapatua. 15:30. Ondartza.

Mutriku-Aretxabaleta
Domeka. 15:30. San Miguel.

**Lehen erregionala**
Tolosa-Bergara
Zapatua. 17:15. Usabal.

**Bigarren erregionala**
Mondra-Elgeta
Domeka. 15:30. Atxabalpe.

Antzuola-Aretxabaleta
Gaur. 19:30. Estala.

Urki-BTLS
Zapatua. 15:30. Unbe.

**Ohorezko mailako gazteak**
Herrerako Sport.-Aloña Men.
Zapatua. 15:30. Herrera.

Beti Gazte-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Lesaka.

Kostkas-Mondra
Zapatua. 17:15. Matigoxotegi.

**Ohorezko mailako gazteak. Kopa eta jaitsiera postuak**
Bergara-Sto. Tomas Lizeoa
Zapatua. 18:00. Ipintza.

**Lehen mailako gazteak**
Arrasate-Antzuola
Zapatua. 16:30. Atxabalpe.

Bergara-Ilintxa
Zapatua. 16:00. Ipintza.

Eibartarrak-Arizmendi Aretx.
Domeka. 12:30. Unbe.

**Ohorezko mailako kadeteak. Igoera fasea**
Ordizia-Bergara
Zapatua. 12:00. Altamira.

Arizmendi Aretx.-Eibar
Domeka. 11:30. Ibarra.

**Ohorezko mailako kadeteak. Kopa eta jaitsiera fasea**
Arrasate-Urola
Zapatua. 11:00. Atxabalpe.

Aloña Mendi-Herrerako Spo.
Zapatua. 11:30. Ibarra.

**Lehen mailako kadeteak**
Arizmendi Aretx.-Soraluze
Zapatua. 10:30. Ibarra.

Egoibar-Bergara
Domeka. 10:30. Mintxeta.

**Ohorezko mailako infantilak. Txapeldunen fasea**
Reala-Arizmendi Aretxabale.
Zapatua. 12:00. Zubieta.

**Ohorezko mailako infantilak. Kopa eta jaitsiera fasea**
Anaitasuna-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Azkoitia.

Elgoibar-Arrasate
Domeka. 12:15. Mintxeta.

**Lehen mailako infantilak**
Bergara-Eibartarrak
Domeka. 11:30. Ipintza.

**Infantil txikiak. Kopa**
Arizmendi Aretx.-Elgoibar
Zapatua. 12:15. Ibarra.

**Emakumezkoen Liga**
Arizmendi Aretx.-BTLS
Zapatua. 15:30. Eskoriatza.

Aloña Mendi-Mondra
Domeka. 11:00. Ibarra.

**Emakumezkoen F-8**
Arizmendi Arrasate-Ekintza
Zapatua. 09:30. Almen.

**Kadete emakumezkoak F11**
Lagun Onak-Aloña Mendi
Domeka. 10:00. Azpeitia.

Arizmendi Aretx.-Beasain
Zapatua. 12:45. Almen.

### ARETO FUTBOLA

**Euskadiko Liga**
R.Astraburuko-Eskoriatza
Zapatua. 18:30. Astrabudua.

**Lehenengo maila**
Bar Pari Berri-Aloña Mendi
Gaur. 21:30. Donibane Lohi.

**Hirugarren maila**
Zarautz-UDA Mercedes Goi.
Zapatua. 19:30. Antoniano.

**Gazteak**
Egintza-Aloña Mendi
Zapatua. 17:00. Billabona.

### SASKIBALOIA

**Lehen maila**
Askartza-Mugarri Alkesa
Zapatua. 18:00. Leioa.

**Gipuzkoako ligako senior maila (emakumezkoak)**
Andraitz-Eskoriatza KE
Zapatua. 16:00. Legazpia.

Aloña Mendi-Oiarso
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako ligako gazte maila (gizonezkoak)**
Mugarri Alkesa-Hernani
Zapatua. 10:00. Musakola.

Atco. Sn.Sn-Aloña Mendi
Gaur. 19:30. Donostia.

**Gipuzkoako ligako gazte maila (emakumezkoak)**
Internacional-Txirrita (Berg.)
Zapatua. 10:45. Donostia.

Antigua-Luberri-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Donostia.

**Gipuzkoako ligako kadete maila (gizonezkoak)**
Ford Mugarri-Easo Ibaia
Zapatua. 16:00. Arrasate.

Aloña Mendi-Internacional
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

Bergara-Oiarso
Domeka. 10:00. Bergara.

**Gipuzkoako ligako kadete maila (emakumezkoak)**
Easo Loyola-Eskoriatza
Zapatua. 12:15. Donostia.

**Infantil maila, mutilak**
LEK A-Arizmendi B
Zapatua. 10:30. Musakola.

Aloña Mendi-Amdraitz
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

Bergara-LEK B
Zapatua. 11:00. Bergara.

Arizmendi A-Bergara 93
Zapatua. 10:00. Musakola.

**Infantil maila, neskak**
LEK D- Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Musakola.

Andraitz-LEK B
Zapatua. 11:00. Legazpia.

### ESKUBALOIA

**Euskadiko Senior Maila**
Ford Mugarri-Tecni.Elgoibar
Zapatua. 17:30. Iturripe.

**Euskadiko preferentea**
Ermua-Verkol Aloña
Zapatua. 16:30. Ermua.

**Lehen territorial maila**
Ormaiztegi-Bergara
Zapatua. 18:00. Ormaizteg.

Usurbil-Arrasate Eskub.
Domeka. 11:15. Oiardo Kir.

**Gazte maila, gizonezk**
CD.Egia-Bergara
Domeka. 12:00. Donostia.

Aloña Mendi-Goierri OET
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

**Kadete maila, neskak, finaleko fasea**
Usurbil-Verkol Aloña
Zapatua. 16:15. Hernani.

**Federazio saria, emakumeak, gazte maila**
Verkol Aloña-Gasnalsa
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**Federazio saria, emakumeak, kadete maila**
Atxuri jatetxea-Arrasate
Zapatua. 16:00. Iturripe.

### ERRUGBIA

**Seniorrak**
Durango-Arrasate
Domeka. 12:30. Durango.

### PILOTA

**Bergarako Gabonetako sariko norgehiagokak**
Gaur. 19:30. Udal Pilotalekuan.
Zapatua. 18:30. Udal pilotalekuan.
Domeka. 11:00. Udal pilotalekua.

**Infantil mailako Gipuzkoako txapelketako norgehiagokak**
Zapatua. 16:30. Bergarako Udal Pilotalekua.
Eibar-Arrasateko III
Illunpe-Bergara I
Eskoriatza-Arrasateko I
Goierri-Bergara II..

**Santamas Txapelketako norgehiagokak**
Gaur. 19:00. Uarkapen.

**DV Txapelketako final laurdenak**
Zapatua. 17:00. Elgeta

### ARKU TIROKETA

**Ligako bigarren jardunaldia, Arrasaten**
Zapatua. 12:00. Musakola.

### KARATEA

**Euskadiko Txapelketa**
Zapatua. 16:30. Bergaran (Labegaraieta).



**Erregionaleko Mondrak Elgeta hartuko du Atxabalpen**
Mondrak kontrario gogorra izango du domekan, bigarren postuan dagoen Elgeta. Aretxabaletak, berriz, liderra hartuko du, Antzuola.

Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**

**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**BIDEO EKOIZPENAK**

**ISLADA MULTIMEDIA**
BERGARA / Telleria 17 A05 (Labegaraieta ind.)
T/F: 943 76 33 56
islada@isladamedia.com

**AHOLKULARITZAK**

**AIERDI AHOLKULARITZA**
BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

**ARKITEKTO TEKNIKOAK**

**DORLETA EGUIARA FDEZ-RIVERA**
ARRASATE / Arrasate Pasealekua 16 - 1D
T: 636 38 69 87 / 943 79 58 80
deguiara@yahoo.es

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

**JUAN MARI OSINAGA**
ARRASATE / Zerkaosteta 17, behea
T: 943 79 67 78
F: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

**ASEGURUAK**

**GOIENA ASEGURU ARTEKARITZA**
ARRASATE / Antso Abarca 6
T: 943 79 59 81
BERGARA / Zurradero 2
T: 943 76 97 65

**DISEINU GRAFIKOA**

**ISLADA MULTIMEDIA**
BERGARA / Telleria 17 A05 (Labegaraieta ind.)
T/F: 943 76 33 56
islada@isladamedia.com

**ETXE ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
URIBESALGO@telefonica.net

**GESTORIAK**

**EGUREN**
BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

**PROKURADOREAK**

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

# Gero eta haur gizen gehiago

Azterketek diote gizenak diren umeen %80 gizenak izango direla helduak direnean ere

Gero eta sarriago ohartarazten dute batzuek eta besteek haurren gizentasunaz. Datuek diotenez, gero eta haur gizen gehiago dago.

**ZERGATIAK**

Espainiako Osasun Ministerioak joan den urtean eman zituen datuen arabera, umeen gizentasuna, batez ere 6 eta 12 urte bitartekoena, %16,1 izan da, helduena baino puntu eta erdi handiagoa. Hain zuzen ere, datu horiek Europako herrialdeen sailkapeneko lehenengo postuetan jarri zuten Espainia.

Izan ere, aditu asko ari dira azkenaldian umeen gizentasunaren zergatien bila. Haien ustez, azken urteetan umeen elikaduran izan den aldaketak lotura zuzena du. Hain osasuntsua den *mediterraneo dieta* jarraitu beharrean, gizarteak gero eta gehiago jaten ditu prestatuta dauden elikagaiak eta janari lasterrak.

Ogitartekoak jan ordez opilak jaten ei dituzte ume askok. Baina goizetan umeek ez dutela behar bezala gosaltzen ere esaten dute adituek. Haien esanetan, ondo gosaltzea oso garrantzitsua da. Ikusi dute umeek goiz erdian zerbait jan behar dutela indarrak hartzeko, baina ondo gosalduz gero goiz erdiko jaki hori osasuntsuagoa izan daitekeela ikusi dute; fruta, esate baterako.

**ONDORIOAK ETA ERREMEDIOA**

Oso garrantzitsua da umeen gizentasuna zaintzea. Ikerketek diotenez, gizenak diren umeen %80 gizenak izango dira helduak direnean ere. Eta iragarpenek diote 2030ean Europako biztanleen %60 gizenak izango direla.

Era berean, jakinekoa da gizentasunak diabetesa, bihotz arazoak, eta abar sortzen dituela. Umeetan ere, gero eta gehiagok dute diabetesa.

Bada, gizentasuna kontrolatzeko lehen neurrietako bat elikadura zaintzea da eta kirola egitea da beste oinarrizko eginbehar bat. Umeetan ere garrantzitsua da kirola sustatzea. Horrek ez du esan gura goi mailako kirolariek beste kirol egin behar dutenik, baina telebista edo ordenagailuaren aurrean eserita eta geldi horrenbeste orduz egon beharrean, etxetik atera eta ibiltzea edo jolastea aholkatzen dute.



**KIROLA** Umeen elikadura zaintzea eta kirola egitea aholkatzen dute adituek.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK:

| | |
|---|---|
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Bergara | 943 77 91 67 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua



**> 'MARI MOTOTS'**
Pirritx eta Porrotx pailazoen ikuskizun berria zapatuan Eskoriatzan **> 45**



**> KOMUNIKAZIOA**
Xabier Madariaga EITBko berriemaileari elkarrizketa **> 52**

**> JON ANDUEZA**
Hirugarren Mailan lider dagoen Gernika futbol taldean ari da gazte bergararra; argazkilari lanetan ere ibiltzen da, ezkontzetan-eta erretratuak egiten **> 50**





**BETERANOAK** Zarzuela ikuskizunak egiten beteranoak ditugu dagoeneko Izaskun Murgia elkartekoak; argazkian, 2003an *Luis Fernanda* zarzuelan parte hartu zuen taldea. ARGAZKIA: MIKEL BALANTZATEGI

# Zarzuelaren ordua Arrasaten

'La leyenda del beso' zarzuelaren lau emanaldi izango dira Arrasaten

Izaskun Murgia elkartearen zazpigarren muntaia da; estreinaldia zapatuan da, Amaia antzokian

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren eskutik, *La leyenda del beso* zarzuela ikusteko aukera izango da oraingo eta hurrengo aste bukaeran Arrasateko Amaia antzokian. Izaskun Murgia elkarteko kideak martxoan hasi ziren ikuskizun berria prestatzen eta dena gertu dago biharko estreinaldirako. Zarzuela ikuskizunak ez dira oso ohikoak gaur egun Euskal Herrian: Gipuzkoan, esaterako, arrasatearrekin batera Donostiako Sasibil elkartea da horrelako muntaiak antolatzen dituen bakarra. Edozein modutan, Izaskun Murgiakoek zarzuela genero bizia dela erakusten dute urtero: sarrerak agortu izan dituzte aurrekoetan eta aurten ere badirudi beste horrenbeste gertatuko dela.

**ZAZPIGARREN MUNTAIA**

Esan bezala, dagoeneko ibilbide luzea daramate Izaskun Murgia elkarteko kideek. 2000. urtea ezkero, urtero eskaini izan dute zarzuelaren bat: *La tabernera del puerto* (2000), *Katiuska* (2001), *Los gavilanes* (2002), *Luisa Fernanda* (2003), *El huesped del sevillano* (2004) eta Guridiren *Baserria*, joan den urtean. Orain, Reveriano Soutullok eta Juan Vertek konposatutako *La leyenda del beso* zarzuelarekin datozkigu. Ikuskizunean 150 lagun inguruk hartzen dute parte, abeslariak, Arrasate Musikaleko musikariak eta dantzariak tartean.

**LAU EMANALDI**

Aurreko urteotan ikusleen partetik jasotako erantzunaren ildotik, zapatuko estreinaldiak ikusmin handia piztu du: sarrerak saltzen hasi ziren egunean jende ilara handiak izan ziren Amaia antzokiko leihatilan. Lau emanaldi iragarri dituzte: zapatuan eta domekan, 19:30ean, eta hurrengo aste bukaeran ere, abenduaren 1ean eta 2an. Sarrerak egunero eskuratu ahal izango dira Amaia antzokian, 18:30etik 20:30era. Emanaldi bakoitzeko 689 sarrera jarriko dituzte salgai antolatzaileek.

Orain, oihala altxatzea baino ez da falta, ijitoen musuen kondaira zertan den jakiteko.




**KARTELA** Mikel Balantzategik egindako kartela.

**Tere Gonzalez** > Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko presidentea

# "La leyenda del beso'-rekin ere ikuskizun duina egin nahi dugu"

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

**Santa Zezilia egunez izan ginen Tere Gonzalezekin berbetan; bronkitisarekin zebilen, baina zapatuko estreinaldirako ilusionatuta. Izaskun Murgia elkarteak prestatzen duen zazpigarren zarzuela izango da *La leyenda del beso*; "konplexua baina aldi berean ederra", Gonzalezen hitzetan.**

***La tabernera del puerto* 2000. urtean egin zenutenetik, ez duzue hutsik egin zarzuelaren hitzorduarekin.**

Bai. Guretzat guztiz motibagarria izan da ikusleen partetik jasotako erantzuna. Urte hauetan guztietan asko bultzatu gaituzte eta aurten ere hasierako asmoari eutsi nahi diogu: urtetik urtera hobetzea eta zarzuela ikuskizun duina egitea. Martxoa ezkero ari gara entseguak egiten eta espero dugu ikusle guztiek zarzuelarekin gozatzea.

**Zelako lana da *La leyenda del beso*?**

Ez da zarzuela oso ezaguna: Soutullok eta Vertek egindakoa da eta 1924an estreinatu zuten Madrilen. Lan konplexua eta aldi berean ederra da, muntatzeko orduan nahiko buruhauste eman dizkiguna. Konpasean, denboran... aldaketa dezente dauzka. Musika aldetik, zarzuelaren zati instrumental bat ezaguna da, Mocedades taldeak *Amor de hombre* kanturako erabili zuelako. Zati horretan, hain zuzen ere, Jon Aranbarrik eta Ana Fuentesek dantza klasikoa egingo dute, oso polita. Solistei dagokienez, nire ikasleak dira denak: Ruth Osinaga soprano dramatikoa, Enrike Altuna tenorea eta Mikel Balantzategi baritonoa. Hasieratik gurekin ari den Mikel Izurrategi tenore komikoarena egiten du; oso ondo gainera, betiko moduan. Eta eszena zuzendaria Mertxe Salaberri da.

**Zenbat lagunek hartzen duzue parte?**

150 lagun inguru izango gara: abesbatzan 50 bat, orkestran 40 lagun, 16 solista, sei dantzari... arropak egiten eta dekoratuekin lagundu digutenak... Lan handia eskatzen du horrelako muntaia batek.

**"Behin zarzuela ikusten duenak errepikatu egiten du eta Arrasaten tradizio handia dago"**

**Piztu duzuen ikusmina ere ez da nolanahikoa...**

Harrituta eta pozik gaude, bai. Sarrerak saltzen hasi zirenean sekulako jende ilarak egon ziren.

**Orain arte egindako lanetatik zein nabarmenduko zenuke?**

Beharbada iazkoa, *Baserria*, oso ezaguna delako eta gure musika delako. Baina denak izan dira politak, guztiekin gozatu dugu.

**Zarzuela genero bizia dela erakusten duzue urtero...**

Jende askok esaten du genero txikia dela, baina ez dutelako ezagutzen diote hori. Behin zarzuela ikusten duenak errepikatu egiten du. Arrasaten, gainera, tradizio handia egon da 1950eko hamarkada ezkero, Juan eta David Artzamendik Gurean zarzuelak egiten zituztenetik.

**Eta hurrengo urtean, zer?**

*El barberillo de Lavapiés* zarzuela egin nahi nuke, baina oraindik ez da ziurra. Hainbat gauza lotu behar ditugu aurretik.



Tere Gonzalez arrasatearra kantu irakaslea da. GOIENKARIA

taberna
TarTuFO
jatetxea
brgr

AZAROA

24an, ostiralean 23:30ean.

UNE (Sen eta Latzen-eko abeslari ohia)

FUZZ (Madril SUGARLESS ohiak)

4 €





ABENDUA

15ean, ostiralean 21:00etan.

**BERTSO AFARIA** Maialen Lujanbio eta Unai Iturriagarekin

**Menu: 32 euro**
Pikatzeko
Iberikoak + txorizoa sagardo erara + onddo pastela + arrain zopa
Bigarrena
Bakailaoa, legatza, entrekota edo bildotsa
Postrea + Ardo ondua

**Erreserbak: 943 76 35 51**

16an, zapatuan, 21:00etan
**Jostunen afaria**
**Dantza eta gizonezkoen stripteasea**

**Erreserbak: 943 76 35 51**

**Igande gauetan irekita**
**San Juan auzoa 35, 20570 Bergara (Gipuzkoa) • Tel.: 943-76 35 51**

**MUSIKA** > CRADLE OF FILTH ETA WASP

# Black metal eta heavy kontzertu entzutetsuak aste bukaeran Jamen

Ingalaterrako Cradle Of Filth seikotea black metal eszenako punta-puntako taldea da; 'Thomography' diskoa dakarte besapean, eta Bergarako Jam aretoan egingo dute aurkezpena



**JARRAITZAILE ASKO** Ingalaterrako Cradle Of Filthen eskaintzak jarraitzaile ugari ditu. GOIENKARIA

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

Aste bukaeran bada zer ikusi eta zer entzun Bergarako Jam aretoan. Gaur, egubakoitza, black metal estiloaren errege Cradle Of Filth arituko dira. Talde hori Ingalaterran sortu zuten 1991n. Hasieran black metal gordinagoa egiten zuten arren, poliki-poliki teklatuak batu eta bestelako doinuak lantzen hasi ziren. Bira honetan *Thomography* lana aurkezten dihardute. Hain zuzen ere, kontzertua 21:00etan izango da eta sarrerak agortzear egongo dira. Txarteldegian 27 eurotan salduko dituzte sarrerak.

**DOMEKAN, WASP**

Wasp talde heavy probokatzailea, berriz, 1982an sortu zuten Los Angelesen. Blackie Lawless polemikoak gidatuta, dozenaka disko kaleratu dituzte. Domekan, hilaren 26an, izango dira Jam aretoan, 21:00etan.

**IKUSKIZUNA** > PIRRITX ETA PORROTXEN IKUSKIZUN BERRIA

# Pirritx eta Porrotxen 'Mari Motots' ikuskizuna Eskoriatzako kiroldegian

'Mari Motots' ikuskizunean pobrezia eta lurra izango dituzte berbagai pailazoek

**I.B.** > ESKORIATZA

Bihar, zapatua, Pirritx eta Porrotx pailazoek *Mari Motots* ikuskizunaren estreinaldia egingo dute Eskoriatzako kiroldegian. Ikuskizuna 17:30ean izango da, baina dagoeneko ez dago sarrerarik eskuragarri.

Ikuskizun horretan gure inguruko parke baten bizi diren emakume baten eta alabaren istorioa kontatuko digute. Alabak Mari Motots du izena eta biak dira jolaslekuaren zaindariak. Parkeko zakarrontzi handia da haien etxea, eta jendeak botatzen duenetik jaten dute eta janzten dira.

**POBREZIA ETA LURRA**

Pirritx eta Porrotx pailazoak ikuskizun guztietan saiatzen dira gaurkotasun handia duten gaiak mahai gainean jartzen. Ikuskizun horretan, adibidez, pailazoek lurraren eta pobreziaren gaiak landuko dituzte.



**LAGUN BERRIA** Pirritx eta Porrotx Mari Mototsekin. GOIENKARIA

DANBAKA

## Publikoaren Saria

Hemen, orain arteko sailkapena. Bozkatzeko hiru aukera daude: *danbaka.com* webgunean; SMS bidez: danbaka [laga tartea] taldearen izena eta bidali 5767 zenbakira. SMSaren kostua 1,20 euro+BEZ. Eta Espaloian jarritako kutxetan.

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | DRAKES | OÑATI | Botoen %21,70 |
| 2 | KLAKSON | ANTZUOLA-ZUMARRAGA | Botoen %15,76 |
| 3 | ABY-KEM | BERGARA | Botoen %9,58 |
| 4 | ANAL BAG | ARRASATE | Botoen %7,89 |
| 5 | RAUL LASA | ARRASATE | Botoen %7,71 |
| 6 | SCAM | BERGARA | Botoen %7,10 |
| 7 | UNNËA | OÑATI | Botoen %6,65 |
| 8 | THE 5 TWISTERS | ARRASATE | Botoen %5,94 |
| 9 | BELCEBLUES | BERGARA | Botoen %2,98 |
| 10 | OZEN | ARRASATE | Botoen %2,40 |
| 11 | IGOR | ARETXABALETA | Botoen %2,37 |
| 12 | MALENKONIA | OÑATI | Botoen %2,16 |
| 13 | LITTLE, LITTLE, MUCH | ARRASATE | Botoen %1,71 |
| 14 | YOTOX | BERGARA | Botoen %1,50 |
| 15 | MATX | ELGETA | Botoen %1,45 |
| 16 | LOS CRETINOS | ARRASATE | Botoen %1,34 |
| 17 | MAHASTER RIVER | BERGARA | Botoen %0,97 |
| 18 | AZKAITER PELOX | BERGARA | Botoen %0,44 |
| 19 | JIM TNT & AMAIA | ARRASATE | Botoen %0,15 |
| 20 | INALECTRIK | ARETXABALETA | Botoen %0,10 |

DANBAKA



INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
- S. Antonio 50 m². Berritua.
- Duplexa Ortuibar. Oso ondo.
- Masterreka 92 m². Ondo.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- Angiozar. Bi solairu. Berritzeko.
- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- San Pedro 65 m². Prezio ona.
- Martoko 83 m². Prezio ona.
- Simon Arrieta 80 m² Berritzeko.
- Ibargarai 87 m². Oso ondo.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Osintxu 95 m². Prezio ona.
- Zubiaurre 65 m². Oso ondo.

***Etxebizitza berrien eraikuntza San Lorentzon.2-3 logela, duplex-ak. Prezio ezin hobea.***

Elgeta:
- Etxebizitza berrien erainkuntza, 2-3 logela. Duplex-ak, garajea, terraza. Bista politak.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA:
- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Oso ondo.
- Bolu 100 m2. Ondo.
- Duplex berria. 72 m² + 34 m².
- Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
- Artekale 70 m². Oso ondo.
- Masterreka duplexa 170 m2.
- Zabalotegi 80 m². Oso ondo.
- Masterreka 79 m². Ondo.
- Artekale 74 m². Ondo.
- Angiozar bi solairuko etxea. Berritzeko.
- Masterreka 87 m². Oso ondo.
- Ibargarai 80 m². Ondo.
- Fraiskozuri 102 . Ondo.
- Arrizuri 97 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 62 m². Ondo.
- Mugertza. Duplex berria.
- Martoko 93 m². Berrituta.
- **San Lorentzon 18 etxebizitza berri. Garajea eta trastelekuarekin.**

ANTZUOLA:
- Duplex berria erdialdean.
- Sagasti 71 m². Ondo.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

## 943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Garbi S.L.

**PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.**

**649 84 67 09 (BERGARA)**
**943 33 18 37 (HERNANI)**

BERGARA

**Duplex berria eta garaje itxia salgai.**
**699 49 14 14**

DHL EXPRESS

enpresak Bergarako delegaziorako behar ditu:

**Gidari autonomoak**

(erref.: Autonomoak)

**Eskatzen da:**
- Garraio txartela izatea
- Lanaldi osoa / Esklusibotasuna
- Gipuzkoako probintzia ezagutzea
- Ibilgailua: 3.500 kiloko karga erabilgarria edo handiagoa

Interesatuok bidali zuen datuak honako helbidera, "Autonomoak" erreferentziarekin: DHL Express Donostia, Fernando Muxika kalea. Belartza industrialdea, 20018 Donostia,GIPUZKOA.
Edo honako telefonora deitu:
943-33 54 60

Alfa
INMOBILIARIA HIPOTECAS
Parrokia ondoan
Tel.: 943 77 19 19 / 677 49 89 89

ARRASATE:
- S. Josepe. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, 25 m2-ko ganbara.
- Erguin. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna
- Erguin. 3 logela, egongela,sukalde, komun berritua.Kalitate ezin hobea.
- Makatxena. 3 logela, egongela, jangela, komuna, ganbara.
- S. Teresa. 3 logela,egongela, sukalde, komuna, sotoa, berogailua, leihoak.
- S. Teresa. 3 logela, egongela, sukalde,, komuna, sotoa.Oso eguzkitsua

ARETXABALETA
- Etxebiitza zoragarria lursailarekin.
- Marlole. Duplex paregabea, garajea, sotoa, trastelekua.
- Portasol. 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela.

ESKORIATZA
- Baserri zoragarria. 7000 m2-ko lursaila.450,760 €

LEKEITIO
- 2 baserri zoragarri eraiki berriak.

BERGARA

**IPARPROYECT enpresan NESKA behar da. AUTOCAD ezagutzak eta dekorazio ikasketak (edo antzerakoak) izan behar ditu.**
**943 76 98 30**

BERGARA

**Arraindegi batean lan egiteko pertsona bat behar da. Euskaraz jakitea beharrezkoa da.**
**607 66 02 44**

ARRASATE

**Zerbitzaria behar da jatetxe batean aste bukaeretan lan egiteko.**
**618 62 79 88**
(Ainhoa)

BERGARA

**Azokarako saltzailea behar da.**
**685 73 51 64**
(Raquel)

ARETXABALETA

**Taberna-jatetxea errentan ematen da edo saltzen da. Menu fijoak.**
**943 77 21 24**
**696 02 42 10**

DEBAGOIENA

**Janari prestatuen denda batek sukaldari laguntzailea behar du.**
**675 70 82 36**

BERGARA

**Haur parkea eskualdatzen da.**
**943 76 94 52**

ARETXABALETA

**Bodega Riojana esku aldatzen da.**
**Prezioa: 42.000 €**
**Kontratua: 2014 arte**
**600 09 19 59**
**(21:00etatik 23:00etara)**

ANGIOZAR

**Ortzi erretegia alokatu egiten da.**
**943 78 22 80**
**665 72 24 46**

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Duplexa salgai Sagasti Auzoan. Eraikin berria. Garaje handia. 666 72 47 12.

**Antzuola.** Bi logela, egongela, bainugela, sukaldea eta balkoia. Dena kanpoaldera. Eguzkitsua. Jantzia. Prezio interesgarria. 679 52 65 95.

**Aramaio.** Etxea salgai. Hiru logela. 90 m2. Trasteleku eta ganbara handiak. 692 70 42 71.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai Markole kalean. 97 metro koadro. 649 66 49 70.

**Aretxabaleta.** Luxuzko txaleta salgai Duranan. Ordaintzeko erraztasunak. 657 79 81 78.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Otalora 2an. Azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun, bizitzera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

**Arrasate.** Apartamentu berria herri erdi-erdian. Egongela, sukaldea, logela bat, bainua, trastelekua, igogailua, berogailua. Oso polita. Deitu 16:00etatik aurrera. 670 55 87 41.

**Arrasate.** Etxea salgai Zerrajera kalean. 110 m2. 529.000 euro. 943 03 78 52.

**Arrasate.** Izarra dorrean. Hiru logela, sukaldea eta egongela. Berehala bizitzera joateko gertu. 630 07 07 27.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Zerrajera kalean. Hirugarren solairua. 97,5 metro koadro. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea jantzita eta hiru balkoi. Garaje itxiarekin. 605 77 58 64.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai, erdialdean. 82 metro koadro ditu: 3 logela, bi komun, egongela eta komuna. Berritua eta eguzkitsua. 637 83 18 47.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai; hiru gela ditu eta igogailua. Jantzita dago. Ferixalekuan. 943 79 60 88.

**Arrasate.** Uribarrin etxebizitza salgai. 92 m2, lau logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, bi terraza eta trastelekua. Ia dena kanpoaldera. 635 72 15 26.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdialdean. Hiru logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Dena kanpoaldera, ikuspegi onekin. Solairu altua, igogailuarekin. 620 18 59 06.

**Bergara.** Herri erdialdean etxebizitza salgai. 60 metro koadro. Bi logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. Igogailuarekin. 649 63 11 74.

**Bergara.** Matxiategi kalean dago; 60 m2 ditu, sukaldea (jantzita), egongela, bi logela, komuna, berogailua, igogailua eta trastelekua. 943 76 34 80 edo 636 01 60 95.

**Bergara.** Osintxun etxebizitza salgai. 95 metro koadro. Berogailua eta igogailua ditu. Garaje itxia eta trastelekua. Egoera oso onean. Prezio interesgarria. 656 74 78 80.

**Bergara.** Poligonoan etxebizitza salgai. Dena berrituta. Prezio onean. 943 03 75 88.

**Bergara.** Zabalotegin 50 m2-ko etxebizitza salgai. Bi logela eta komun bat. Berrituta. 14 m2-ko sotoa. 635 72 67 11.

**Elgeta.** Bigarren solairua. Igogailua, bi logela, komun bat eta ganbara. 946 81 71 97 edo 645 71 76 25.

**Elgeta.** Etxebizitza salgai. Hiru lokela, sukaldea eta komuna ditu, baita igogailua ere. Aukera ona da. 645 71 76 25.

**Oñati.** 86 m2, Bidebarrietan, hiru logela, sukaldea, egongela, bi bainugela, ganbara eta garajea. 635 73 08 86.

**Oñati.** Arantzazuko Ama kalean. 70 m2. Bi logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea, baita ganbara ere. Gauez deitu. 943 71 62 58.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Bidebarrieta kalean. Eraiki berria. Bi logela, egongela, jangela, sukalde eta komuna (beste logela bat egiteko aukera), balkoi handia ikuspegi ederrarekin. Guztiz jantzita. Garajea aukeran. 600 90 74 87 edo 665 71 87 86.

**Oñati.** San Lorentzon apartamentua salgai. Bi logela, saloi-sukaldea, komuna eta terraza handia. Garajea aukeran. 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

**Oñati.** Zubillaga auzoan etxebizitza salgai. 115 m2. Hiru logela, egongela, bainugela, sukaldea, bi trasteleku eta ganbara. Bizitzera joateko jantzia edo erdi jantzia. 678 72 79 63.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Arrasate pasealekuan 90 m2-ko etxebizitza emango nuke errentan. 690 72 24 18.

**Arrasate.** San Andres auzoan terrazadun apartamendua. 696 72 27 00.

**Vera (Almeria).** Apartamentua ematen da errentan naturistagune baten. Jantzita (TB, garbigailua, mikrouhin-labea...). Igerilekua. 657 73 94 25.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Hiru gaztek etxea hartuko lukete errentan. 943 53 28 67.

**Arrasate** edo Aretxabaletan bi langile epe luzerako etxea errentan hartzeko prest. Telefonoa: 685 73 67 54.

**Arrasaten.** Estudio edo etxebizitza txiki bat errentan hartuko nuke. 690 06 36 20.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasaten.** Logela bat errentan hartuko nuke. 609 06 36 20.

**Tuteran** logela bat dut alokagai kurtso osorako. Telefonoa: 669 97 91 31.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Antzuola.** Garajea salgai edo errentan emateko Kalegoian. 666 44 10 09.

**Arrasate.** Garaje plaza salgai (14 m2) Usaetxe plazan. Telefonoa: 665 71 40 34.

**Bergara.** Garaje itxia salgai Ibai Ondon. 943 76 40 62.

**Bergara.** Garajea salgai Ibargarai 37an. 943 76 18 82.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** Sagastin garajea. 650 55 44 98.

**Aramaio.** Garajea alokatzen da. 945 44 51 97.

**Arrasate.** Garaje itxi eta berria emango nuke errentan Legargain kalean, Gelmako aldapa eta Zigorrola arteko etxe berrietan. 635 73 17 39.

**Arrasate.** Bi autorendako garajea alokagai daukat Obenerrekan. 21:00etatik 22:00etara bitartean deitu. 943 79 69 41.

**Arrasate.** Garajea emango nuke errentan Zerrajeran. 24 metro koadro. Auto handi batendako eta trastelekurako tokia du. 690 72 24 18.

**Arrasate.** Garajea errentan Zigorrolan. 629 42 26 54.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Garaje itxia hartuko nuke errentan herri erdialdean. Telefonoa: 636 52 32 57 edo 628 29 80 51.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Eskoriatza.** Bi etxabe salgai dauzkat. Bata 95 metro koadrokoa eta bestea 60 metro koadrokoa. Udalak baimenduta dauka horietan etxebizitzak egitea. 636 57 76 13.

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Bulegoak alokagai Otaloran 18an, Uarkapeko arkupeetan. 638 17 93 63.

### 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** 16 urteko gazte koadrila batek lokala hartuko luke errentan; ahal bada, merke. 653 71 53 91.

**Oñati.** 22 urteko neska koadrila batek lokala alokatuko luke; merkea bada, hobe. Telefonoa: 618 09 47 87.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Zerbitzari bat behar da tabernan lan egiteko. Telefonoa: 667 53 08 16.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate eta Bergara.** Neska bat prest dago umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko. Baita garbitasun lanak egiteko ere. 679 38 44 37.

**Arrasate.** Emakume arduratsua aste bukaeretan lan egiteko gertu. 659 12 42 25.

**Arrasaten** astean zehar zerbitzari lanak egiteko neska gertu. 653 73 45 84.

**Bergara.** Emakumea gertu atariak garbitzeko edota sukaldean laguntzeko. 12:30etik 18:30era egingo nuke lan. 696 84 19 51.

**Bergara.** Emakumea gertu umeak edo adinekoak zaintzeko. Baita garbiketa lanak egiteko ere. 679 38 44 37.

**Bergara.** Esperientzia duen emakumea lan bila dabil, pertsona nagusiak zaintzeko, umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Goizez 13:00ak arte edo gauez egingo luke lan. 610 95 81 16.

**Bergara.** Irakasle ikasketak egiten dabilen neska umeak zaintzeko gertu. 626 73 38 79.

**Debagoiena.** 20 urteko ikasle batek tabernan edo beste zerbaitetan, arratsaldeetan, lan egingo luke. 669 17 09 51.

**Debagoiena.** Emakumea gertu adinekoak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Esperientziaduna. Luisa. Telefonoa: 628 82 96 56.

**Debagoiena.** Emakumea lan egiteko gertu: etxeak garbitu edo fabrikan jarduteko (garbiketa lanetan edo bestelakoetan). Autoa du. 676 62 02 74.

**Debagoiena.** Emakumezkoa, arduratsua eta langilea sukaldean laguntzaile bezala lana egiteko prest. Deitu telefono honetara: 943 53 29 18

**Debagoiena.** Neska arduratsua prest dago garbiketa eta zerbitzari lanak egiteko. Baita haurrak zaintzeko ere. Telefonoa: 605 71 28 96.

**Emakume gazte** batek lanerako gertu. Ostalaritzan edo baita beste edozein lanetarako ere. deitu telefono honetara: 635 70 31 01.

**Oñati.** Neska gaztea gertu arratsaldeetan haurrak zaintzeko. 652 71 52 50.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** 10 urteko ikasle batek irakaslea behar du eskola partikularrak jasotzeko. 943 76 21 79 edo 658 70 73 17.

**Bergara.** Kontabilitateko eskolak jasoko nituzke. 649 57 12 97.

**Goi mailako** mekanizatuko modulua egiten ari naiz eta eskola partikularrak behar ditut. Aretxabaletan, Eskoriatzan edo Arrasaten. 943 79 16 24.

**Mekanizatu ekoizpena.** Mekanizatu bidezko ekoizpeneko goimoduluko eskolak behar ditut (mekanika, zirkuitu hidraulikoak...). 664 76 76 87.

### 502. EMAN

**LH, DBH** eta Batxilergoko ikasleei eskola partikularrak emateko neska gertu. 653 73 45 84.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**AUDI A4.** 1.9 TDI, diesela, 1999koa, 5 ate. Oso egoera onean. 667 61 74 43.

**BMW 320** coupe E36. Gehigarriak. 659 04 20 99.

**California 2.4.** Diesela, 1994koa. CD-MP3a, komun kimikoa. 667 61 74 43.

**Citroen Xsara** salgai. 1600 VTS. 2001. urtekoa. 90.000 km. Laranja kolorekoa. 615 79 79 21.

**Fiat Tipo**. Bigarren eskukoa da. 400 euro. 680 98 60 15.

**Honda XR 650 R** motorra salgai. 7.500 km, egoera oso onean. 3.900 euro. 665 71 42 69.

**Peugeot 306** XSDT salgai. 1.9 turbo diesela. 1997. urte bukaerako modeloa. Oso ondo zainduta eta egoera onean. 2.900 euro. 677 98 42 98.

**Peugeot 806** autoa salgai. 6.000 euro. 605 72 17 34.

**Peugeot 806** Port Aventura 2.0 HDI. 636 85 74 43.

**Peugeot Elyseo** 50 Scooter motorra salgai. Egoera onean. 657 73 93 82.

**Seat 127** salgai. Egoera onean. 943 76 46 90.

**Seat Ibiza.** 110 ZP TDI Sport. 5 urte eta 103.000 km. Gurpulazal berriak, jarri eta kentzeko lotura-bola, goiko parrilla eta CD kargadorea barne. 7.500 euro. 649 27 38 18.

**Seat Ibiza** 1.4. Ondo dago. 6 urte. 30.000 km. Beti garajean. 4.500 euro. 670 49 62 19.

**Volkswagen California** 2.4 salgai. 1992koa. 9.000 euro. Jon. 665 73 39 55.

**Volkswagen Golf** GTI salgai, SS-AG matrikuladuna, oso egoera onean. 1.500 euro. Telefonoa: 669 08 42 35.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Txerri** gizena salgai. Telefonoa: 943 79 16 73.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Bergara.** Hektarea bateko pinudia salgai (10.000 metro koadro). 678 72 75 72.

**Bizikleta.** Orbea Country modeloa. Erabili gabea, zozketa baten irabazia. 200 euro.Errepideko bizikleta ere saltzen dut, Mendiz Columbus Genius koadroa. Egoera onean. Zapatilak opari egiten ditut (42 zenbakia). 300 euro. 943 79 59 34.

**Bulegoko altzariak** salgai. Mahaia eta hiru aulki. Egoera onean. Merke. 676 61 70 55.

**Gurpildun maleta** salgai. Bi pertsonen gauzendako lekua dauka. 40 euro. Deitu telefonoa: 943 79 68 18.

**Hozkailua** eta arropa-garbigailua salgai. 629 40 74 37.

**Ile-apainketa** tresneria salgai. Egoera onean. 943 78 61 92.

**Intxaur** ekologikoak salgai. 943 78 61 92 edo 943 76 64 65.

**Margoa.** Arenaza pintoreak margotutako koadroa. Ferrerias kalea. 300 euro. 943 79 59 34.

**Bi urte** dituen kanape ohea eta koltxoia salgai. 1,50x1,90. 740 euro. 653 74 91 23.

**Ontzi** garbigalua, hozkailu industriala, kutxatzarra eta sukalde industriala salgai. 943 79 86 46.

**Snowtaula.** 1,57 metro luze. Gama altua. Finkapenak ditu. Ia berria. 290 euro. 667 56 13 24.

**Sofa** salgai. Ohe bihurtzen da. Telefonoa: 676 61 70 55.

**Tabernako kristalezko** ontziak, kafe-makina, mahai-zapiak, ahozapiak eta katiluak salgai. 943 76 60 94.

**TDT deskodetzailea** salgai. Berria. 60 euro. 943 79 68 18.

**Trikitia** salgai, bigarren eskukoa. 1.200 euro. Beltza. Dinno Vafety markakoa. 659 00 08 23.

### 806. GALDU

**Bergara.** Urte eta erdiko umea mendira eramateko motxila ona erosiko nuke. 652 72 32 81.

**Bigarren** eskuko ordenagailua erosiko nuke. 605 71 71 62.

### 806. GALDU

**Larruzko** jaka gorria galdu dut. Mesedez, deitu. 662 14 56 52.

**Poltsikoko** telefonoa galdu nuen zapatuan Arrasaten, Zarugalde eta Bizkaia etorbidea aldean. Nokia 6280 telefonoa da. 943 79 99 45 edo 617 11 82 13.

### 808. BESTELAKOAK

**Bergara.** Hektarea bateko pinudia salgai Bergaran. 678 72 75 72.

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Mutila.** 27 urte. Mendia eta eskalatzea gustatzen zait. Neska bat ezagutu nahi du. 666 08 84 75.



**Jose Lazkano** eta **Maria Jesus Perez** bergararrak 1956ko azaroaren 22an ezkondu ziren Bergaran. Urrezko ezteien ospakizuna Arteagako gazteluan egin zuten senideekin. Familiakoen partetik, muxu handi bana eta zorionak!



**Vicente Lete** eta **Purita Garaikoetxea** osintxuarrek urrezko ezteiak ospatuko dituzte azaroaren 25ean. Arantzazuko Santutegian meza izango dute eta ondoren bazkaria Zelai-Zabal jatetxean. Zorionak eta muxu handi bana, familiaren partetik!



**Jose Mari Guridi** eta **Arantza Elortza** 1956ko azaroaren 24an ezkondu ziren Aretxabaletan. Urrezko ezteiak azaroaren 25ean, zapatuan, ospatuko dituzte familiarteko bazkaria eginda. Zorionak, bikote, eta muxu handi bana Guridi familiaren partetik.

## hildakoak

- **Jesus Eguren Bengoa.** Bergaran, azaroaren 18an. 61 urte.
- **Bernardino Lasa Oria.** Arrasaten, azaroaren 18an. 82 urte.
- **Inazio Txintxurreta Etxebarriarteun.** Arrasaten, 18an. 70 urte.
- **Amaia Mendizabal Zubiate.** Elgetan, azaroaren 20an. 58 urte.
- **Vicente Davila Rajado.** Arrasaten, azaroaren 20an. 84 urte.
- **Jose Maria Gorroño Arregi.** Aretxabaletan, azaroaren 21ean. 87 urte.
- **Javier Iturbe Alberdi.** Aretxabaletan, azaroaren 21ean. 79 urte.



**Julian Aiastui** eta **Ramoni Aretxaga** bergararrak 1955eko azaroaren 26an ezkondu ziren Bergarako San Pedro elizan. Familia osoaren partetik, muxu handi bana eta gure zorionik beroenak, bikote!



**Patxi Arexolaleiba** eta **Miren Urizar** Arrasaten bizi diren aramaioarrak ezkondu zirela 50 urte beteko dira gaur, egubakoitza. Zapatuan egingo dute urrezko ezteien ospakizuna. Familiakoen partetik, zorionak, bikote eta muxu handi bana.

---

URTEURRENA

## Mariano Aiastui Biteri



Lehen urteurreneko meza
zapatuan, azaroaren 25ean,
19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

---

ESKER ONA

## Begoña Berriozabal Larrañaga

Cipri Muruamendiarazen alarguna

Gasteizen hil zen 2006ko azaroaren 13an, 80 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2006ko azaroaren 24an.

---

ESKER ONA

## Iñaki Txintxurreta Etxebarriarteun

Arrasaten hil zen 2006ko azaroaren 18an, 70 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2006ko azaroaren 24an.

---

URTEURRENA

## Maria Josefa Eskibel Larrañaga



Bigarren urteurreneko meza
domekan, azaroaren 26an,
12:30ean,
Eskoriatzako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

---

URTEURRENA

## Juan Antonio Yarza Mendiaraz



Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroaren 26an,
11:30ean,
Antzuolako Errukizko Amaren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

---

URTEURRENA

## Aita Migel Lete Aldai

Marianista apaiza



Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroaren 26an,
13:00etan,
Aretxabaletako Arkarazo auzoko parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

---

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 01**

**Eskelaren prezioa: 85 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

**Goienkaria: astero, 19.500 etxetan.**



---

URTEURRENA

## Milagros Elortza Leturia



Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroaren 26an,
11:30ean,
Antzuolako Errukizko Amaren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

---

MEZA

## Sor Maria Murgizu Txintxurreta

Domingotar moja

Barañainen hil zen 2006ko azaroaren 2an, 86 urte zituela.



Haren arimaren aldeko meza domekan,
azaroaren 26an, 10:00etan,
Uzarragako San Juan Bautista elizan.
Bertaratuko zaretenoi, aldez aurretik
eskerrik asko sendikoen izenean.

Antzuolan, 2006ko azaroaren 24an.

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Borragoma / Kontsonantea ez dena
Gainerako / Kafea hartzeko ontzia
Garaua, bihia / Aranoko auzoa
Harrituta / Jaka mota
Asaba / Nafarroako ibaia
Beldurti, ikarati / Altuak, garaiak
Infin, aisatu / Arabako Kontsumitzaileen Elkartea
Argazkiko mendia / Haragitarako abere
Euskal Artisten Elkartea
Energia / Estralurtar famatua
Pilota jokoan jartzea / Lokarri sendoa
Suari dariona / Boroa
Salto, jaiki

GOIENKARIA



## umore giroan

**Kike Amonarriz**

**Zaharra**

Egin kontu!

Gizon hura hain zen zaharra! Espermatozoideak izan beharrean, espermatosauruak zituen.

**Galtzerdien begiak**

Edurnek galtzerdi berriak erosi dizkio Gorkari bere urtebetetze egunerako. Etxera joan eta Gorka komunetik biluzik eta galtzerdiak jantzita atera da:

- Edurne, izugarri gustatu zaizkit galtzerdiak. Pentsa zein politak diren nire isipua ere beraiei begira dagoela.

- Aizu, bada bihar bertan kapela berri bat erosiko dizut!

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | 3 | 1 | 7 | | 4 | | | |
| 7 | | 6 | | | 2 | | | |
| 8 | | | | | 1 | | | |
| | | | 6 | | | 7 | | |
| | 9 | | | 1 | | | 4 | |
| | | 3 | | | 5 | | | |
| | | | 9 | | | | | 4 |
| | | | 1 | | | 8 | | 5 |
| | | | 3 | | 8 | 9 | 1 | 7 |

## hieroglifoa

Galduak gara!

Artenbide
Ertenbide
Ortenbide
Urtenbide

## hizki salda

5 hegaztiren izenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | Z | E | H | U | A | I | J | Z |
| N | U | B | O | S | R | K | A | L |
| D | E | E | I | M | R | I | R | U |
| A | N | L | A | R | A | O | I | G |
| R | A | E | H | L | N | E | N | U |
| T | S | A | O | Z | O | Z | D | S |
| O | N | G | O | E | A | I | O | O |
| D | E | Z | A | B | T | O | T | A |
| D | I | E | N | A | R | A | T | Z |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | G | ■ | G | ■ | H |
| | | | B | O | K | A | L | A |
| | | | ■ | M | I | R | A | Z |
| ■ | A | ■ | K | A | K | A | T | I |
| A | R | G | A | ■ | A | I | S | A |
| ■ | B | A | S | A | R | T | E | ■ |
| H | A | R | A | K | A | I | ■ | E |
| ■ | S | A | K | E | ■ | K | E | A |
| S | O | K | A | ■ | B | O | T | E |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | 3 | 1 | 7 | 6 | 4 | 5 | 8 | 9 |
| 7 | 5 | 6 | 8 | 3 | 2 | 4 | 9 | 1 |
| 8 | 4 | 9 | 5 | 6 | 1 | 3 | 7 | 2 |
| 1 | 2 | 4 | 6 | 8 | 9 | 7 | 5 | 3 |
| 5 | 9 | 7 | 2 | 1 | 3 | 6 | 4 | 8 |
| 9 | 8 | 3 | 4 | 7 | 5 | 1 | 2 | 6 |
| 3 | 1 | 8 | 9 | 5 | 7 | 2 | 6 | 4 |
| 6 | 7 | 2 | 1 | 4 | 9 | 8 | 3 | 5 |
| 4 | 6 | 5 | 3 | 2 | 8 | 9 | 1 | 7 |

**Jeroglifikoa:** ez dago irtenbiderik

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | Z | E | H | U | A | I | J | Z |
| N | U | B | O | S | R | K | A | L |
| D | E | E | I | M | R | I | R | U |
| A | N | L | A | R | A | O | I | G |
| R | A | E | H | L | N | E | N | U |
| T | S | A | O | Z | O | Z | D | S |
| O | N | G | O | E | A | I | O | O |
| D | E | Z | A | B | T | O | T | A |
| D | I | E | N | A | R | A | T | Z |

## bono fotoa



**Argazkilariaren eta kanpandorrearen artean zuhaizti elurtu bat ageri da. Oñatiko zein etxe famatutan aurkitu ditzakegu zuhaitz ederrok?**

**Argazkia eta galdera** > Iñigo Biain

Super BM

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

**ERANTZUNA** ..........

IZEN-DEITURAK ..........
TELEFONOA ..........

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Mendisol ekilore-olioa**
litroko botila
**0,79 €** 131 pta.
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**
**PILAR IRASUEGI**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
**Galderaren erantzun zuzena: Artzamendi.**


Maibi
Etxeko Ehungintza eta Dekorazioa
Oñati
Aste Berezia
%15-eko Deskontuak
Azaroak 27-tik Abenduak 2-ra
Mendiko-kale 2 • Tel.: 943 78 14 80 • maibiarregi@euskalnet.net


DANBAKA
JIM TNT
ARRASATE
RAUL LASA
ARRASATE
UNNËA
OÑATI
SCAM
ARETXABALETA
4. KONTZERTUA
ABENDUAK
1
Egubakoitza | 22:30
Elgetako Kafe Antzokia
KAMISETAK SALGAI!
INFORMAZIO + www.danbaka.com
gaztekutxa
Goiena
Elgetako Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
espaloia
IRUDI SPORT
ASTORE
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GOIENKARIA
2006ko azaroaren 24a

**Jon Andueza** > Irakaslea, argazkilaria, futbol jokalaria...

# "Erretratuak egiteko ederra da Sahara, baina errefuxiatu bizi izateko, ez"

Gasteiz, Bergara eta Gernika artean igarotzen du Jon Anduezak (Bergara, 1980) astea. Izan ere, Arabako hiriburuan egiten du lan, irakasle; eta arratsaldeetan, berriz, Gernikara joaten da, Hirugarren Mailan lider dagoen futbol taldean jokatzera. Horrekin batera, argazkilari lanetan ere ibiltzen da, ezkontzetan eta bestelakoetan erretratuak egiten.

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

**Gasteiztik iritsi berri dela aprobetxatuta, entrenatzera joan aurretik izan gara Jonekin berbetan. Bergarakoak gustura erantzun ditu galderok, baina argazki kamera aurrean ez da horren eroso ibili, kamera atzean egotera ohituta dago-eta. Berak dioen moduan, "ehiztari ehizatua".**

**Futbol jokalari, irakasle, argazkilari... Ezer gehiago?**
Nahiko, ezta? Lanbidez irakaslea naiz, ingelesezko eskolak ematen ditut-eta Gasteizen. Eta, futbola eta argazkilaritza zaletasunak dira.

**Eta hiru horietatik zerk ematen du diru gehien?**
Lanak, irakasle lanak.

**Futbolarekin hasiko gara. Hirugarren Mailan agintzen dabil Gernika.**
Bai. Asmo horrekin hasi genuen denboraldia, aurreko lau postuen artean egon nahi genuen, eta etxean oso ondo ez bagabiltza ere, etxetik kanpora irabazi ditugun partiduei esker gaude lehenengo postuan.

**Zer eskatzen diozu futbolari?**
Ondo pasatzea, ez gehiago. Aldagelan sekulako giroa daukagu, eta hori horrela ez dela ikusten dudan egunean utzi egingo dut futbola.

**Kontuak egiten hasita, makina bat kilometro egiten duzu aste barruan.**
Halaxe da, bai. Gasteizera bost irakasle joaten gara lanera, eta gero, Gernikara joateko beste hiru lagun jasotzen ditut Arrasaten. Gutxienez, kilometro horiek guztiak ez ditut bakarrik egiten.

**Argazkilaritza ere zaletasun duzu; aitak lagundu egingo zuen horretan...**
Etxean argazkilari bat izateak beti laguntzen du, bai. Egia da kamera digitalen aroa etorri zenean sartu zitzaidala argazkilaritzarako harra.

**Eta izandako kamerak zeuk erositakoak izan dira ala etxean opari moduan jasotakoak?**
Denetik. Dendako kamerak erabili izan ditut, eta oparitutakoren bat ere izango dut, baina baita nik erositakoa ere. Objektibo bat erosteko neure poltsikotik ordaindu behar izan nituen orduko 170.000 pezeta, eta...










XABIER URTZELAI

**Sahara leku aparta izango da erretratuak ateratzeko.**
Erretratuak ateratzeko ederra da, bai, baina errefuxiatuak bizi diren moduan bizi izateko, ez. 2003an izan nintzen han, Aransgi gorren elkarteak antolatutako ekimen baten esku hartzen. Orduan bekadun lanetan nenbilen, eta ez nuen hara joateko aukera alferrik galdu.

**Zelako esperientzia izan zen?**
Egia esateko, gogorra, baina esperientzia ona izan zen. Hango errealitatea ezagutzeko ez dago 15 egun igarotzea modukorik. Baina guretako abentura modukoa dena euren eguneroko errealitatea da, hori da okerrena.

**Ezkontzetan ere ibiltzen zara lanean. Zerbait gaizki eginez gero, ez da ardura makala.**
Azken batean, beste edozein lanetan egoten diren ardurak dira. Goizetan, adibidez, lasai ibiltzen gara ezkongaiekin, guretako izaten ditugu-eta. Elizkizunean, baina, adi ibili behar dugu momentu bereziek ihes egin ez dezaten. Elkarri eraztunak jartzen dizkiotenean, adibidez.

**Partidurako botak ahaztea ala ezkontza batera kamerako txartel gabe joatea. Zerk du konponbide errazagoa?**
Ezkontza batera kamerako txartel gabe joatea... aipatu ere ez egin. Hobe partidura botak ahaztuta joatea, ondokoari eskatuko dizkiot-eta. Txiki izanda ere, norgehiagoka bat behatzak estu-estu daudela jokatzea ez da horren larria. Ezkontza batera joan aurretik, mila aldiz begiratzen dugu ea poltsan material guztia daukagun.

**Bestelako lan kontuei helduta, zer moduz egiten dute Gasteizko gaztetxoek ingelesez?**
Ondo, laster nik baino hobeto. Egia esan, ingelesezko irakasle ikastearena *karanbolaz* irten zen. Donostian hasi nintzen Informatika ikasten, baina ez nenbilen gustura, eta Eskoriatzara joan nintzen ikastera.

**Ahaztu laneko kontuak. Gainean dago negua; furgoneta aparkatuta uzteko sasoia da?**
Ez dauka zertan, furgonetarekin hara eta hona ibiltzeko urteko edozein momentu da-eta ona. Hori bai, furgonetarekin ibiltzeko denbora da behar dena. Negua etorrita ere, berogailuari emanda, ondo.

### PERTSONALA

**Herria:** Bergara. **Adina:** 26 urte. **Ikasketak:** Ingelesezko irakasle eta Hizkuntzen Psikopedagogia. **Argazki kamera bat?** Olympus E1. **Argazkiak egiteko leku bat?** Desertua. **Furgonetarekin joateko leku bat?** Iratiko basoa. **Futbolean duzun amets bat?** Bigarren B maila igotzea. **Eta bestelako ametsik?** Buruan ditudan proiektuak betetzea. **Mania bat?** Futbol zelaira jauzi egiten dudanean ur botila eraman behar dut eskuetan. **Asteburuan, zer?** Lasai ibiliko naiz, partidua jokatu, neskalagunarekin zinera joan... Parrandarik ez.

## berriak

> GOITB

### Joserra Perez Gatzagako alkatea izango da 'Debarri'-n

Alberto Gorritibereak zuzentzen duen *Debarri* saioan izango dugu Joserra Perez, datorren eguaztenean, 21:45ean. Hala, gatzagarrek aukera izango dute herriko alkateari galderak egiteko. Batetik, *www.goiena.net* webgunera sartu eta eztabaidan galdera egiteko aukera dute; bestetik, 943 71 23 96 zenbakira deitu eta bertan galdera eginda. Bada, zuen galderen erantzunak *Debarri* saioan.

> GOITB

### 'Berbaire' tertulia saioa martitzenean eta eguenean

Martitzenetan eta eguenetan 21:15ean *Berbaire* eztabaida saioaren txanda da Goiena Telebistan. Datorren astean, Ainhoa Larrañaga, Larraitz Ugarte eta Juan Kruz Mendizabal izango ditugu mahaiaren bueltan; azken hori Bergarako abade berria dugu, eta estreinakoz izango dugu. Gaurkotasuneko gaiak izaten dira eztabaidagai Gorka Etxabe kazetariak zuzentzen duen *Berbaire* saioan.

>ARRASATE IRRATIA

### Pirritx eta Porrotx pailazoak 'Asteko gainbegiratua'-n

Astearen laburpena egiten dugu *Asteko gainbegiratua* saioan. Oraingoan, besteak beste, Pirritx eta Porrotx pailazoek *Mari Motots* ikuskizunaren gainean kontatutakoak batuko ditugu.

Ordenagailuaren aurrean jarrita, Pello Zabalaren *Mendiko behatokia* blogean sartuko gara. Eta *El niño de Maguey* liburua eskuetan hartuko dugu, Pakito Arriaranen gainean jarduteko.

> ARRASATE IRRATIA

### Igor eta Mahaster River, 'Danbaka' saioan entzungai

Igor aretxabaletarrak aspaldi dauka musikarekiko zaletasuna; hala ere, egubakoitzean eskaini zuen berak sortutako kantuekin lehen kontzertua. Zapatuan izango duzue Elgetako Espaloia antzokian eskaini zuen kontzertuaz gozatzeko aukera.

Domekan, dagoeneko diskoa grabatuta duen Mahaster River hirukoteak hartuko du lekukoa. Gitarra soka apurtuta ere, sekulako emanaldia egin zuten haiek ere.

**'DIDJERIDU'** > EGUENA, 22:15

# Heber Garmendia goierritarra protagonista

Tokiko euskarazko toki telebisten elkarteko telebistek elkarlanean ekoizten dute 'Didjeridu' saioa

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Heber Garmendia goierritarraren txanda izango da datorren eguenean, 22:15ean, *Didijeridu* saioan. Hura dugu moto-krosean Euskadiko txapelduna.

Tokiko elkarteko kide da Goierri Telebista, eta Goiena Telebistarekin elkarlanean ekoiztutako saioa izango da eguenekoa.

Gogoratu beharra dago *Didjeridu* saioan astero disko bat zozketatzen dugula Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen eskutik. Beraz, adi saioari eta bidali zuk ere SMSa; zozketan parte hartuko duzu.




**TXAPELDUNA** Euskadiko moto-kroseko txapelduna da Garmendia. GOIENKARIA

**'DANBAKA'** > MARTITZENA ETA EGUENA, 21:45

# 'Danbaka': martitzenean Los Cretinos-en zuzenekoa eta eguenean Yotox-ena

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Datorren asterako ere eskaintza bikoitza dakar Amagoia Lasagabasterrek aurkezten duen *Danbaka* saioak. Martitzenean, 21:45ean, Los Cretinos talde arrasatearrak eskainitako kontzertua ikusteko aukera izango dugu. *Barba*-k, Ibaik eta Jaimek osatzen dute taldea eta garaje rock-and-rolla egiten dute. Bigarren aldia da Danbaka Musika Lehiaketara aurkezten direna, eta nabaritu egin genuen hori. Eguenean, azaroaren 30ean, Yotox bergarararen kontzertuaz gozatu ahal izango duzue. Txus Arriaranen proiektua da Yotox, eta musika elektroniko esperimentala egiten du. Eszenatokian proposamenik berritzaileena izan zen, irudi proiekzioekin lagundu zuen-eta emanaldia. Gainera, musikari protagonismo guztia utzi nahirik, maskarapean agertu ziren Yotox taldeko kideak Espaloian.

Oraingo aste bukaeran, Igor bakarlari aretxabaletarraren eta Mahaster River talde bergararraren zuzenekoa ikusi ahal izango duzue GOITBn.

## telebegi

**Edorta Arana** > www.goiena.net/blogak/hamaika

### Ohituta

Urritik hona, jostailuen iragarkiek telebista-emanaldiaren zirrikituak kolonizatzen dituzte. Programen arteko minutu horiek puztu egingo dira segidan xanpainak eta lurrinak saldu asmoz. Konturatu orduko, programak eurak baino tarte zabalagoa beteko dute. Baina, sasoian sasoiko kontuak dira, eginak gaude horretara.

Aldi berean, ohitu gara gaur egungo telebistan ikuskizuna izatea nagusi. Kosta eta dena egiten zaigu *granhermano*, *erletxea*, *salsarosa* edota *tomaterik* gabeko telebista nolakoa zen imajinatzea.

Txilindroiaren modura, astiro baina bere azpian hartzen duena betirako lurrean pega-pega eginda lagata, telebistak gure egunerokoa dekoratzen du, normala zer den esanez eta onargarri izan beharko duguna erakutsiz. Hain indartsua den tresna horrek sekulako lekua dauka, oraindik ere, euskara gure hartu-emanak eta bizitza ikustekoa tankera normalizatzen. Horregatik da garrantzitsua tokiko telebistetan euskarak lehentasuna edukitzea eta kanal handiekiko orekatzaile lana egitea.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Pirritx eta Porrotx pailazoak; Felix Arriaranekin Pakito anaia berbagai; Mikel Izurrategirekin *La leyenda del beso* zarzuelaren gainean; Pello Zabalarekin *Mendiko behatokia* blogari buruz ...
**16:00** Danbaka: Igor.
**23:00** Danbaka: Igor.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
**16:00** Danbaka: Mahaster River.
**23:00** Danbaka: Mahaster River.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 24**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15** Danbaka-Mahaster River. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Eltze beroa **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu:Onintza Enbeita. **16:15**Mandio **16:45** Albisteak. **17:15** Bihurkorrak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Debarri-Eskoriatza. **18:45**Albisteak. **19:15** Erreportajea. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Hitz bitan **22:15**Ilunpean-Aintzane Ezenarro. **22:45**Berriak. **23:15**Berbaire. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Jazmina. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 25**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Nonochan, Sherlock Holmesk eta Snorkeldarrak. **11:00** Ikusmira. **11:30**Jazmina. **12:00** Astekoak. **12:15**Gatza ta berakatza. **12:30** Didjeridu-Onintza Enbeita **13:00** Eltze beroa **13:30** Debarri-Eskoriatzai. **14:30** Danbaka. **15:00** Teknopolis. **15:30** Hitz bitan. **16:00** Erreportajea. **16:30** Ilunpean-Aintzane Ezenarro. **17:00** Marrazki bizidunak. **19:00** Hasiberriak. **19:30**Klip@. **20:00**16mm. **20:30**1Didjeridu. **21:00**Berbaire. **21:30**Danbaka. **22:00**Astekoak. **22:15**MKT. **22:30**Ilunpean-Aintzane Ezenarro. **23:00**Erreportajea. **00:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 26**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes, Nonochan eta Snorkeldarrak. **11:00** Hitz bitan. **11:30**Erreportajea: Lurraren opari gorria. **12:00**Danbaka. **13:00**Bizitegia. **13:30**Berbaire. **14:00**Astekoak. **14:15**Klip@. **14:30**Didjeridu. **15:00** Ikusmira. **15:30** Marrazki bizidunak. **18:00**Jazzmina. **18:30**Hitz bitan. **19:00** Hasiberriak. **19:30** Eltze beroa. **20:00** Astekoak. **20:15**Gatza ta berakatza. **20:30**Ilunpean. **21:00** Debarri-Eskoriatza. **22:00**Erreportaia-lurraren opari berria. **22:30**Didjeridu. **23:00**16mm. **23:30** Danbaka. **00:30** Emisio amaiera.

**Astelehena, 27**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Teknopolis. **14:15** Hitz bitan. **14:45** Albisteak. **15:15** Ilunpean. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Gatza ta berakatza. **16:00**MKT. **16:15**Jazzmina. **16:45** Albisteak. **17:15**Marrazki bizidunak. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Berbaire. **18:15** Eltze beroa. **18:45** Albisteak. **19:15** Danbaka. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. **20:45** Berriak. **21:15** Harmailatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Erreportajea: Oiduiko txabola berritzen. **22:15** Hasiberriak. **22:45** Berriak. **23:15**Didjeridu. **23:45** Gaurkoak. **23:47** Ikusmira. **00:15** Emisio amaiera.

**Martitzena, 28**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Nonochan. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Harmailatik. **14:15** Erreportajea: Oiduiko txabola berritzen. **14:45** Albisteak. **15:00** Didjeridu. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Hasiberriak. **16:15** Ikusmira. **16:45** Albisteak. **17:15** Marrazki bizidunak. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Ilunpean. **18:15** Gatza ta berakatza. **18:30** MKT. **18:45** Albisteak. **19:15** Harmailatik. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Nonochan. **20:45** Berriak. **21:15** Berbaire. **21:45** Gaurkoak. **21:47** Danbaka: Cretinos. **22:15** 16mm. **22:45** Berriak. **23:15**Hitz bitan. **23:45** Gaurkoak. **23:47** Harmailatik. **00:15** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 29**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15** Danbaka-Cretinos. **14:45** Albisteak. **15:15** 16mm. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Hasiberriak. **16:15**Hitz bitan. **16:45**Albisteak. **17:15**Marrazki bizidunak. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Harmailatik. **18:15** Erreportajea- Oiduiko txabola berrizten. **18:45** Albisteak. **19:15** Danbaka. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. **20:45** Berriak. **21:15** Debarri-Leintz Gatzaga. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Debarri-Leintz Gatzaga. **22:15** Hasiberriak. **22:45** Berriak. **23:15**Berbaire. **23:45** Gaurkoak. **23:47**Erreportajea. **00:15** Emisio amaiera.

**Eguena, 30**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Nonochan. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Debarri:Leintz Gatzaga. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Teknopolis. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Erreportajea. **16:15** Ikusmira. **16:45** Albisteak. **17:15** Marrazki bizidunak. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Eltze beroa. **18:15** 16mm. **18:45** Albisteak. **19:15**Gatza ta berakatza. **19:30**MKT. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Nonochan. **20:45** Berriak. **21:15** Berbaire. **21:45** Gaurkoak. **21:47**Danbaka: Yotox. **22:15** Didjeridu. **22:45** Berriak. **23:15**Erreportajea. **23:45** Gaurkoak. **23:47** Ilunpean. **00:15** Emisio amaiera.

**Xabier Madariaga** > EITBko albistegietako kazetaria

# "Desberdin pentsatzen duenari entzutea da garrantzitsuena bizitzan eta lanean"

Madrilgo EITBren korrespontsalian dago orain, baina ez du baztertu Ekialde Hurbilera itzultzea

Xabier Madariaga kazetariak Israel aukeratu zuen informaziogune emankorra zelako



Xabier Madariaga kazetari bilbotarrak Ekialde Hurbileko albisteak ekarri ditu gurera EITBko medioetatik. EITB

IRATI AGIRREAZALDEGI > ESKORIATZA

**Xabier Madariaga EITBko albistegietako kazetaria HUHEZIn izan da asteon hitzaldia egiten. Eta, hain zuzen, HUHEZIko ikasle Zihara Aranbarrik kazetariari egindako elkarrizketaren zati bat ekarri dugu gure orrietara, eta baita osatu ere.**

**Zergatik ikasi zenuen Ikus Entzunezko Komunikazioa?**

Argi nuen kazetaritza egin nahi nuela. Txikitan Radio Euskadiko informatiboak grabatu, ikasi eta neure burua grabatzen nuen berdina esaten. Osabaren bideokamerarekin *Teleberri* modukoak egiten nituen, neure burua grabatuz. Ikastolako egunkarian sartu nintzen, eta gustatu egiten zitzaidan. Ikastolako telebistak kontrako efektua egiten zidan, maisua ez nuen gustuko.

**Karreran zer ikasi zenuen?**

Kazetaritza Iruñean ikasi nuen, Nafarroako Unibertsitatean. Han tokatu zitzaidan bat ez nentorren gauza asko entzutea. Ideia askorekin ez nengoen ados. Gehienak Euskal Herritik kanpokoak ziren, eta nirekiko desberdinak zirenak errespetatzen ikasi nuen. Horrek kazetaritzan asko laguntzen du.

**Praktikak non egin zenituen?**

Bigarren mailan ikasturte osoa egin nuen Iruñeko irrati batean. Udan Euskadi Irratian hasi nintzen, Donostian. Hirugarren mailan Erasmus bekarekin Lancasterrera (Ingalaterra) joan nintzen. Han Euskadi Irratiko Londresko kolaboratzailea izan nintzen. Laugarrenean irratitik telebistarako pausoa eman nuen.

**Zertara joan zinen lehenengoz Israelera?**

Lancasterren nengoela irratiko albistegietako zuzendariak proposatu zidan karrera bukatutakoan Londresko berriemaile izatea. Baldintza telebistan eskarmentua hartzea izan zen, berriemaileek bi gauzak egin behar baitituzte: irratia eta telebista. Laugarren mailan telebista egin nuen. Ideia etorkizunean Londresera joatea bazen ere, beste neska bati eman zioten aukera. Israel informaziogune emankorra iruditu zitzaidan, eta hara joan nintzen. Bidenabar, unibertsitatean kurtso batzuk egin nituen. Hasierako hiru hilabeteak hiru urte bihurtu ziren.

**Eguneroko jardunean ikasitako zer aplikatzen duzu?**

Musulmanen kultura eta juduen kultura hain desberdinak dira gurearekin konparatuta… Desberdin pentsatzen duenari entzutea da garrantzitsuena bizitzan, eta baita lanean ere. Bertako jendearekin integratzea nahiko zaila da. Palestinarrak nahiko irekiak dira hasieran, etxeko ateak irekitzen dituzte, baina lagun on bat lortzea ez da hain erraza. Israeldarren kasuan, europarra eta kazetaria naizela esateak zailtasunak ekarri dizkit.

**Nolakoa zen zure lanegun bat Israelen?**

Goizean goiz esnatu (hango 07:30 eta Euskal Herriko 06:30ean) eta egunkariak irakurri. Kronika idatzi eta grabatu goizeko albistegirako. Egunkariak irakurtzean eguneko nondik norakoak ezagutzen dira. Eguna indartsu bazetorren telebistarako bideoa egin behar ote nuen galdetzen nuen. Bideoa egin behar banuen, eguerdiko albistegirako egin behar izaten zen. Batzuetan ez zen albisterik egoten; orduan, irratiko kronika egin eta ohera bueltatzen nintzen. Bestela, beste egunen baterako erreportajea egiten nuen.

**Gatazkaren aurrean objektibotasuna posible da?**

Objektiboa izaten saiatu behar da, baina errealitatea ere kontatu behar da, eta Ekialde Hurbileko errealitatea kontatuta bat ez da objektiboa. Ikusten diren bidegabekeriekin ez da beste aukerarik gelditzen. Norbaiti etxea bota diotela kontatu egin behar da, eta kontatzean ezin daiteke objektiboa izan edo istoriotik ahal den urrunen geratu. Ikuslearentzat politagoa da hurbiltasunez kontatzea. Gehiengoaren sentsazioa da ez dugula zertan neutralak izan eta sentitzen den hori transmititzea dela askotan politena; ikusten diren gauzak kritikatzea, bai alde batekoak baita bestekoak ere.

**Ondo moldatu zara gainontzeko kazetariekin?**

Esaten dute Jerusalem dela berriemaileen artean girorik onena dagoen korrespontsalia. Bada, ez dakit hango egoerak sortutako giroa den, baina denok batera ibiltzen ginen.

> **"Gehiengoaren sentsazioa da sentitzen den hori transmititzea dela askotan politena"**

> **"Jerusalem da berriemaileen artean girorik onena dagoen korrespontsalia"**

## Sarraskia egunerokotasunaren zati denean

Gatazkan, tiro hotsak, leherketak, odola, heriotza gertuan izan ditu Madariagak: "Ohituta nengoen Ekialde Hurbileko albisteak telebistaz ikustera. Bertan konturatu nintzen ez direla heriotza soilak, pertsonak ere badirela, familiak... Horrek ukitu egin ninduen, batez ere hasieran; gerora, ohitu egin nintzen. Unerik gogorrenetakoa Pakistango lurrikara izan zen. Alde guztietan suntsipena baino ez zen ikusten, hildako asko, hildakoen usaina... Denbora guztian hori ikusteak lana ikaragarri zaildu zuen. Sentitzen nuen ez nintzela gai ikusleari inguruan nuen sarraskia erakusteko".






## Euskadiko Kutxarekin etorkizun on bat edukitzea opari bat da

2006. urtean egindako ekarpen guztiak batuta, opariak jaso ditzakezu, edo bestela, aurtengo berritasun modura, Travel Club Puntuetan horien baliokidea eskuratu. Lehenbailehen erreserba itzazu zure ohiko sukurtsalean edo CLNet-en.

Euskadiko Kutxak erraztu egiten dizu finantzazioa, zure ekarpenak egin ahal izateko eta horrela zure zerga-onurak mantentzeko.



Era guztietako janariak prestatzeko funtzio anitzeko kazola modernoa, itsasketaren aurkakoa.

Guztira **2.500 €**-ko ekarpena eginez gero
Askotarako Kazola Elektrikoa
…edo
1000 Puntu Travel Club



Dotorea, praktikoa eta urari aurre egiteko larru sintetikozkoa.

Guztira **3.500 €**-ko ekarpena eginez gero
Larru sintetikoko aterki-ontzia
…edo
1.300 Puntu Travel Club



Portzelanaz egina eta mikro-uhin eta ontzi-garbigailurako egokia.

Guztira **5.000 €**-ko ekarpena eginez gero
Portzelanazko baxera 20 pieza
…edo
2.000 Puntu Travel Club



Su guztietarako egokia, baita indukziorako ere.

Guztira **5.000 €**-ko ekarpena eginez gero
Fagor kafe-makina
…edo
2.000 Puntu Travel Club



Gehienezko segurtasun sistemarekin egindako altzairu herdoilgaitza.

Guztira **8.000 €**-ko ekarpena eginez gero
Fagor eltze azkar herdoilgaitza
…edo
3.200 Puntu Travel Club



Era guztietako formatuak irakurtzen ditu eta soinu ikusgarri eta inguratzailea eskaintzen du.

Guztira **15.000 €**-ko ekarpena eginez gero
Home Cinema + DVD
…edo
7.000 Puntu Travel Club

### Planetan berriena ezagutu dezazula nahi dugu:

Kudeaketa **Alternatiboko** Plan Berria

Zure ondarea Euskadiko Kutxak dituen Plan guztien artean dibertsifikatzen lagunduko dizun Plan berria, errentagarritasun-aukerarik onenak jaso ditzazun. Alde horretatik, **Kudeaketa Alternatiboko Plan Berriak** edozein ziklo ekonomikotan dauden aukerak atzeman eta horiek aprobetxatzea du helburu.

Erreskateak eta prestazioak urteko ekarpenen baturatik kenduko dira.
Opariak eskatzeko epea: 2006ko azaroaren 13tik abenduaren 31ra. Promozio honetan ageri den artikuluren bat ahituz gero, Euskadiko Kutxak agintzen dizu antzeko ezaugarriak dituen beste bat emango dizula horren ordez.

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

# Azaroak 24-Abenduak 1

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

### Kontzertua



ELGETA

**> Diskoa aurkeztuko du Bide Ertzean taldeak bihar, zapatua, kontzertuan**

Espaloia antzokian, 22:30ean, aurkeztuko du Bide Ertzean taldeak *Non dira* izeneko diskoa. Apaindura gutxiko abestiek osatzen dute diskoa; abestiotan, popa eginez, folkera ere hurbildu izan da laukotea.

### Ospakizuna



ANTZUOLA

**> Garaiko gaztaina erreak jateko aukera izango dute herritarrek domekan**

Udazken giroa areagotzeko, garaiko gaztaina erreak jateko aukera izango dute herritar guztiek etzi, domeka. Herriko plazan banatuko dituzte gaztaina erreak. Egun berean, 11:30ean, meza kantatua izango da parrokian.

### Kontzertua



ESKORIATZA

**> Anje Duhalderen kontzertura joateko sarrerak salgai daude**

Anje Duhalde musikariak kontzertua egingo du abenduaren 1ean, egubakoitza, disko berria aurkezteko. Sarrerak salgai daude Eskoriatzako kiroldegian eta Dorleta dendan, Arrasateko Elkar dendan eta Aretxabaletako Arlutz tabernan.

## Antzerkia

ANTZUOLA

**> Ipuinak entzuteko aukera izango dute neska-mutikoek**

5 urtetik gorako umeei ipuinak kontatuko dizkie Maite Franco kontalariak.

Eguenean, hilak 30, liburutegian, 18:00etan.

ESKORIATZA

**> Lan berria estreinatuko du Oihulari Klown taldearen**

*Dena klowntrolpean* izeneko antzezlana eskainiko du Oihulari Klown taldeak, Eskoriatzako Udalak antolatutako emanaldian.

Gaur, egubakoitza, unibertsitatean, 22:30ean.

ELGETA

**> 'Cantervilleko mamua' umeendako antzezlana**

Umeei zuzendutako *Cantervilleko mamua* izeneko muntaia egingo dute Hankatxo eta Txalo taldeek Espaloian.

Etzi, domeka, 17:30ean.

BERGARA

**> Helduendako ipuinak kontatuko ditu zaragozar batek**

Zaragozako Oswaldo Pai kontalariak helduendako ipuinak kontatuko ditu. Oihulari Klown taldeak antolatu du emanaldia, XI. Ipuin Kontaketaren Zirkuituaren barruan.

Eguaztenean, hilak 29, Pol Pol tabernan, 22:30ean.

## Musika

BERGARA

**> Cradle of Filth taldeak kontzertua egingo du Jamen**

Metal beltz eta gotiko estiloko Cradle of Filth talde britainiarrak kontzertua egingo du Jam aretoan. *Thornography* izeneko diskoa aurkeztuko dute. Sarrerak salgai daude 24 eurotan.

Gaur, egubakoitza, 20:30ean.

ARRASATE

**> Mala Reputacion taldearen kontzertua 3.60 aretoan**

Bihar, zapatua, Mala Reputacion taldeak eta beste talde gonbidatu batek joko dute.

Emanaldia 23:00etan hasiko da.

## Lehiaketak

BERGARA

**> XV. Amodiozko Gutunen Berrigara lehiaketa deitu dute**

Amodiozko gutunen lehiaketa antolatu du Jardun elkarteak. 1992an edo lehenago jaiotako edozeinek parte har dezake. 450, 240, 150 eta 100 euroko sari bana emango dute. Lanak bidaltzeko mugaeguna urtarrilaren 7a da. Bestetik, urtarrilean, amodiozko SMS mezuen lehiaketa ere irekiko dute.

Argibideak: *www.jardun.net.*

ARRASATE

**> Santamasak irudikatzeko kartel lehiaketa deitu dute**

Santamasetako kartel lehiaketa deitu du Udal Kultura Sailak. Edozeinek parte har dezake, 50x70 cm-ko kartelekin. Derrigorrezko testua hau da: *2006 Santamasak Arrasate.* 400 euroko saria emango dute.

Azaroaren 29a da mugaeguna.

## Ikuskizunak

ARRASATE

**> 'La leyenda del beso' zarzuela antzeztuko dute**

Soutullo eta Vert-en *La leyenda del beso* zarzuela antzeztuko du Izaskun Murgia lirika elkarteak Amaia antzokian.

Azaroak 25 eta 26: 19:30; abenduak 1: 20:00; abenduak 2: 19:30.

BERGARA

**> Eriz magoak ikuskizuna egingo du bihar, zapatua**

Gaztañatan kultura programaren barruan, Eriz magoak magia egingo du neska-mutiko guztiendako.

Osintxuko eskolan, 17:00etan.

ESKORIATZA

**> Pirritx eta Porrotxek 'Mari Motots' ikuskizuna egingo dute**

Jolaslekuan bizi den neskato bat, Mari Motots, aurkeztuko dute Pirritxek eta Porrotxek. Zakarrontzian aurkitzen duenarekin jaten du eta jantzen da. Ikuskizunerako sarrerak agortuta daude.

Bihar, zapatua, kiroldegian, 17:30ean.

PROPOSAMENA

OÑATI

**> 'Picasso 1937, historia del Guernica' antzezlana izango da**

*Picasso 1937, historia del Guernica* delako antzezlana egingo du Maskarada taldeak gaur, egubakoitza, Oñatin. Lan horrekin lau sari irabazi ditu taldeak AEBetako AACT International Theaterfest antzerki jaialdian: ikuskizun onena, aktore onena, zuzendari onena eta eszenografia onena.

Nabarmena da musikaren tratamendua, eta lanaren esanahi unibertsala eta sinbolikoa.

Gaur, egubakoitza, egingo dute antzezlana Santa Anan, 22:30ean.



## Ospakizunak

ESKORIATZA

**> Gaztaina erre eguna ospatuko dute Luis Ezeizan**

Gaztaina erre egunean, eskulan tailerrak eta gaztaina erre eta txokolate jana izango dira herriko ume guztiendako.

Gaur, egubakoitza, ikastetxeko patioan, 17:00etan.

BERGARA

**> Mizpirualde egoitzako astea ospatzen dihardute**

Honako ekintzak izango dituzte Mizpirualdeko egoiliarrek: bidaien gaineko diapositiba emanaldia eta Moises Azpiazu dantza taldearen emanaldia, gaur, egubakoitza; eukaristia, bazkaria, dantza ikuskizuna, dantzaldia eta opari banaketa bihar, zapatua.

Zapatuan bukatzen da Mizpirualde egoitzako ospakizun astea.

## Bestelakoak

LEINTZ GATZAGA

**> Bertso afaria egingo dute gaur, egubakoitza**

Bertso afaria antolatu dute gaurko, egubakoitza. Txerriboda bertso afaria izango da, eta Manex Agirrek eta Jokin Labaienek parte hartuko dute.

Gatzagainen, 21:00etan.

ARRASATE

**> Hiru kultura ekintza egingo dituzte eskola politeknikoan**

Honako ekintzak egingo dituzte: *Bob? Nor da Bob?* antzezlana (hilak 27); *Alquimia* antzezlana (hilak 28) eta Hauxeren, Txema Murugarrenen eta Rafa Ruedaren taldearen kontzertua (hilak 29).

Ekintza guztiak 19:30ean hasiko dira.

ARRASATE

**> Paul Austerren liburu bat komentatuko dute liburutegian**

Paul Auster idazlearen *Brooklyn-go erokeriak* eleberria komentatuko dute martitzenean, hilak 28, literatura solasaldien programan.

18:30etik 20:30era izango da saioa.

ESKORIATZA

**> Euskal mitologiaren gaineko hitzaldia egingo dute**

*Euskal mitologia, ipuin bilduma bat baino zerbait gehiago* delako hitzaldia egingo du Juan Ignacio Artzuaga antropologoak.

Gaur, egubakoitza, Ibarraundin, 19:00etan.

ANTZUOLA

**> Jon Maiak bere liburua komentatuko du**

Jon Maia idazleak *Riomundo* delako bere eleberriaren inguruko berbaldia egingo du.

Eguenean, hilak 30, Olaran aretoan, 19:00etan.

## nire aukera



Pantxike Arin
Eskolako zuzendaria
Antzuola

### "Entzuteko, zarzuela izugarri gustatzen zait"

Eskolan kargua hartu berri dut, eta lan handiagoa daukat astean barrena, baina asteburuari ez dio eragiten. Hala, bi motatako asteburuak ditut: bi asteburuan behin, etxeko pertsona nagusiak zaintzen ditut. Tarte gutxi izaten ditut orduan, baina ahal dudanean, ortuan ibili, paseora joan… Horiek egiten ditut. Beste asteburuan, zapatuan etxeko lanak egiten ditut, ortuaz arduratzen naiz… eta, arratsaldean, bueltatxo bat ematen dugu. Domekan mendira joatea gustatzen zaigu.

**Egubakoitzetarako plan berezirik izaten duzu?**
Bai; lagunekin txikiteoan irteten naiz, edo batera afaltzen dugu. Izan ere, egubakoitzean semea eta iloba etortzen dira eta eurak arduratzen dira etxeko nagusien afariaz, oheratzeaz...

**Lanpetuta egon arren, zuretako tarteak aurkitzen dituzu, ezta?**
Bai, horixe! Adibidez, lasai-lasai gosaltzen dut beti.

**Alaba artista duzu. Zuri ere gustatzen zaizu artea?**
Bai, bereziki musika: solfeoa ikasitakoa naiz, gitarra jotzen ere hasi nintzen gaztetan... Pianoa ere jotzen hasi nintzen, eta erretiratzen naizenean jarraituko diot. Entzuteko, zarzuela izugarri gustatzen zait.

**Irakaslea zarenez, opor luzeak izango dituzu, ezta?**
Bai; adibidez, Pazko aste osoa dut jai, eta senarrak ere jai hartzen du. Orduan, irteeraren bat egiten dugu, Espainia aldean. Betiere, mendi inguruetara joaten gara; hiria ez zait batere gustatzen niri.

# Zinema

**ANTZUOLA**
**OLARAN ETXEA**

**(Umeendako film emanaldia)**
Domeka: 16:30.

**ELGETA**
**ESPALOIA ANTZOKIA**

**American splendor**
Eguaztena: 21:30.

**OÑATI**
**KULTURA ETXEA**

**Caché**
Eguena: 20:00.

**EIBAR**
**UNZAGA**

**Casino Royale**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguaztenera: 19:30, 22:15.

**RIALTO**

**Yo soy la Juani**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

**GASTEIZ**
**GURIDI**

**Infiltrados**
17:00, 19:45, 22:30.

**Borat**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua eta domeka: 18:45, 20:30, 22:30.

**El perfume**
17:00, 19:45, 22:30.

**Colegas en el bosque**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Siddhartha (J.B.A.)**
17:00, 20:30, 22:30.

**Casino Royale**
17:00, 19:45, 22:30.

**Scoop**
17:30, 20:00, 22:30.

**Una verdad incómoda**
18:40.

**La reina**
Egubakoitza: 17:30, 20:00.
Zapatua eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**Los fantasmas de Goya**
22:30.

**Un buen año**
17:30, 20:00.

**Trastorno**
22:30.

**Beyond the sea**
17:30, 20:00.

**¿Por qué se frotan las patitas?**
17:30, 20:00, 22:30.

**El ilusionista**
17:30, 20:00, 22:30.

**El gran silenciio**
18:00, 21:00.

**Grbavica**
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**Pequeña miss Sunshine**
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**ÁBACO-LAKUA**
**ZINEMAK**

**Va a ser que nadie es perfecto**
16:00, 18:00, 20:00.

**Alatriste**
23:00.

**El diablo viste de Prada**
22:00, 00:30.

**Los Borgia**
16:00, 19:00, 23:00.

**Casino Royale**
16:00, 19:00, 22:00, 00:50.

**Colegas en el bosque**
16:00, 18:00, 20:00.

**Wicker man**
22:00, 00:30.

**Jackass 2**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**Yo soy la Juani**
20:00, 22:00, 00:30.

**Betizu (euskaraz)**
16:00, 18:00.

**Dead or alive**
16:00, 18:00, 20:00.

**Wanted**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**Un invitado por Navidad**
16:00, 18:00, 20:00.

**Click**
22:00, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

**YELMO**
**CINEPLEX-GORBEIA**

**Casino Royale**
12:15, 16:00, 17:30, 19:00, 20:30, 22:00, 23:30.

**GAL**
12:15, 15:55, 18:05.

**Infiltrados**
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:30, 23:30.
Domeka: 12:15, 16:15, 19:15, 22:15.

**El perfume**
12:15, 16:30, 19:15, 22:00, 00:40.

**Borat**
18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

**Scoop**
19:50, 21:50, 23:50.

**Los fantasmas de Goya**
21:45, 00:15.

**El corral**
12:15, 15:55.

**La dalia negra**
20:10, 22:30, 00:50.

**Yo soy la Juani**
12:15, 15:45.

**Un buen año**
17:45, 20:00, 22:15, 00:30.

**¿Por qué se frotan las patitas?**
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**Un invitado por Navidad**
12:15, 16:05, 18:05.

**El ilusionista**
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**El laberinto del fauno**
17:50, 20:10, 22:30, 00:50.

**Colegas en el bosque**
12:15, 16:00, 18:00, 19:50.

**Dead or alive**
12:15, 16:20, 18:20.

**Monster house**
12:15, 16:25.

**Saw 3**
17:45, 20:00, 22:10, 00:20.

**La reina**
20:10, 22:10, 00:10.

**La increíble pero cierta historia de Caperucita Roja**
12:15, 16:10.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO**
**BOULEVARD**

**El corral**
12:15, 17:00.

**Colegas en el bosque**
12:15, 16:05, 18:10, 20:10.

**Borat**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

**Saw 3**
12:15, 16:00, 18:05, 20:15, 22:30, 01:00.

**Pequeña miss Sunshine**
12:15, 16:05, 18:15.

**El ilusionista**
12:00, 16:00, 18:05, 20:15, 22:30, 01:00.

**Trastorno**
12:15, 16:30, 18:20, 20:10.

**El laberinto del fauno**
12:00, 16:30.

**Infiltrados**
19:00, 22:00, 01:00.

**Los fantasmas de Goya**
22:05, 00:30.

**Scoop**
20:25, 22:25, 00:30.

**GAL**
18:05, 20:15, 22:25, 00:45.

**Un buen año**
22:15, 00:45.

**La distancia**
12:10, 16:00.

**Casino Royale**
12:00, 16:30, 19:20, 22:10, 01:00.

**El perfume**
12:15, 16:20, 19:10, 22:00, 01:00.

**¿Por qué se frotan las patitas?**
12:15, 16:10, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**La reina** ****
Erresuma Batua-Frantzia-Italia, 2006. Zuzendaria: Stephen Frears. Aktoreak: Helen Mirren, Michael Sheen, James Cromwell.
97 min. Biografia, drama.
Diana printzesa hil egin da. Tony Blairrek, lehen ministroak, erregina herriarengana hurbiltzeko lana bere gain hartuko du orduan. Samin garai baten lehen ministro berriaren lana, krisian dagoen familiaren erretratua... hori dena kontatzen du filmak.

**Wanted**
AEB-Frantzia-Erresuma Batua-Kanada, 2003. Zuzendaria: Brad Mirman. Aktoreak: Gerard Depardieu, Harvey Keitel.
98 min. Akziozkoa, komedia.
Munta txikiko lapur frantses batzuek, zorigaiztoz, Chicagoko mafiako buruari lapurtzen diote. Hortik aurrera, mafia, FBIa eta kaleko gangster batzuk izango dituzte atzetik.

**El gran silencio**
Alemania, 2005. Zuzendaria: Philip Gröning. 164 min. Dokumentala.
Frantziako Alpeetako Grande Chartreuse monasterio kartujoan fraideen eguneroko bizitza lehenengo aldiz erakusten du dokumental horrek. Apaingarririk, musikarik, komentariorik gabeko filma da, eta kontenplazioaren bidez bizitza Jainkoari eskaini dieten gizon batzuen bizitza erakusten du.

**El perfume**
Alemania-Espainia-Frantzia, 2006. Zuzendaria: Tom Tykwer. Aktoreak: Ben Whishaw, Dustin Hoffman, Alan Rickman, Rachel Hurd-Wood.
147 min. Thrillerra, drama.
Patrick Süskind-en eleberrian oinarritutako film horrek Jean-Baptiste Grenouille-ren istorioa kontatzen du: usainetarako dohaia du, eta horren bidez, hiltzaile bihurtzen da.

**El ilusionista** ***
AEB, 2006. Zuzendaria: Neil Burger. Aktoreak: Edward Norton, Paul Giamatti, Jessica Biel.
110 min. Drama, thrillerra.
Eisenheim ilusionista da eta Vienara eramaten du bere ikuskizuna. Laster hedatuko da botere harrigarriak dituen zurrumurrua, eta Leopold printze oinordekoarengana iristen da. Sophierekin, emaztegaiarekin, joaten da ikuskizunera, baina Sophie Eisenheimekin maitemintzen da.

**Dead or alive**
Alemania-Erresuma Batua-AEB, 2006. Zuzendaria: Corey Yuen. Aktoreak: Jaime Pressly, Holly Valance, Sarah Carter.
87 min. Akziozkoa.
Lau emakume arerioak dira borrokaarte txapelketa baten, baina laster, elkarrekin borrokatuko dira indar beldurgarri baten aurka.

**Saw 3**
AEB, 2006. Zuzendaria: Darren Lynn Bousman. Aktoreak: Tobin Bell, Shawnee Smith, Angus Macfadyen.
107 min. Thrillerra, beldurrezkoa.
Amandarekin, ikasle berriarekin, Jigsaw hiltzaileak ihes egin dio poliziari eta desagertu egin da. Lynn Denlon doktorea eta Jeff Jigsawren joko krudeleko hurrengo pieza bihurtzera doaz.

**Un buen año** ***
AEB, 2006. Zuzendaria: Ridley Scott. Aktoreak: Russell Crowe, Albert Finney, Marion Cotillard.
118 min. Komedia.
Max Skinner inbertsioetan aditua da. Provenzara joaten da osabak eredentzian utzi dion mahasti bat saltzera. Baina tramite hutsa hasi dena gozatzeko moduko abentura bilakatuko da.

**Trastorno** ***
Espainia, 2006. Zuzendaria: Fernando Cámara. Aktoreak: Najwa Nimri, Ingrid Rubio, Pep Munné.
95 min. Beldurrezkoa.
Nataliak senar ona eta lanpostu ona ditu, eta haurdun dago. Luze ondoren, Elenarekin, ahizparekin, berriro batzea erabakitzen du. Elenaren desio handiena ama izatea da.

**Casino Royale**
Erresuma Batua-AEB-Txekia, 2006. Zuzendaria: Martin Campbell. Aktoreak: Daniel Craig, Eva Green, Mads Mikkelsen.
144 min. Thrillerra, akziozkoa.
James Bond espioiak 007 estatusa lortu ondorengo lehen misioa kontatzen da. Madagascarren, Mollaka izeneko terrorista zelatatu behar du, baina planak porrot egiten du.



## Ficción ***

**Zuzendaria:** Cesc Gay.
**Aktoreak:** Eduard Fernandez, Montse German, Javier Camara.
Espainia, 2006.
107 min. Drama.

Cesc Gayren *Ficción* film ederrak proposamen pertsonala ekartzen du. Istorio txiki, erromantiko eta barnerakoia kontatzen zaigu: zinema zuzendari bat inspirazioaren bila mendian bizi den lagun baten etxera doa, eta han, Kataluniako Pirinioetan, egun batzuk pasatzen ari den emakume batekin amodio harreman sekretua izango du.

Garrantzi handia dute eszenetan sortutako atmosfera bereziek; une bakoitzeko emoziozko intentsitatea islatu nahi da. Pertsonaien ezkutuko sentipenen kaleratzean datza filmaren mamia. Eguneroko bizitza ikusteko aukera daukagu, pertsonaiak normalean mendian egiten ditugun gauzak egiten ditu: paseatu, lagun arteko afariak, gertuko herrira joan erosketak egitera, eta abar, baina gauza horiek guztiak egiterakoan sortzen diren sentimenduzko lokarrien azalpena da garrantzitsuena, batez ere bikotea bakarrik geratzen denean. Batak ez dio besteari bere sentimenduak adierazi nahi, eta hor oso joko polita sortzen da: aktoreek zuzendariarekin batera jakin behar dute pertsonaiak ezkutatzen dituen sentimenduak kanporatzen, eta hori kasu honetan oso ondo lortzen da: autoaren ispiluen bitartez ikusten ditugun begiradak, tabernako eszenako isiluneak, benetan adierazgarriak dira. Ikusleentzat oso atsegina izaten da istorio sekretuen lekuko pribilegiatu bat izatea, eta horrela, oso lokarri bereziak sortzen dira ikusle eta pertsonaien artean.

**Antonio Zabala**




Goienkaria

EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2006-11-24

# Inkubagailutik baserrira

**INKUBAGAILUA** Baserrian bertan arrautzak inkubatzeko makina dauka Juan Antonio Aretxaga aramaioarrak

**TXITAK** Egubakoitzean eta zapatuan 46 txita jaio ziren, sei dozena arrautzatatik, Aramaioko Mendibitzu baserrian

**KAPOIAK** Aste bukaeran jaiotako txitak kapoiak izango dira etorkizunean, abuztu aldera

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

Baserrian bertan arrautzak inkubatzeko makina dauka Juan Antonio Aretxaga aramaioarrak. Aurten ere makinak ez du hutsik egin: egubakoitzean eta zapatuan 46 txita jaio ziren sei dozena arrautzatatik. Oskola apurtu baino lehen 21 egun eman zituzten inkubatzeko makinan.

Untzilla auzoko Mendibitzu baserrikoa, duela bost bat urte egin zuen Aretxagak inkubatzeko makina, lagunen aholkuak eta Interneten jasotako informazioa jarraituta: "Udaberri partean arazoak izan ditugu arranoekin eta makinan jaiotako txita horiek nahiko hazita izango dira ordurako, arranoek ez harrapatzeko bezala... Era berean, inkubagailuan hobeto kontrola ditzakegu, bi oilaloka euren txitekin elkartzen badira arazoak egon daitezkeelako". Besteak beste, tenperatura eta hezetasuna kontuan hartu behar dira inkubatzeko makinan: "Bonbilla bat izaten dute piztuta, tenperatura egokian epel egon daitezen, eta bestela ez dauka aparteko misteriorik... Makina horiek gero eta gehiago erabiltzen dira gaur egun". Emaztearen eta bi alaben laguntza izaten du Aretxagak: "Alabek 8 eta 12 urte dituzte eta eurendako gauza ederra da prozesu osoa jarraitu ahal izatea. Etorri izan dira eskolako lagunekin baserrira, eta txitak jaiotzen ikustean asko gozatzen dute. Oilalokekin ez dago ikusterik, azpian izaten dituztelako".

**ABUZTURAKO, KAPOIAK**

Juan Antonio Aretxagak esan digunez, aste bukaeran jaiotako txitak kapoiak izango dira etorkizunean: "Kapoiak egin gura ditugu. Zikiratzea gure bailaran ia galduta dago, baina Karlos Agirre eta biok bagabiltza aspaldi honetan eta urtarrilean ikastaro bat egingo dugu, EHNEren bitartez. Handitzea geratu egiten da arrak eta emeak *asuntoarekin* hasten direnean, eta zikiratuz gero, ez dago arazorik". Hamar hilabete barru lapikoan gozatzeko moduan egongo dira txitak.



**INKUBAGAILUA** Juan Antonio Aretxaga inkubagailuaren ondoan eta, irudi txikian, Mendibitzuko txita jaioberriak. TXOMIN MADINA

## ahobero

### "Numantziaren eta Alavesen arteko partiduan ikusi denez, epaileek ETAren alde arbitratzen dute orain"

**Carlos De la Casa** > Gaztela eta Leongo lurralde-ordezkaria

Penagarri ari dira futbol epaileak, eta hori gutxi balitz ETAren kolaboratzaile izatea leporatzen diete orain. Pronostiko eskasa De la Casarena; ez zuen kiniela asmatuko...

## iturri onetik

### Oñatiko Udalak ezetza eman du Kale Barrian garagardotegia jartzeari

Oñatiko Udalak ezezkoa eman du Kale Barriko 22. zenbakian garagardotegia jartzeari. Ezetza emateko arrazoia zera izan da: ez direla arau subsidiarioak betetzen. Hain zuzen ere, bi tabernaren arteko distantzia gutxienez 30 metro izatea jasotzen da, eta kasu honetan 26 metro zen, Guria tabernak Kale Barriko 18. zenbakira duen irteera (beste bat dauka Atzeko kalera) kontuan izanda.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Toki telebista publikoak

Gizakion aurrerapausoak beti egon dira lotuak erakundeen ardura publikoekin. Osasuna, hezkuntza, erretiroa, argindarra, ura edo eskubide zibilak ez dira orokorrak izan harik eta erakunde publikoek eskaini dituzten arte.

Informazioarekin, beste horrenbeste. Are gehiago, euskarazko informazioarekin. Erakunde publikoen erantzukizuna da herritarroi bermatzea informazio jario nahikoa eta zintzoa, informazio interesatuei aurre egiteko gai izan gaitezen. Baita jario hori euskaraz iris dakigula, hizkuntza indartsuen artean gureak iraun dezan. Hargatik, euskarazko toki hedabideak zerbitzu publiko dira, argiteria bezala.

Toki telebistek legea behar zuten. Orain falta da erakundeen bultzada, euskaraz eta publiko izan daitezen.

## ai, ene!



### Bi esku eta bi hankarekin nahiko ez dutenendako

Ez dakigu onerako ala txarrerako izango den haurra olagarroz mozorrotzea. Horrenbeste erro izanda, auskalo!

http://tinyurl.com/y7mnp2



GOIENKARIAren PUBLIZITATE GEHIGARRIA

# Osasuna

Egubakoitza / 2006ko azaroaren 24a / **Arduraduna:** Leire Kortabarria / **Maketazioa:** Oxel Arrieta



HORTZAK
•
AKUPUNTURA
•
MASAJEAK
•
LEHEN SOROSPENAK
•
ETXEKO ERREMEDIOAK
•
UROLOGIA

AZALA: OXEL ARRIETA



# AMETS
## estetika zentroa

Masterreka 19 Bergara
Tel.: 943 76 46 53

Erditze osteko tratamenduak
Drainatze linfatikoa
Presoterapia
Sendotze tratamenduak
Menopausia tratamenduak
Gorputz eta aurpegi tratamenduak
Laser mediko depilazioa *(Lightsheer)*

AZKARAN











# AGIRRE
## HORTZ KLINIKA

Nagore eta Alaitz Agirre odontologoak,
Gotzone Arkarazo eta Silvia Romero laguntzaileak






Ibargarai 9, 1-B. BERGARA
Tel.: 943 76 00 23
**09:00-13:00 eta 17:00-21:00**

AEGON aseguroak
RPS: 139/01



UMEEN HORTZAK ZELAN ZAINDU

# Umetatik hortzak zaintzea, heldutasunerako bermea

AINTZANE IRIZAR

**Hortz eta hagin osasuntsuak izateko, ezinbestekoa da ume-umetatik ondo garbitu eta zaintzea. Heldutasunean ahoan izaten ditugun arazo asko ekidin ditzakegu, txikitan zainketa egokia izanda, hortzak ondo garbituta eta dentistarengana joanda.**

Umeari lehendabiziko hortzak irten orduko hasi behar dugu garbitzeko ohitura hartzen. Suerorarekin edo urarekin bustitako gaza batekin igurtzi behar dizkiogu hortzak. Hortzeria osatu ahala, eskuila eta hortzetako pasta erabiltzen hasiko gara.

**BI GARBIKETA SAIO**
Egunean, gutxienez, bi garbiketa saio egin behar dituzte umeek: bata goizean eta bestea gauean, oheratu aurretik. Umeak 3 bat urte dituenera arte, gurasoek arduratu beharko dute hortzak garbitzeaz, baina, umea koskortu ahala, interesgarria da hark hartzea ohitura hori.

**GOAZEN DENTISTARENGANA!**
Umetan, askok sentitu dugu beldur pixka bat dentistarengana joateko. Gaur egun, baina, gehienek dituzte umeen beharretara egokitutako tokiak eta teknikak. Garrantzitsua da umeak naturaltasunez eta beldurrik gabe aurre egitea dentistarenganako bisitei.
Umeak 12-18 hilabete dituenean, lehenengo bisita egitea gomendatzen dute adituek. Sei edo hamabi hilabetean behin azterketak egitea komeni da, gainera.

**TXUPETEA**
Txupetearekin ere kontu handia izan behar dugu. Izan ere, guraso askok dute ohitura txupetea ezti edo azukrearekin emateko umeari. Horrek txantxarra sortzeko arriskua handitzen du. Bestetik, txupeteak arazoak sor ditzake ahoko egituretan, batez ere 2 urtetik aurrerako umeen kasuan. Horregatik, garrantzitsua da adin horretan txupetea alde batera lagatzea.

**Dentistarengana lehen bisita umeak 12-18 hilabete dituenean egitea komeni da**

**Umeari lehenengo hortzak irten orduko komeni da garbitzen hastea, gaza batekin**


Ume bat hortzak garbitzen. ENEKO AZKARATE




ITZIAR UGARTE

*Optika*

*Audiometria*

*Betaurrekoetan azken joerak*

Arrasate pasealekua 35
ARRASATE
943 08 26 87

Eskola Politeknikoaren ondoan

Azken teknologia ikusmen eta entzumen aparatuetan


Ikusmen aparatua

*Erraztazunak ordaintzeko orduan 6 hilabetez interes barik*



Entzumen kabina intsonorizatua

- Proba-kutxa eta foropteroa
- Errefraktometroa eta keratometroa
- Optotipoa
- Frontofokometroa

- Tonometroa (begien tentsioaren neurketa)
- Oftalmoskopioa eta erretinoskopioa
- Zirriztu-lanpara

- Entzumen probak
amplifon audifonoak
belarritarako tapoiak

FREMAP aseguruarekin hitzarmenak +VISION GRUPO ÓPTICO



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

# Beste sendabide batzuk aukeran

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Medikuntza osagarria edo alternatiboa: ohiko medikuntzatik aldenduta edo haren lagungarri, osasunaren mesedetan erabiltzen diren sistema, praktika eta produktuak dira. Konplexua da, hala ere, medikuntza alternatiboaz hitz egitea, tratamendu eta formula asko batzen dituelako bere baitan.**

Akupuntura, masajeak, osteopatia, homeopatia, erreflexologia... gero eta sarriago entzuten diren hitzak dira. Ohikoa edo tradizionala den medikuntzarekin batera zein hori ordezkatuz, hainbat min eta gaitzen erremedio edo konponbide moduan hartzen dira medikuntza alternatiboaren barruan kokatzen ditugun terapiak.

**ENERGIA BIDERATZEKO**

Medikuntza ofizialaren arabera, gaixotasun gehienen sorrera norbanakoaren, ingurumenaren eta kanpoko eragile kaltegarri baten arteko elkarrekintzatik dator.

Diziplina alternatiboen esanetan, berriz, gizakiari bizi izateko energia dario etengabe eta osasuntsu egoteko harmonikoki bideratu behar da energia hori; bestela, nahasteak sortzen dira organismoaren funtzionamenduan, eta horrek gaixotasunak ekartzen ditu norbanakoengan. Energia hori bideratzeko erabiltzen dira, hortaz, teknika alternatiboak.

Teknikak eta terapiak, ofizialak zein ordezkoak; mina dagoenean gaitza sendatzen edo arintzen digunarengana joko dugu. Badira bietatik probatzen dutenak, baita formula bakarrean sinisten dutenak ere.



## AKUPUNTURA: ZIZTADA BIDEZ SENDATZEKO ERA

**Medikuntza txinatarretik datorren terapia da. "Eurek denetariko gaitzendako erabiltzen dute. Oso ondo funtzionatzen du minak sendatzeko, estresarendako, lasaitzeko, burukominarendako, sinusitisarendako...", dio Antzuolan akupuntura saioak egiten dituen Ana Etxeberria terapeutak. "Erretzeari lagatzen diotenendako ere egokia da, antsietatea kontrolatzeko. Hasieran orratzei beldurra izan arren, gero eta gehiagok probatzen du".**



## MASAJEA: ESTRESAREN AJEA ARINTZEN DU

**Floren Elortondok masajeak ematen ditu Aretxabaletan: "Gehienak estresak eraginda-ko bizkarreko kargarekin etortzen dira. Estresak giharrak makaltzen ditu, eta mugikortasuna galtzen denez, blokeoak sortzen dira. Nire lana da gogortasunak kentzea". Adin eta lanbide askotariko jendea joaten zaio: irakasleak, ile-apaintzaileak eta katean lan egiten dutenak, batez ere. "Kirol masajeak ere ematen ditut noizbehinka; eta, inoiz, erlaxatzekoak ere".**

Ana Etxeberria
• Akupuntura
• Masajea
• Osteopatia
Errekalde 6 behea ANTZUOLA
Tel: 943 76 60 13

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
• Diagnostikoa - Orientazioa
• Psikologia klinikoa - Terapiak
• Mota guztietako eskola arazoak
• Peritaje judizialak
• Estimulazio goiztiarra
• Tratu txarrak jasotakoei laguntza psikologikoa (fisikoak, psikikoak)
• Psikomotrizitatea eta logopedia
• Ikasketa teknikak eta ohiturak
Inazio Zuloaga 10 • 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 48 77 • psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net

■ ETXEKO ISTRIPUEI ZELA AURRE EGIN

# Etxeko istripuetan ez larritu; hona hemen aholku batzuk

UBANE MADERA

**Etxean gertatzen diren istripu ohikoenak dira ebakiak, erorketak eta toxikazioak. Noizbehinka erredurak ere gertatzen dira, eta jakiren bat eztarrian geratzea. Larrialdi zerbitzuak iritsi bitartean halakoetan zer egin esplikatu digu ibarreko Gurutze Gorriko Santiago Sarmiento prestakuntza zuzendariak.**



Ebakiren bat eginez gero, ebakia zapaldu egin behar da, gaza esteril edo oihal batekin, odol jarioa gerarazteko. U.M.

"Lehenengo eta behin, prebentzioa zaindu behar da", azpimarratu digu Santi Sarmientok. "Ebakiak zaintzea zaila da, baina badira eskularru bereziak ebakiak saihesteko. Erorketak saihesteko, berriz, alfonbrak erretiratu behar dira, bereziki pertsona nagusiak bizi diren etxeetan". Esan digu, baita ere, erorketa asko gertatzen direla zoruari argizari larregi ematearren.

Prebentzioarekin jarraituz, "toxikazio kasuetarako gomendioa da produktuak ez ateratzea bere ontzitik beste batera, gaizki ulertzerik ez gertatzeko. Nahasketa batzuk ere ez dira egin behar; esaterako, lixiba eta amoniakoa, lixiba ur gogorrekin... Heriotza eragin dezakete horko gasek".

Beraz, istripuak prebenitu egin behar ditugu. Baina, hala ere, istripua gertatzen bada, hona hemen oinarrizko zenbait aholku.

### EBAKIEKIN ZER EGIN

Ebakien kasuan, "zauriaren gainean presio zuzena eragin behar da, gaza esteril edo oihal batekin, gutxienez bost minutuan".

**Larrialdi zerbitzuetako telefonoa 112 da eta, Gipuzkoan, 943 46 11 11**

Erorketen kasuan, berriz, "ez da sekula utzi behar erori dena jaikitzen, ziurtatu arte ez duela minik inon. Erorketen ondorioz, apurketak, luxazioak... gerta daitezke eta mugitzea oso arriskutsua da".

Eta edozein arrazoi dela-eta konortea galtzen badu, "albo batera ipini behar da pertsona, okarekin (botakarekin) ito ez dadin". Sarmientok esan digu gora begira utziz gero, pertsona hori bere mingainarekin edo okarekin ito egin daitekeela, konortea galtzean gertatzen den erlaxazio muskularrak oka eragin dezake-eta; ez beti, baina bai batzuetan.

Toxikazio kasuetarako, Sarmientok eman digun gomendioa da okarik ez eragitea: "Zer irentsi duen jakin barik, sekula ez da eragin behar oka. Lehenbailehen deitu behar da larrialdi zerbitzuetara eta pertsona horrek konortea galtzen ez duela zaindu behar da".

Bestalde, jakiren bat kontrako eztarrira joanez gero lehenengo ikusi behar da eztarriko buxadura (obstrukzioa) osoa den edo ez. "Ezin badu eztulik ezta negarrik egin, buxadura osoa da, ez du arnasarik hartzen. Hori da arriskutsuena". Halakoetan, egokiena da Heimlich maniobra egitea, adibidez: "Besoekin inguratu eta ipintzen da ukabila zilborraren gainean. Beste eskuarekin heldu hori eta zapaldu egin behar da, gogor, mugimendu oblikuoak eginez".

Bukatzeko, erreduren kasuan, freskatu egin behar da erredura, "gutxienez 10 minutuan txorrotaren azpian, giro-tenperaturan".

Floren Elortondo masajista
Dei ezazu ordua eskatzeko

Kirol masajeak eta terapeutikoak
•
Errehabilitazio programak
•
Luzatze ariketak
•
Jarrera-tratamenduak
•
Oinen erreflexologia
•
Osteopatia
Basabe industrialdea D • Aretxabaleta • Tel.: 629 77 85 84

CLINICA DENTAL BERGARA
PADI
HAURREN HORTZAK ZAINTZEKO PROGRAMA
Odontologia orokorra
Inplanteak
Protesiak
Hortz-estetika
Aseguruak
Ipresa
Sanitas
DKV/Previasa
Asisa
Azkaran
Previsora Bilbaina
Aegón
Fremap
Adeslas
Allianz
Mapfre
RPS 99/94
Bidekurutzeta 36, behea BERGARA 943 76 05 77

■ ETXEKO ERREMEDIOAK

# Gure arbasoen jakituria, gaur egun ere ona



LEIRE KORTABARRIA

**Batzuk ezagunak, beste batzuk arraroagoak, batzuk oso bitxiak, eta denak egiteko errazak, horrelakoak dira amonaren erremedioak. Belarrak, frutak eta barazkiak dituzte gehienek oinarri moduan eta osagai horiek prestatzeko, lapikoa, ura, irabiagailua, sutegia… nahikoa dira. Errezeta merkeak dira, horrenbestez, eta edozeinen eskura daude.**

### • Bihotzerrearen aurkako erremedioa

Apio zurtoin bat, bi azenario eta bi aza hosto garbitu, zatitu eta likidotu. Buztin zuri puntatxo bat gehitu, ondo nahastu eta pixkana-pixkana hartu.

### • Idorreria osatzeko elikadura eta errezeta

Baraurik, ur bero baso erdian bi koilarakada oliba-olio hartu, eta gero, bi kiwi edo laranja bat. Zuntz gehiago hartu (fruta, barazkiak eta entsaladak).

### • Sudurreko odol-jario txikiendako erremedioa

Tenperatura aldaketek eragindako odol-jarioak kentzeko, limoi-uretan busti kotoi zatitxo bat eta sudurra horrekin itxi, edo txanpon bat ipini garondo erdian hiruzpalau minutuan.



### • Beherakoa mozteko bi edabe aukeran

Limoi-ura edan egunean barrena, edo, belar-erremedioak gurago dituenak, 15 gramo artehostorekin litro ur baten infusioa egin eta egunean lau aldiz hartu.

### • Kolesterol altuegia jaisten laguntzeko modua

Errezeta honek lagun dezake: hamar garbantzu baso bat uretan ipini, egun batez. Gero, baraurik jan behar dira, ondo murtxikatuz eta baso batekin soja-esne epel. Horrez gain, dieta egokia egin behar da.

### • Hemorroideen aurkako formula erraza

Manzanilla-ura irakin, iragazi eta ordubetean hozkailuan gorde; gero horrekin bainua egin hogei bat minutuan.

### • Burukominarendako erremedio naturala

Bi patata-xerra behar dira, ez oso lodiak; ozpinetan busti eta lokietan bana ipini.

### • Eztarriko traba eta narritadura kentzeko modua

Albahaka egosi, ur litroko 30 gramo, eta horrekin gargarak egin. Eztiarekin edo limoi-urarekin ere egin daitezke.

### • Bista nekatua hobetzeko, bi frutaren zukua

Bi litro uretan, 100 gramo granada azal eta beste 100 mahaspasa irakin 15 minutuan. Hozten utzi eta zuku bezala hartu.

### • Katarroa mozteko, fruta asko eta ura gatzarekin

Sudurra garbitzeko, bota gatza ur berotan eta gargarak egin. Bestetik, jan C bitamina duten frutak: laranja, kiwia…

### • Hilekoaren mina leuntzeko toniko naturala

Platano bat, 50 gramo tofu, azenarioa eta garagardo-legamia irabiatu krema fina egin arte. Gauean hartu.

### • Jaien osteko afoniaren aurkako gargarak

Eztia limoi-urarekin nahastu ur epelean. Eztia disolbatuta dagoenean, gargarak egin.

Debagoieneko
OSASUN
ZERBITZUAK
hilero GOIENKARIAN

AKUPUNTURA
ALBAITARIAK
ANALISI KLINIKOAK
BARNE MEDIKUNTZA
DENTISTAK
DERMATOLOGIA
DIETISTAK
ENTZUMEN ZENTROAK
FISIOTERAPEUTAK
KIROPRAKTIKA ZENTROA
LOGOPEDIA
MASAJISTAK
OPTIKAK
ORTOPEDIA
OSASUN-DIAGNOSTIKOAK
OSTEOPATIA
PODOLOGOAK
PSIKIATRA
PSIKOLOGOAK
UROLOGOAK
YOGA

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

■ ELKARRIZKETA: ALBERTO LLUCH, UDALAITZ ZENTRO MEDIKOKO UROLOGOA

# "Prostataren kontrola 50 urtetik aurrera egin behar da"

EDU MENDIBIL

**Bartzelonakoa jaiotzez, Alberto Lluch urologoa (60 urte) 1975. urtean etorri zen Euskal Herrira lanera. Azken 10 urteotan Arrasateko Udalaitz zentro medikuan ari da, astean behin. Urologoen eskaintza ez da oso zabala Debagoienean eta, aldi berean, jende batek ez dauka ohitura handiegirik beraiengana jotzeko, Lluchen arabera azkenaldian gauzak aldatzen ari diren arren.**

**Badirudi jendea ohitzen ari dela urologoarengana joaten.**

Bai, jendeak prebentzioari gero eta arreta handiagoa jartzen dio eta azken urteko datuek hori erakusten dute: urologoari egiten zaizkion kontsultak ugalduz doazela urtetik urtera.

**Noiz gomendatzen da urologoarengana jotzea?**

Urologoarengana ez da joan behar adin batetik aurrera bakarrik. Askok pentsatzen dute pertsona adinduen kontua dela, baina ez da horrela. Edozein adineko gizonezkoei gomendatzen zaie; baita testikuluetan mina duten nerabeei eta gazteei ere, zirkunzisioaren beharra dutenei, basektomia kasuengatik... Era berean, 50 urtetik aurrera prostataren kontrolak egitea gomendatzen da.

**Normalean, zergatik jotzen dute gizonezkook urologoarengana?**

Kausa askorengatik: testikuluen errebisioa egitera, famili plangintza egin nahi dutenak ere etortzen dira, onkologia arazoak dituztenak (puxikako tumorea, prostata, giltzurruna edo testikulua), infekzioengatik, giltzurrunetako kolikoak, prostata ondo duten begiratzera, sexu disfuntzio arazoak...

**Prostata noiz hasten da arazoak ematen?**

Prostata gizonezko guztiok txikitatik daukagun glandula bat da. Arazoak ematen hasten da 50-60 urtetik aurrera eta orduan noizean behin azterketa egitea gomendatzen da. Gizonezko gazteen kasuan, beste arazo batzuk agertzen dira, nagusiki infekzioek eragindakoak.

**Emakumezkoek ere jotzen dute urologoarena...**

Emakumezkoen kasuan, hiru arrazoi nagusi dira urologoarengana joateko: infekzioak (zistitis arazoak), inkontinentzia eta tumoreak eta kalkuluak; gizonezkoak baino askoz ere proportzio baxuagoan, baina.



Edozein adineko gizonezkoei gomendatzen zaie kontsultara joatea. Emakumeek ere jotzen dute urologoarengana. ARTXIBOA

**Orokorrean, zelako zainketak gomendatzen dituzu?**

Higiene eta elikadura ohitura batzuk jarraitzea: likido dezente hartzea, pisua zaintzea, pixa egiteko gogoa etortzen zaigunean eta arazoren bat sortzen denean, familiako medikura joatea.

> **"Urologoari egiten zaizkion kontsultak ugalduz doaz urtetik urtera"**

**Debagoienean, zelan dago urologoen eskaintza?**

Osakidetzako urologia zerbitzua Gasteizen dago; eta Arrasateko ospitalean jarriko dute etorkizunean. Zenbait zentro medikutan ere badago urologoarengana joateko aukera.

CMU centro médico UDALAITZ

• Erradiologia
• Scanner-TAC
• Ekografia
• Analisi klinikoak
• Mamografia
• Hortz-TAC
• Azterketa medikoak
• Erizaintza
• Erresonantzia magnetikoa
• Hezurren densitometria

ERRESONANTZIA MAGNETIKOA

IREKIA



MEDIKUAK

■ JUAN TORRES
TXEMA ALUSTIZA
Erradiologia.

■ JOSE RAMON GALARZA,
ARSENIO DIEGO
Traumatologia.

■ ANGEL LAFUENTE,
ALBERTO LEGORBURU
Gorputzeko minaren balorazioa.

■ FATHY
EIYANA
Barne Medikuntza.
Azterketa medikoak..

■ JULIO URUEÑA,
JULIO GONZALEZ
Ginekologia.

■ RAQUEL PEREIRA
Medikoa-Goi mailako teknikaria
Dietetika eta Nutrizioa

■ ALBERTO LLUCH
Urologia.

■ CARMEN JACA
Neumologia

■ GONZALO SERRANO
Dermatologia.

KONTSULTA BERRIA:
Osasun parametroen desajusteak: koresterola, azukrea, tentsio altua, tiroideak, triglizerido altuak...**kontrola eta jarraipena**

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera.
7:30etik 12:30era.
14:30etik 19:30era.

Ferrerias Kalea 56
• ARRASATE
Nafarroako etorbidea 3
•ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22
Tel. eta faxa: 943 79 44 56
inform@cmudalaitz.com

# LIRAIN ESTETIKA ZENTROA

## Nola berreskuratu eta mantendu gaztetasuna oxigenoarekin

## OXIGENOA bizitza da





**Lirain Estetika Zentroko arduraduna da Mari Carmen Pardo. Lirainek betidanik izan du bezeroaren beharrak betetzeko grina. Eguneroko beharrei erantzuteko ezinbestekoa da puntako tresneria erabiltzea. Gaur egun estetikan erabiltzen diren azken tendentziak aurkezten dizkigu: OXIGENOTERAPIA.**

**- Oxigenoaz asko hitz egiten da, baina zer da OXIGENOTERAPIA ?**

Oxigenorik gabe ez dago bizitzarik, bizitzaren motorra da. Egun batzuk eman ditzakegu jan eta edan gabe, baina minutu gutxi batzuk arnasa hartu gabe egonez gero, hil egingo ginateke.

**- Zer eragin dauka oxigenoak gure gorputzean?**

Zelula bakoitzak bere metabolismorako oxigenoa behar du. Hura falta bazaie, zelulak hil egiten dira, eta gutxi egonez gero, arnasa hartu beharrean degeneratu egiten dira.

**- Ze ondorio dauka horrek gure gorputzean?**

Oxigenoa galtzea zeluletan elastikotasunaren galeraren, zimurren, bizitasun faltaren eta biguntasunaren arrazoia da; hau da, zahartzearen arrazoietariko bat da.

**- Zerk gehiago eragiten du zahartzean?**

Oxigeno falta gure azalaren ahuleziaren sintoma da. Kutsaduraz inguratuta gaude, baina tabakoak, alkoholak, estresak, sendagai batzuek eta dieta ez orekatuak ere zelulen berritzean eragina dute eta zahartzea bizkortzen dute. Oxigenoak prozesu hau eragozten du.

> **“Oxigenoaren galera elastikotasunaren galeraren, zimurren, bizitasun faltaren eta biguntasunaren arrazoia da; hau da, zahartzearen arrazoietariko bat da”**

**- Estetikan, zertarako erabiltzen duzue oxigenoa?**

Estetikan erabiltzen da azala oxigenatzeko, kongestioa kentzeko, sendotzaile moduan eta beste gauza askotarako. Gorputz tratamenduetan ere badu eragina, metabolismoa suspertzen baitu.

**- Bizitzaren iturria dela ematen du…**

Bizitzaren iturria da. Oxigenoak gure fuela (karbohidratoak, koipeak eta proteinak) berotasun, energia eta bizitza bihurtzen du. Zientifikoki frogatuta dago oxigeno gehigarria arnasteak gure egoera fisikoa eta mentala hobetzen duela.

> **“Bizitzaren iturria da. Zientifikoki frogatuta dago oxigeno gehigarria arnasteak gure egoera fisikoa eta mentala hobetzen duela”**

**- Nola hartzen da tratamendua?**

Inhalagailu bidez edo kupula baten bitartez. Erabiltzen dugun teknikaren arabera 20 edo 30 minutuko tratamendua da.

Oso sentsazio goxoa da: ongizatea, hain zuzen ere.

**Gaurtik aurrera edonork har dezake oxigeno bainu bat!!**

## Elikadura: GERNETIC

**Elikadura da gure gorputzean ditugun orekarik eza gehienen arrazoia**

Elikaduran egin diren urrerapenek garbi uzten dute elikadura egokia dela osasuna eta ongizatea lortzeko biderik zuzenena.
Ez dago mundu guztiari balio dion dieta idealik, baina irizpide orokor batzuk onartuta daude dieta orekatua deitutakoak jasotzen dituenak.

**Zer esan nahi du dieta orekatuak?**
Elikagai kopuru nahikoa eta kantitate egokian biltzen dituen dieta da, norberaren egoeraren arabera (adina, egoera fisikoa –haurtzaroa, luzatze adina, haurdunaldia–, sexua, gorputz konposaketa…) eta baita bizitzeko era ere (aktiboa, sedentarioa...).

**GERNETIC: elikaduraren gabeziak zuzentzeko teknika**
Gure organismoaren orekarik ezak gabezia batzuk sortzen ditu: bitaminak, mineralak, olio elementuak… GERNETIC teknikari esker, diagnostiko zorrotza egin eta gabezia horien jatorria antzematen da. Jatorria ezagutzerakoan, dagokion produktu eta tratamendua aplikatzen da.
Zelulitis edo barizeen kasuetarako teknika aproposa da. Jatorrira heltzen denez, idorreria, antsietatea, koipe metatuak, zirkulazio arazoak eta armiarma baskularren desdoikuntzak konpontzen eta desagerrarazten ditu. Bolumenaren galera eta azalaren oxigenazioa da haren efektua, eta biguntasuna zuzentzen du.

## Nire aholkua

**Gabon jaietan osasuna opari egin**
Egun hauetaz gozatzen jakin behar dugu. Aurten, oparia egiteko orduan originalak izan behar dugu: osasuna opari egin. Lirainen, zerbitzu erlaxagarriak, masajeak, gorputz eta aurpegi tratamenduak eta kalitate handiko produktuak aurkituko dituzue, bete-betean asmatuko duzue.
**Aurten, mima zaitez!**

**Mari Carmen Pardo**

Bixente Ferrer, 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 52 17

LIRAIN
ESTETIKA ZENTROA